Harreraren edo sentsibilizazioaren dimentsio komunitarioari dagokionez, sektore publikoak gehiago lantzen du sustapen-jardueratik (diru-laguntzak), dokumentu honetan ez sistematizatzea erabaki baita, baina ardatz honetan eta dimentsio horri dagokionez, nahitaez garapena izan behar du.

Adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiak bi dirulaguntza-lerro aipatzen ditu: a) gizartea eraldatzeko sentsibilizazio- eta/edo hezkuntza-proiektuetarako; b) Bizkaiko kultura-aniztasunaren aitorpena eta kultura eta jatorri desberdinetako taldeen eta pertsonen arteko elkarriketa eta topaketa sustatzen duten proiektuak egiteko.

2.2. Landa-balioa handitzearen zeharkako ardatza

Araba da landa-errealitateak adierazpenik handiena duen Lurralde Historikoa, eta, logikoa denez, ardatz horrek garapen handiagoa du lurralde historiko horretan. Hala ere, Bizkaia eta Gipuzkoak ere garatzen dituzte alor horretako jarduerak.

2.2.1. Gipuzkoa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, 2015-2019 legegintzaldian Landagipuzkoa+ proiektua abian jartzearen helburua da lurraldearen egituraketa hobea sustatzea eta herri txikien beharrei eta errealitateari erantzutea, aukera-berdintasunaren (lurralde-oreka edo, gutxienez, berdintasuna edo ekitatea zerbitzuak eta azpiegiturak eskuratzean) eta landa-ingurunearen balioa handitzeko.

Herri txikien errealitatea azpimarratuz, orduz geroztik hainbat ekimen gauzatu dira 2.500 biztanle baino gutxiagoko 48 nukleoetatik banda zabala baserri bakoitzera hedatzearekin, elektrifikazioa hobetzearekin, landa-bideak berritzearekin, ur- eta etxebizitza-horniduraren arloko beharrak aztertzearekin, katastroa digitalizatzerekin (landa-lurzorua).

Horrekin guztiari, 2019an Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza Nagusia sortu izana gehitu behar da, aipatutako 48 guneen errealitatearen diagnostikoa egin duena –Arabian landa-errealitatearen inguruan egin den bezala– eta udal txikiei laguntzeko hainbat tresna abian jarri dituen: administrazio-kudeaketan laguntzea, administrazio elektronikoa ezartzeko laguntza, udalerriei arreta emateko gunea eta zerbitzuen katalogoa edo idazkari kontu-hartzaileentzako intranet bat.

2.2.2. Bizkaia

Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako politikek nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduera dute ardatz, eta hainbat laguntza biltzen ditu: nekazaritza-ustategiak modernizatzeko laguntzak; nekazaritza-ingurumeneko laguntzak; mendi-nekazaritzako eta eremu kaltetuetako zailtasun naturalak konpentsatzeko laguntzak; nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako aseguru-primak; nekazaritza-ustategietako ordezkapen-zerbitzuak; ordainketa bakarra eta zuzeneko laguntzak (aitortutako eta kontroletik zehaztutako azalerari lotuak) eta abeltzaintza-primak. Izan ere, landa-ingurunea estu-estu lotuta dago lehen sektorearekin eta natura-inguruneako jarduerarekin: basogintza, abeltzaintza, nekazaritza... Hala ere, lehen sektoreak bizi duen prekarietatea dela-eta, jarduera ekonomiko hori aktiboak galtzen joan da.

Jarduera ekonomikorik ezaren, landa-eremuetarako migrazioaren eta biztanleriaren zahartzearen ondorioz, Bizkaiko landa-eremuak ekonomia dinamizatzeko politika be-

rriak behar ditu, Bizkaiko Foru Aldundiak BIZKAIMENDI Landa Garapeneko Elkarteen Federazioarekin lantzen dituenak.

BIZKAIMENDI, Landa Garapeneko Elkarteeke lankidetzaren programa, ikuspegi integrala hartzen du, eta landa-inguruneke bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzera bideratuta dago. Ildo horretan, erakunde horiekin lankidetzan aritzeak aukera ematen du landa-ingurunea hobetzeko premiak identifikatzeko, Bizkaiko landa-biztanleriaren problematiken antena gisa. Erakunde horien bitartez, Bizkaiko eskualdeen garapen sozioekonomikorako ekintzak ezartzen dira. Ekintza horiek honako hauek dira: landa-ekintzailatza babestea; ekintzailatza-zentroak sustatzea; landa-ingurunean negozioak ezartzeko laguntzen sustapena eta aholkularitza; konektibitate- eta digitalizazio-proiektuak; landa-etxebizitzak hobetzea... Era berean, Bizkaiko Landa Garapeneko Elkartek landa-eremuetako garapen turistikoko eragileak dira, eta turismo-politikak ezartzea eta beste ekintza batzuk erakartzea ahalbidetzen dute.

Azkenik, 1. ardatzarekin lotuta, UDAL GAZTEDI sarea lurraldeko landa-eremuetara iristen dela gogorarazteaz gain, nekazari gazteentzako lehen nekazaritza-instalaziorako laguntzak eta Nekazaritza Lurren Funtsa (LUR FUNTSA) nabarmendu behar dira. Funts horren bidez, beharrezko baldintzak bermatu nahi dira, lurra oinarri duten nekazaritza-ustategietan nekazaritzan jardun nahi duten pertsona guztiei lurra eman ahal izateko, bai lehendik daudenei, bai sortu berriei, eta, horretarako, gazteak nekazaritzan eta elikagai-gintzan eta elkarte edo taldeetan sar daitezen erraztu nahi da.

Bizkaian, Herri Txiki Aukera Handi 2019-2023 proiektuak arreta berezia jartzen du, tokiko eragileekin batera, Bizkaiko herri txikien erroka komun konponbideak identifikatzean, zerbitzuei eta konektibitate fisiko eta digitalari dagokienez, betiere horiek kalitatezko zerbitzu publikoak izan ditzaten. Programa horren barruan, digitalizazioaren esparruan, operadoreek abiadura handiko banda zabaleko azpiegiturak eta zerbitzuak hedatzen ari dira, belaunaldi berriko azpiegiturarik eta hiru urteko epean hedatzeko planik ez duten landa-eremuetan.

Bizkaiko lurraldean oreka eta aukera-berdintasuna bermatzea da helburua, eta, horretarako, abiadura handiko banda zabaleko sareak (>300 Mbps) hedatzea sustatuko da, telekomunikazioke operadoreen planetatik kanpo geratzen diren landa-eremuk ere eremu sakabanatuetan, ekonomikoki errentagarriak ez direlako.

2.2.3. Araba

2.2.3.1. Arabake despopulazioaren fenomenoaren diagnostikoa

Arabake landa-balioa handitzeko politiken egoeraren diagnostikoa eta deskribapena abiapuntu eta oinarri bat dira arlo horretako politika integralak bideratzeko, lurralde historiko bakoitzaren eta koadrila, eskualde edo, azken batean, herri txiki bakoitzaren berezitasunekin.

Araba landa-bizitzaz beteriko lurraldea da, eta bere administrazio-errealitatea 333 kontzejutan, 51 udalerritan eta 7 koadrilatan oinarritzen da. Bestalde, biztanleriaren % 75 hiriburuan bizi da, eta % 25, berriz, Arabake gainerako hiriburuan, Trebiño barne. 434 biztanlegune ditugu; horietatik 417tan 1.000 pertsona baino gutxiago bizi dira, eta 252tan 50 baino gutxiago.

Biztanleriaren banaketa desberdin hori ez da fenomeno berria. 60ko eta 70eko hamarkadetan biztanleria Gasteizen inguruan metatzearen ondorioa da, hiriburuaren eta haren inguruaren batez ere industria-garapenaren ondorioz. Fenomeno globala da, bestalde.

Errealitate horren ondorioz, Foru Aldundiak berebiziko garrantzia izan du bizitza- eta administrazio-eskema horri eusteko. Eta Araba nortasun propioa duen lurralde bat da, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde anaietakoaren desberdina den errealitate bat duena. Errealitate horrek foru-jarduera desberdinak eragin ditu, eta horietako batzuk nabar-

menduko ditugu, bizitzeko eta lan egiteko herri biziak eta erakargarriak izateko egiten duen ekarpenagatik.

Jarraian, Euskal Herriko Unibertsitateak Arabako biztanleriaren errealitateari buruz egingo dako azterlan baten ondorio nagusiak:

- Biztanleriaren egiturak eta, bereziki, zatikatzeak, eragina du despopulazio-prozesuan eta bizkortu egiten du. Era berean, despopulazioa areagotu egin da tokiko erakundeek eta eskualde-buru batzuen urritze demografikoan, eta hori mehatxua da.

- Tokiko nukleoek eta erakundeek ezaugarriak dagokien kokapen-sistemaren testuinguruan baloratu behar dira, batez ere kontuan hartuta funtzio indibidual eta kolektibo gehienak udalaz gaindikoak direla.

- 51 udalerritatik 43k nekazaritza-sektorean okupaturako biztanleriaren ehunekoak behera egin du 2001 eta 2019 artean, Guardia-Arabako Errioxa kuadrillako 8 udalerririk izan ezik, mahastizaintza eta ardogintzako jardueraren gorakadarekin batera.

- Datuek adierazten dute hobekuntza egon dela Arabako prestakuntza-mailetan: erdi-mailako eta goi-mailako ikasketak zituen biztanleriaren % 35,31tik (2001) % 42,49ra (2019).

- Demografia- eta ekonomia-atonia handiena duten landa-entitateei batez ere eragiten dien biztanleriaren zahartze eta gainzahartze gero eta handiagoa eta larria aukera bihur daitekeen ahulezia garrantzitsua da: adinekoei lan-nitxo gisa laguntzea lurralde horietako produkzio-testuinguruan.

- Aukera bat da gizarteak eta erakundeek gero eta kezka handiagoa izatea elikagaien kalitateaz eta segurtasunaz. Kezka horren ondorioz, kalitatezko zigiluak dituzten produktuak eta lurralde-jatorriko identifikazioa dituzten produktuak sustatu dira, eta nekazaritzako elikagaien sare alternatiboak sortu dira. Sare horiek, adibidez, hurbileko nekazaritza eta merkaturatzeko zirkuitu laburrak balioesten dituzte, eta akuilu eta aukera izan daitezke landa-eremu askotan.

- Esperientziak erakutsi du turismoa ez dela panazea landa-lurralde guztietarako, baina, jakina, garapen-aukerak ematen ditu natura- eta kultura-ondare baliotsua duten eremuetan, batzuetan behar bezala aitortu eta baloratu gabe.

- Nekazaritza-sistemek lurralde-garapenari egiten dioten ekarpenak eremu ekonomikoa gainditzen du; izan ere, elikagaien eta lehengaien ekoizpenarekin ia eskusiboki identifikatzen bada, funtzio anitzeko izaera nabarmentzen da orain, eta produkzioz kanpoko baliabideei balioa ematen zaie –paisaiak, ondarea, lurralde-kultura...–, aisialdiaren gizarteak aurrera egin duelako eta herritarrek produktu ukiezinaren inguruan egiten dituzten eskaera berriak direla-eta.

- Espainiako eta Euskadiko beste landa-lurralde batzuetako ekimenek kapital sozialaren eta ezagutzatik eta esperientziaz eratorritako lurralde-adimenaren garrantzia azpimarratzen dute. Hori aprobetxatu beharreko aukera bat da lurralde-eskumen esparru batean eremu bakoitzaren berezko ezaugarrietara egokitutako ekintza bereziak proposatzeko.

- Espainiako beste lurralde batzuetan atzerakada demografikoa eta despopulazioa tarteko hiriguneetara hedatu den bitartean, Araban neurri txikiagoan gertatu da hori (bai, ordea, Laudion), eta landa-eremuetan kontzentratu da nagusiki.

- Alde batera uzteko arrazoi indibidual nagusiak honako hauek dira: etxebizitza eskuratzeko eta egokitzeko zailtasuna; garraio publikoaren defizitak; lan-aukera gutxi; ekiteko zailtasunak; eta aisialdi-eskaintza eskasa.

- Funtsezkoa da lurraldearen zatien arteko loturak bermatzea, landa-biztanleria mantentzeko; horrela, mugikortasuna landatartasunaren euskarri eta zutabe gisa ulertzen da.

·Arrazoizkoa dirudi etxebizitza-politika eraginkorrak sustatzea, tokiko gazteen sustraitzea errazteko eta gazteak ez daitezen irten.

·Erronka bat da egoiliar berrien finkapena ez mugatzea herria logela gisa edo asteburuetako egonaldiatarako erabiltzera eta familia ibiltariagoen sustraitzea erraztera.

·Datozen hiru hamarkadetan, populazio-bolumen handia erretiratuko da Espainian, eta erretiratzeko adinera iristen direnek hiriguneetatik paisaia- eta ingurumen-kalitatea duten landa-eremuetara joan-etorriak egiteko joera dutela egiaztatu denez, aukera dago biztanleria-mota horretarako ezaugarri egokiak dituen etxebizitza-parke bat eskaintzeko, aldi berean zerbitzuak eta ekipamenduak biltzen dituzten gunetara joateko garraio publikoko eskaintza egokia gaituz.

·Telelana areagotzeko aukerak aukera ematen du lan egiteko adinean dauden herritarrek landa-eremuetara erakartzeko, Interneteko banda zabaleko estaldura eta paisaia- eta ingurumen-kalitate handia aprobetxatuz. 5G sistema hedatzea eta lurralde osoa digitalizatzea aukera bat izan daiteke ekonomiaren, lanaren eta gizartearen aldetik, berrikuntza hedatzeko bitarteko bat eta zerbitzu aurreratuak emateko bide paregabea (telemedikuntza eta telelaguntza, adibidez), justizia soziala eta lurralde-oreka lortzen lagun dezakeena.

·Komenigarria dirudi azterketa zehatza eta hausnarketa kritikoa egitea landa-eremu behartsuenetan abiarazitako landa-garapeneko neurrien ondorioei buruz, lurralde horiek izan baitira, aldi berean, despopulazio-prozesuaren aldekoenak.

·Aurrekoaren haritik, ikusi da lan-eskaintzak ez duela beti bermatzen biztanleria finkatzea; lanpostuak eta horien eskaintza landa-ingurunean deslokalizatu daitezke, eta, aldi berean, hiriguneetan bizitegiak pilatu.

·Azken hamarkadetako esperientziak erakutsi du funtsezkoa dela masa sozial kritikoa-ri eustea landa-garapeneko ekintza arrakastatsuei aurre egin ahal izateko.

·Funtsezkoa izango da landa-udalerrietan lotutako biztanleriaren mugikortasuna eta ondorioak sakon aztertzea; izan ere, fluxu asko eta asko estatistiketatik kanpo gertatzen dira, baina eragin handia dute gizartean, ekonomian eta lurraldean.

·Politika sektorialen koordinazioa eta hainbat mailatako lankidetzak, batez ere udalaz gaindikoa, funtsezkoak dira despopulazioari eta landa-garapenari arrakastaz aurre egiteko.

2.2.3.2. Arabako Foru Aldundiaren jarduera espezifiko garrantzitsuenak

Honako hauek dira Arabako Foru Aldundiak landa-ingurunean bultzatutako jarduerak nagusiak.

•Garapen ekonomikoa

-Koadrilen ekonomia suspertzeko planak: egoeraren diagnostikoa, premien identifikazioa eta egin beharreko jardueren proposamen arrazoitua. Araba Garapen Agentziak, foru-enpresak, planaren laguntza eta jarraipena egiten du.

-Arabako kuadrilla eta udalerrietan enplegua sustatzea. Enplegu-anezkak. Enpleguaren hobekuntza kantitatean, udaleko enplegu-anezken lanarekin jarraituz, kontratazioarako zuzeneko laguntzak eta enplegurako prestakuntzari laguntza, eta kalitatea, enpresaren barruan lanpostuz igotzeko aukerak erraztuz, Arabako langileen kualifikazioa, birziklapena eta akreditazioak hobetuz.

-Arabako kuadrilla eta udaletan turismoari laguntzeko programak. Ildo estrategiko honek arreta jartzen dio Arabako turismoaren aurrerapenari, tokiko erakargarri turistikoak sustatuz ostalaritza-sektorearen garapen eraginkorra lortzeko bitarteko gisa. Honela zehazten da: Araba Programa turismo irisgarriko erreferentzia gisa; lurralde osoko ekitaldi, kongresu eta jardueretarako laguntza koordinatua; landa-guneeta-

ko egoiliarrentzako turismo-gidak prestatzeko plana; tokiko produktuak eta saltokiak sustatzen dituzten proiektuetarako diru-laguntzak; turismo-enpresa eta -sustatzaileak babestea; turismo-erakargarriak aktibatzen dituzten proiektuetarako laguntza; Arabako turismo-mahaia sortzea; bisitari-tipologiaren arabera turismo-paketeak sortzea; erakargarrien eta baliabideen koadrila bakoitzetik informazio zentralizatua.

-Merkataritza-sektoreari laguntzea landa-eremuetan. Jarduera egituratu batzuk bil-tzen ditu, tokiko txikizkako merkataritzari laguntzeko, online erosteko ohitura berriek dakarten mehatxuaren aurrean: teknologia berrien erabilera eta tokiko merkataritza kudeatzeko programak sustatzea; landa-saltokien diagnostikoak egiteko eta berriz flotarazteko alerta-sistema indartzea; saltokien belaunaldi-transmisioa errazten duten ekintzak; merkataritza-eremuak hobetzea eta urte-sasoiko merkatuak bultzatzea; pre-mia handiko landa-saltokiak modernizatzea eta espezializatzea; marketineko eta mer-kataritza-ikusgarritasuneko jarduerak.

-Ardoaren Ekonomia eta Kulturaren Bikaintasun Zentroa sortzea. Arabako Errioxan zentro berri bat abian jartzea, ardoaren ekonomiaren eta kulturaren esparruan bikain-tasunaren erreferente izan dadin (mahastizaintza eta ardogintza, enogastronomia, enoturismoa, ardoaren eta mahastien ondarea eta kultura-paisaia). Berezko nortasu-na duen eta nazioan eta nazioartean aintzatespena duen zentro bat, Arabako Errioxa bikaintasuneko eta helmuga enogastronomikoko mahastizaintzako eta ardogintzako eskualde gisa garatzea eta proiektatzea sustatuko duena, prestakuntzaren, ikerketa-ren, berrikuntzaren, ekintzailatzaren sustapenaren, enpresen eta sektoreen lehiakorta-sunaren euskarriaren bidez (besteak beste, Arabako Errioxako ardoarentzako Bikainta-suneko Zigilu baten merkaturatzeari eta funtzionamenduari laguntzea), ardogintzaren sustapenaren eta balio-kateen bidez.

-Arabako Mendialdean Meatze Espazioak Garatzeko Masterra. Arabako Mendialdeko asfalto naturalen ustiatagietako meatze-paisaiak lehengoratzeko Master Plan bat egi-ten ari da, bai eta bertako natura-, kultura- eta ekoturismo-ondareari balioa emateko jarduerak formulatu eta garatu ere.

•Landa-ingurunea digitalizatzea

-Banda zabalaren hedapena. Araba Konektatua programa. Banda zabalak komuni-kazio interaktiboak areagotzen ditu, batez ere datuak transmititzeko eta prozesatzeko abiadura handitzearekin lotuta. Landa-eremuetara abiadura handiko sareak erama-teak ahalegin handia eskatzen du lurraldea egituztatzera bideratutako politiketan, hi-ri-eremuaren eta landa-eremuaren arteko arrakala murrizteko.

Horregatik, eta Arabako biztanleguneen populazio-dentsitatea txikia izan arren, lehen-tasuna izan da 2017an lurraldean lehen sustapen-eskaintza egin zenetik. Prozesu ho-rretan Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza izan dira buru Araban, eta horri es-ker, abian diren sustapen-deialdiak osatu ondoren, Arabako nukleoen % 100ek banda zabalarekin konektagarritasuna izango dute. Arabako Foru Aldundiaren kasuan, inber-tzioak Foru Planaren aurrekontu-partiden zati izan dira.

Era berean, Arabako enpresa, negozio eta ekoizpenetan komunikazio-sareak hobetu eta modernizatzekeo pizgarriari ekin zaio. Gaur egun, enpresen % 99k baino gehiagok dute abiadura handiko sareetarako sarbidea, edozein lekutan daudela ere.

-ArabAMarket. Arabako landa-negozioen webgunea. Erakundeok konpromisoa har-tu dugu landa-garapena nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako osagaietan ez ezik, garapen inklusiboan ere oinarritzeko, ohiko negozioak eta berrikuntza handi-ko negozioak bateratuko dituen. Arabako landatartasunaren negozio guztiei balioa emateko, eta kuadrilla guztiek hala eskatuta, erakusleiko digital bat jarri da martxan, ArabAMarket izenarekin, landa-eremuko jarduera ekonomikoa bultzatzeko, konektibi-tatean, IKTetarako sarbidean, ekintzailatzen eta garapen iraunkorrean oinarrituta.

Proiektu horri lotuta, Vital Fundazioaren laguntzarekin, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herriguneetan kokatutako landa-negozioei laguntzeko bonu-kanpaina bat jarri da abian, landa-negozio horien jardura ekonomikoa handitzen laguntzeko, are gehiago COVID-19 pandemiaren eragina jasan duten garai honetan.

-Araba Smart Lurraldea. Arabako lurraldearen konektibitate integral digitala da. Proiektuak oinarritzko bost jardura-ildo ditu:

- Banda zabala Arabako Lurralde Historikoaren % 100ean hedatzen amaitzea.
- 5G sarearen garapena Araban: 5G Araba Plana.
- IOT (Gauzen Internet) proiektu pilotua Arabako Kuadrilla batean.
- Ahotsa estaltzeko plan berezia lurraldeko herriguneak lotzen dituzten herri eta errepide guztietan.
- WIFI proiektu publikoa 100 biztanletik gorako guneetan.

•Lehen sektorea

Arabako lurzoruan nekazaritzara, abeltzaintzara eta basogintzara bideratutako azalera zabaltzeak jardura eta programa aniztasun handia dakar nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta mendien arloetan, eta jardura eta programa horiek bilakaera izan dute denboraren poderioz, Araban beti izan den foru-eskumen batean.

-Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak hobetzea. Beti uztartu izan dira nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategiak modernizatzeko neurriak, haien bideragarritasuna eta lehiakortasuna hobetzeko, profesionalizazio handiagoa lortzeko eta belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko: animalien ongizateari buruzko araudia betetzen laguntzea edo makineria erostea, nekazaritza-lurzorua kudeaketan eraginkortasuna eta iraunkortasuna hobetzeko eta ongarrien erabilera hobetzeko; edo, abeltzaintzaren arloan, ganadua energia aurrezteko edo gasak murriztea sustatzen duen teknologiarekin haztea sustatzea.

-Mendi Publikoak. Araba ezaguna da Arabako toki-erakundearen jabetzako mendi publikoen kontzentrazio handiagoa dagoelako, eta, horregatik, Foru Aldundiak kontrol-, zaintza- eta laguntza-politikak garatu eta garatzen ditu, Arabako mendiak mantentzeko eta hobetzeko. Landa-bideen sarea toki-erakundearen jabetzakoa da, eta foru-finantziazioko programa bat du. Programa horri esker, sarea mantendu ahal izan da, jabe publikoen botere ekonomikoa edozein dela ere.

-Arabako ardoak eta sagardoak sustatzea eta kokatzea. Ekintza estrategiko honek agerian uzten du Arabako nekazaritzako elikagaien sektoreak duen garrantzia eta ardoa eta sagardoa sustatzeko tratamendu individualizatuaren beharra, hala nola: Errioxa JDKn Arabako Errioxa Jatorri Deitura sustatzea; Errioxako Ardoaren eta Errioxa-Sonsierren Mahastiaren Paisaiaren Adierazpena lortzeko lankidetzaren ondare gisa; Arabako ardoen eta ardo-sagardoaren salmentarako Arabako ardoen eta ardo-sagardoaren merkatuetan posizionatzea; Arabako mahastizaintzako ustategietarako, upategi txikiak lortzeko eta sagardotegietarako minimis laguntzak; Arabako Errioxako ardoak, Arabako txakolina, ostalaritzaren kudeaketa eta mahastizaintzako eta ardogintzako esperientziak saltzeko marketplace plataforma; Arabako Errioxako upategi txikien banaketa logistikorako laguntza; mahasti zaharra mantentzea; mahasti markagarriak aitortzea eta babestea; mahastizaintzako erregistroaren digitalizazioa, eta abar.

-Ureztaketak handitzea, hobetzea eta modernizatzea. Lur ureztatuak modernizatzea eta handitzea bultzatzeko eta proiektuan dauden lur ureztatuen obrak hasteko jardura-ildoak. Eusko Jaurlaritzarekin batera ureztaketak eraikitzeak erakunde arteko plan bat barne hartzen du, bai eta ponpaketak, ureztatzaileak eta ihesak egokitzeko laguntzen mantentzea ere. Gainera, ureztatzaileen komunitateen kudeaketa berran-

tolatu eta aldatuko da, baterako jardueren ondoriozko sinergiak lortzeko: tarifak, urrez-tapen-egutegiak, baterako kontratazioak, etab. Proiektu zehatz hauek nabarmentzen dira: Arabako urreztapenen hobekuntza eta modernizazioa; Irrigal circulara; Irrigara-ba ekolife; eta urreztatze-laborantza berriak ezartzen laguntzea.

•Fiskalitatea

-Arabako landa-etxebizitzarako pizgarri fiskalak. Arabak araubide berezia du PFEZn kenkari espezifikoak egiten den kasuetarako, 4.000 biztanletik beherako udalerrietan ohiko bizilekua duten etxebizitzak alokatzeko ordainketetarako. Araubide horri esker, % 18ko kenketa orokorra % 20ra igo daiteke 4.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako udalerri batean ohiko bizilekua finkatzen duten zergadunentzat, eta % 25era irits daiteke 4.000 biztanle baino gutxiagoko guneeetan gazteek erositako etxebizitzetarako. Neurri horren helburua da kolektibo hori gure lurraldeko eremu jendetsuenetara erakartzea, urteko 2.346 euroko mugarekin.

-Fiskalitate Berdea. Landa-garapenarekin lotutako PFEZren gaineko hiru neurri barne hartzen ditu: kooperatibei ohiko etxebizitzari energia elektrikoa hornitzeko eguzki-energia fotovoltaikoa sortzeko instalazioak erosteko ekarpenagatik kenkaria, ohiko bizilekua 4.000 biztanle baino gutxiagoko udalerri batean duten zergadunek aplikatu beharrekoa; modu jasangarrian kudeatutako baso-finken ustiatzei diru-laguntzak emateko salbuespena; baso-ustiapen jasangarriko jardueretarako errendimendu garbiaren % 10eko murrizketa orokorra.

•Bideak eta mugikortasuna

-Landa-lotura. Arabako errepideen plan integralean oinarrituta, Arabako mugikortasuna errepide-sareari arreta emateko diseinatu zen, Euskadiko eta Europako gainerako lurraldeetatik mesetara sartzeko funtsezko lurralde batean. Hala ere, azkenaldiko aha-leginetako asko bigarren eta hirugarren mailako errepide-azpiegitura bat ehuntzera bideratu dira, herrigune guztietara iristeko bide seguru eta eraginkorrak erabiliz, ingurumena, zeharbide eta hiriguneetako segurtasuna eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren beharrak uztartuz. Era berean, Euskadiko Garraio Jasangarriaren Gida Plana 2020 delakoaren arabera, hobekuntzak egin dira lurraldeko garraio publikoaren sarean, banaketa jasangarriago baten bidez, eta ibilgailu pribatuaren erabilerak pisu txikiagoa izan du lurraldearen irisgarritasuna hobetzearekin batera, lurraldeko alde desberdinen arteko joan-etorrien denbora murriztuz, batez ere garraio publikoan.

-Landa-garraioa. Azken urteotan garraio publikoaren eskaintza asko optimizatu da. Landa-garraio publikoaren erabilerak nabarmen egin du gora; izan ere, "Eskarira hurbildu dira" (edo autobus geltokietara edo bestelako premietara hurbiltzeko zerbitzu espezifikoak), linea bakoitzeko zerbitzuen kopurua handitu da, eta kalitatezko garraio publikoaren finantzaketa hobetu egin da.

•Zerbitzu publikoak, despopulazioa eta lurralde-oreka

-Arabako administrazio-egoera. Toki-erakundeei laguntzea. 333 administrazio-batzarrak eta 7 kuadrillak foru-arauaren arabera eskumen propioak dituzten toki-erakundeak dira, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko Legean jasota daude. Foru Aldundiak eskumena du beren eskumenak kudeatzen laguntzeko, dagozkien toki-finantzaketa banatzeko eta indarrean dagoen legeriak arlo ekonomikoan ezarritako lege-kontrola egiteko.

Hala ere, Aldundiak duela 40 urte baino gehiagotik ditu laguntza bereziko programak (Foru-planaren programak eta obra txikiak), tokiko erakundeei aukera ematen dietenak beren eskumeneko azpiegiturak eraikitzeko eta mantentzeko, ur-hornidurarako, saneamendu-sareetarako, argiteria publikorako... Emandako diru-laguntzari esker,

norgehiagoka-eskema batean, herriek beren biztanleei bizi-kalitate handiko bizi-garapena ziurtatzeko behar dituzten zerbitzuak eduki ahal izan dituzte. Programa horiek gabe ezinezkoa izango litzateke Arabako herri gehienei eustea, orain ezagutzen ditugun moduan.

-Larrialdi-zerbitzuak. Foru Aldundiari dagokio suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuen eskumena, bai eta Arabako Suhiltzaile Erakunde Autonomoa eta Foru Suhiltzaileak sortzea ere, Aiarako parkearen eta UCElen proiektuan oinarrituta jaio baita. Bira erabatekoa izan da, 24 orduko zerbitzua eskaini baitu lurralde osoan, eta Iruña Okako Parke Zentrala ireki baitu, 20 minutu baino gutxiagoko esku-hartzearekin.

-Mendialdea Biziberritzen plan pilotua. Planak berariazko 11 jarduera biltzen ditu Mendialdeko Kuadrillan, lurraldeko desoreka demografikoek gehien eragindako jardueretako bat. Udalek, Kuadrillak eta Foru Aldundiak gauzatu dituzte jarduera horiek, eta eskualdearen garapen ekonomikoa eta Arabako Mendialdean bizi diren eta bizi nahi duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea dute helburu nagusi. Gauzatutako planak erabat berresten du administrazioen arteko lankidetzaren, arrisku demografiko egoerei erantzun instituzionala emateko gaitasuna areagotzen duen gobernantza-modu gisa.

-Laia Eskola. Arabako Foru Aldundiak, Arabako landa-garapenaren premia gisa, landa-eremuan emakumeak ahalduntzeko prozesuak sortzea planteatu zuen. Horregatik jaio zen Laia Eskola. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren (2016-2020) funtsezko proiektua da. Partaidetza soziopolitikoa indartuko duten tresna eta dinamiken bidez garatzen du bere lana, eta, aldi berean, berdintasunaren alde lan egiten du, oro har, emakumeekin eta gizonekin. Proiektu horren helburua da, gure herriak bezalaxe, oinarri eta oztopo guztiak kentzea gizarte justu, diskriminaziorik gabe eta berdintasunezko gizarte bat lortzeko. Laia Eskola tokiko kuadrilla eta erakundeekin, gizarte-erakundeekin, mugimendu feministaren, emakumeen kolektibo eta elkarteekin eta Arabako landa-munduko beste eragile batzuen konpromisoari eta inplikazioari esker da posible.

3. Nazioarteko esperientzien erreferentziak

Gai demografiko konplexu bat ebaluatzean eta hartatik ondorioak ateratzean, komeni da beste herrialde batzuetako erreferentziekin lotzea. Logikoa denez, herrialde batzuen eta besteen arteko mota guztietako desberdintasunak gaingitu behar dira, baina, hala eta guztiz ere, beste testuinguru batzuetatik ikasitako irakaspenek gure errealitateak eskaintzen digun ikuspegia osa dezakete.

Dokumentuaren zati honetan, gure inguruko herrialde erreferenteetan demografiaren arloan egindako jardura nagusien deskribapen labur eta ez-zehatz bat jaso da.

3.1. Errealitate demografikoa EBko testuinguruan kokatzeko zenbait datu

2019an, EB-27ko batez besteko gazteek ez zuten familiaren etxea utzi 27,1 urtera arte, gizonak 25,2 urtera arte eta emakumeek¹¹ 26,2 urtera arte, batez beste.

Batez besteko hori aldatu egiten da estatu kideen artean. Kroaziak, Eslovakiak, Italiak eta Bulgariak izan zituzten batez besteko adinik aurreratuenak, guztiak 30 urtetik gorakoak. Aldiz, Suediak, Luxenburgok, Danimarkak eta Finlandiak 22 urte baino gutxiago zituzten.

Batez besteko adin txikiena Suedian izan zen (17,8) eta handiena Kroazian (31,8). EBtik kanpo herrialdeak kontuan hartuta, adinik handiena Montenegron izan zen, 33,1 urte batez beste.

Iparraldeko eta mendebaldeko herrialde gehienetan, gazteek 20 urterekin utzi zuten etxea batez beste, eta hegoaldeko eta ekialdeko estatuetan, berriz, 30 urte bitartean. Aipatzekoa da Luxenburgo eta Eslovakia oso desberdinak direla inguruko herrialdeekin alderatuta.

Herrialdeak sei taldetan bil daitezke.

- Lehenengoan, Danimarkak, Estoniak, Finlandiak, Luxenburgok eta Suediak osatuta, gazteek batez beste 24 urtetik behera utzi zuten beren familia-etxea.

- Bosgarren taldean, Bulgaria, Eslovakia, Espainia, Italia, Malta eta Serbia sartzen dira, 30 edo 31 urteko batez bestekoan.

- Seigarren eta azken taldea Kroazia, Montenegro eta Mazedonia Iparraldeak osatzen dute, eta batez besteko adina 32 urte edo gehiagokoa da.

Euskadin, 2019an, Gazteen¹² Euskal Behatokiaren arabera, emantzipatzeko batez besteko adina 30,2 urte zen, EBko batez bestekoa baino lau urte gehiago.

Bestalde, 2013 eta 2018 artean, EBko emakumeen batez besteko adinak gora egin du pixkanaka, 28,8 urtetik 29,3 urtera,¹³ hasieran adierazi dugun bezala. Aldaketarik handiena Estonian gertatu zen; bertan, batez besteko adina 1,2 urte igo zen, 26,5 urtetik 27,7 urtera; ondoren Letonia eta Lituania datoz (biak 1,1 urte). Aldi berean, aldaketa gutxi egon ziren Eslovakian eta Suedian (biak 0,2 urte), Txekian eta Eslovenian (biak 0,3 urte).

2018an, lehen seme-alaba jaiotzean emakumeen batez besteko adinik handiena zuten estatu kideak Italia (31,2 urte), Espainia (31,0 urte), Luxenburgo (30,9 urte), Irlanda (30,5 urte) eta Grezia (30,4 urte) izan ziren.

Aldiz, bi estatu kidetan, emakumeek 27,0 urte baino gutxiago izan zuten lehen seme-alaba: Bulgarian (26,2 urte) eta Errumanian (26,7 urte).

Euskadin, batez besteko adina 31,9 urtekoa izan zen 2019an.

¹¹ Iturria: https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Being_young_in_Europe_today_-_family_and_society

¹² Iturria: https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/emantzipazioa_19/es_def/adjuntos/Informe_ENDV_Behatoki_es.pdf

¹³ Iturria: <https://ec.europa.eu/eurostat/web/products-eurostat-news/-/DDN-20200515-2#:~:text=The%20mean%20age%20of%20women,period%2C%20though%20to%20varying%20degrees>

3.2. Familientzakogizarte-gastua, guztizkogizarte-gastuaren eta BPGaren ehunekoan

EB-28ko herrialdeetan, familiei eta seme-alabei bideratutako gizarte-gastua, 2017an, administrazio publikoen guztizko gastuaren % 3,8 izan zen batez beste, edo % 2,3 BPGari¹⁴ dagokionez.

Administrazio publikoen guztizko gastuaren ehunekoari dagokionez, EBko herrialdeen arteko aldeak nabarmenak dira, % 8tik %2ra bitarteko zifrekin beheko muturrean.

Buru Luxenburgo (% 8,7) eta Danimarka (% 8,6) dituzte, eta ondoren Zipre (% 7,8).

Bulgariak, Poloniak eta Estoniak % 6 gainditzen dute; Finlandiak, Irlandak eta Suediak, berriz, % 5 inguruko gastua dute. Austria, Hungaria, Eslovenia, Belgika eta Frantzia % 4tik gora daude. Europako batez bestekoa (% 3,8) gainditzen duten herrialdeen artean ere ageri da Kroazia.

Herrialdeen artean Alemania eta Errumania daude, batez bestekoaren azpitik. Herbehereek, Italiak eta Lituaniak % 3,2 partekatzen dute. Erresuma Batua % 3,1era iritsi da. Kopurua dagoeneko % 2,4ra jaisten da Portugalen.

Espainia azkenurreko postuan dago Europako sailkapenean. Guztizko gastu publikoaren % 1,7 soilik bideratzen da familiei eta seme-alabei laguntzera, EBko batez bestekoaren erdia baino gutxiago. Atzetik Grezia dator, % 1,4rekin.

Euskadin, familia/seme-alaben gastua, gizarte-prestazioetako gastuarekiko, % 3,5 ingurukoa da, batez bestekoa¹⁵ baino apur bat txikiagoa.

Familiei bideratutako gizarte-gastuaren ehunekoari dagokionez, 2015ean ELGAko herrialdeen batez besteko gastua % 2 zen, eta Espainiakoa, berriz, % 1,2.

Euskadik 2019an izango duen gastuaren ehunekoa BPGaren¹⁶ % 0,85 izango da; Suedian, % 3,6; Frantzian, % 2,8; eta Alemanian, % 2,3.

¹⁴ Iturria: <https://www.ieemadrid.es>; Eurostat.

¹⁵ Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua.

¹⁶ Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua.

3.3. Familia-bizitza garatzen laguntzeko jarduera nagusiak

Herrialdea	Amatasun-baimena	Aitatasun-baimena	Gizarte-onurak
Frantzia ¹⁷	16 aste. Soldataren % 100.	11 egun. Soldataren % 100.	Hileko ordainketa 2. seme edo alabatik aurrera eta 20 urtetik beherako seme-alaba guztien arabera. Jaiotzean ordaintzea. Errentaren mende dauden edo ez dauden familia-osagarriak. Zergak % 50 murriztea hazkuntzarekin lotutako gastuetan.
Suedia ¹⁸	480 egun (16 hilabete) bikote bakoitzeko. Ez dira iraungitzen haurrak 8 urte izan arte. 90 egun besterenezinak guraso bakoitzarentzat. Soldataren % 80, azken 90 egunetan izan ezik, non tarifa finkoa kobratzen den.		16 urtetik beherako seme edo alaba bakoitzeko hileko ordainketa. Aparteko seme-alaba bakoitzeko hileko ordainketa gehigarria. Haur eskolen/eskolen gastuak, seme edo alaba bakoitzeko murrizten den gehienekora mugatuta; laugarrenetik aurrera ez da ordaintzen.
Alemania ¹⁹	Emakumeak haurdunaldi osoan eta erditu ondorengo lehen lau hilabeteetan bere lanpostuari eusteko eskubidea du. Gainera, langileak soldata ia oso-rik mantenduko du lan egiteari uzten dionean (oro har, erditu baino sei aste lehenago) eta erditu arte. Enpresak nahitaez mantendu behar die lanpostua gurasoei jaiotzaren ondorengo lehen hamabi hilabeteetan, aitatasunagatiko edo amatasunagatiko bajaran dauden bitartean. Aita eta ama hamabi hilabete horietan bana daitezke, nahi duten moduan.		Gurasoek estatuko laguntzak dituzte: 300 eta 1.800 euro artean hilean, seme-alaba jaio aurreko urtean gurasoen diru-sarreraren batez bestekoaren arabera, eta 184 euro finko seme-alaba bakoitzeko (25 urte bete arte).

¹⁷ Iturria: <https://www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/F2550>

¹⁸ Iturria: <https://www.informationsverige.se/es/mer-om-sverige/>

¹⁹ Iturria: <http://www.ipfe.org/>

3.4. Bikote gazteek etxebizitza eskuratzeko jarduketa nagusiak

Herrialdea	Gazteen alokairurako laguntza
Frantzia	·Caisse d 'Allocations Familiales (CAF) elkarteak etxebizitzarekin metatu ezin daitezkeen hiru laguntza ditu: ·L 'Aide Personnalisée au Logement (APL). Etxebizitza sozialetan alokairua duten maizterrei zuzendua. ·L 'Allocation de Logement Familiale (ALF). Beren kargura pertsonak dituzten maizterrei zuzendua (adingabeak, mendeko pertsonak, etab.). ·L 'Allocation de Logement Sociale (ALS). Ikasleek gehien eskatzen duten laguntza. Azken hori honako hauen arabera ematen da: urteko diru-sarrerak, etxebizitza dagoen zonakoak, altzariz hornituta dagoen ala ez, adina, ardurapean pertsonak dituen, bakarrik edo lagunduta bizi den, eta okupazioa. Adibidez, 24 urteko pertsona batek, ikaslea izanik, bakarrik bizi bada Parisko apartamentu batean (700 €-ko errenta du hilean) eta 10.000 €-ko diru-sarrerak baditu, 174,48 €-ko laguntza jasoko du hilean errenta ordaintzeko. ·L'avance Loca-Pass, zero intereseko mailegua da, 30 urtetik beherako gazteen-tzat, eta jabeak alokairua egiterakoan eskatzen duen fidantza osorik edo zati batean estaltzen du. Ematen den gehieneko zenbatekoa 1.200 €-koa da, gordailua eta errenta edozein direla ere, eta 25 hilabetez itzuli behar da, interesik gabe. Action Logement erakundeak kudeatzen du. ·Caution Locative Étudiante (CLÉ) edo abalik gabeko ikasleentzako alokairu-gordailuari esker, Frantziako abalik gabeko ikasleek errazago eskura dezakete alokairuko etxebizitza. Estatuko laguntza horiez gain, udalerriek emandako laguntzak ere badaude.
Suedia	29 urtetik beherakoentzat. Laguntza faktore hauen arabera da: diru-sarrerak, bakarrik edo norbaitekin bizi den, inoren laguntza behar duten pertsonak dituen, bizi den hiriko eremua eta apartamentuaren m² mailak.

3.5. Hainbat herrialdetan berriki hartutako neurriak

Arestian aipatutakoez gain, gure inguruko hainbat herrialdetan berriki hartutako²⁰ neurri batzuk nabarmendu behar dira. Arazo demografikoaren dimentsioa familientzako laguntzak bikoizten ari da, bai eta gazteenen emantzipazio-prozesuetarako laguntzak ere, Alemaniakoak kasu.

Alemania	·Gazte Estrategia: gazteentzako garrantzitsuak diren bederatzi ekintza-eremu aztertzen ditu, zer arlotan jardun behar den iradokitzen du, eta ekin beharreko neurri posibleak barne hartzen ditu.
Txekia	·Guraso-prestazioa handitzea.
Kroazia	·Guraso-bajagatiko kalte-ordaina handitzea.
Danimarka	·Guraso-prestazioa handitzea: familia behartsuenentzako seme-alabengatiko subsidio berri bat barne hartzen du, etxeko indarkeria jasaten duten haurrei laguntzeko zerbitzuetarako finantzaketa eta desgaitasuna duten gazteei heldutasunera arte laguntzeko finantzaketa.
Eslovenia	·Lizentziak gehitzea eta mozkin-sistemak.
Finlandia	·Seme edo alaba bakoitzeko prestazio batzuen igoera: hileko igoera txiki batzuk barne hartzen ditu aitatasunagatiko prestazioan, seme-alaba bat baino gehiago dituzten familientzako eta guraso bakarra duten familientzako seme-alabengatiko prestazioetan, eta mantenu-pentsioan. ·Lehen haurtzaroko hezkuntzan eta zaintzan klase-taldeen tamaina murrizteko proposamena.
Irlanda	·Haurrak zaintzeko plaza gehiago finantzatzea.
Lituania	·Seme-alabagatiko prestazioa handitzea.
Erresuma Batua	·Adopzio-familiei laguntzeko funts gehiago.
Italia	·Urtero 175 euroko laguntza unibertsala 21 urtera arteko seme-alaba bakoitzeko, familiaren egoera ekonomikoaren arabera.

Horrez gain, aurreko neurriak nabarmendu behar dira, hala nola ia herrialde guztietan familia ugariei finantza-laguntza emateko planak; Poloniako “500+” ekimena, bigarren eta ondorengo seme edo alaba bakoitzeko hileko laguntzak emateko; eta Italian hiru seme-alaba baino gehiago dituzten familiei lur-sailak hornitzea.

Pobreziaren aurkako ekimenen esparruan, honako hauek nabarmentzen dira: pobreziaren aurkako Frantziako plan integrala, haurrak eta gazteak ardatz dituen; Irlandan gobernu osoaren estrategia bat aplikatzea haurren pobreziari aurre egiteko; eta Danimarkako “1.000 egun” programa, 0 eta 3 urte bitarteko haurren hezkuntza eta zaintza, familia eta osasuna babesteko hainbat neurritarako funtsak emateko.

Azkenik, berdintasun-politikei dagokienez, 2018an, Alemanian amatasuna babesteko legedia zabaldu egin zen ikasleak, emakumeak borondatezko zerbitzu nazionalen eta emakumeak garapenerako lankidetzaz-zerbitzuan sartzeko.

Migrazioen eta itzulera-programen eremuan, Eskualdeetako Lantaldearen 2020ko otsailko zerebro-ihesari buruzko irizpenak planteatzen du, besteak beste, tokiko, eskualdeko,

²⁰ Iturria: the European Platform for Investing in Children (EPIC) December 2019 developments in child and family policy in EU member states. <https://ec.europa.eu/social/main.jsp?CatId=89&furtherNews=yes&newsId=9526&langId=en>

nazioko eta EBko agintariak emigrazioa lehengoratzeko eta langileak erakartzeko ikuspegi funtzionaletan zentratu behar dutela.²¹

Ikuspegi horien artean daude ezagutzaren ekonomia sortzea, eskualdeen erakargarritasuna hobetzea, diasporaren eta hiri-gobernantzan ikuspegi funtzionala aplikatzearen arteko estrategiak garatzea.

Europako Batzordeak 2021eko martxoaren 24an onartu zuen Haurren Eskubideei buruzko Europar Batasunaren Estrategia eta Europako Haurren Bermea ezartzeko Gomendioa. Estrategia horren arabera, estatu kideek gutxienez Europako Gizarte Funtzen (FSE+) % 5 bideratu beharko dute haurren pobrezia desagerraraztera. Euskadiren kasuan, 2022an Haurrak Bermatzeko Estrategia landuko da.

Ikuspegi horien artean daude ezagutzaren ekonomia sortzea, eskualdeen erakargarritasuna hobetzea, diasporaren arteko estrategiak garatzea eta hiri-gobernantzan ikuspegi funtzionala aplikatzea.

Azkenik, landa-ingurunearen zahartzeari eta despopulazioari dagokienez, *Highlands and Islands Enterprise (HIE)*²² ekimena nabarmendu behar da. Ekimen horrek Eskoziako goi-lurretako eta uharteetako despopulazioa geldiaraztea eta lehengoratzeko lortu du.

Programak eragin nabarmena izan du eskualdean. Herrialdeko gizarte-enpresen % 22 hartzen du, baina Eskoziako biztanleriaren % 85 baino ez da. Gainera, enpresen % 60 emakumeak dira. Era berean, Highlands and Islands Unibertsitateak 2002tik 2007ra bitarte eskualdea uzten zuten gazteen ehunekoa % 30 murriztea lortu zuen. Unibertsitatearen arrakasta hezkuntza-eskaintza lurraldearen aukeretara egokitzean oinarritzen da.

3.6. Emaizariak onenak dituzten bi herrialde

Beherakada demografikoari emandako erantzunean emaitzarik onenak Frantziak eta Suediak izan dituzte. Modu esanguratsuan inbertitu dute seme-alaben hazkuntzari eta gazteen emantzipazioari laguntzeko politiketan, eta eragin positiboa izan dute ugalkortasun-tasaren bilakaeran.

Frantzia eta jaiotza-tasari dagokionez Europako rankingean buru diren herrialdeen artean, honako neurri hauek nabarmentzen dira: bikote gazteak alokairuan hartzea, alokairu sozialeko eta gazteen enplegararritasuneko plan baten bidez, eta familiei laguntza ekonomikoa ematea haurtzaro osoan zehar.

Haurrak dituzten familientzako laguntza luzeak sustatzea, ama langileen kotizazioak jaistea, biztanleriaren mentalitatea aldatzeko kanpainak egitea, etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea eta seme-alabak dituzten bikoteak adostutako politiken bidez enplegatzea izan ziren plan estrategiko baten zenbait emaitza.

Suedian, politika demografikoaren ardatzetako batzuk honako hauek dira: familia-kontziliazioa, guraso-baimen zabalak eta jaiotza-tasarako eta hazkuntzarako laguntza handiak. Herrialde nordikoan, seme-alabak dituzten familiek gurasoen sorospena, mantenu-laguntza eta Suediako Gizarte Aseguruaren Agentziaren sorospena dute eskura.

Aseguru horri esker, lanean ari diren gurasoak bajaran egon daitezke semea edo alaba zaintzeko. Era berean, semea edo alaba gaixorik badago eta ezin bada haurreskolara edo eskolara joan, aitak edo amak, lan egiten badu, gurasoen sorospena ere jaso dezake.

Horrez gain, zortzi urtetik beherako edo lehen hezkuntzako lehen maila amaitu ez duen seme edo alaba batek lanaldia murrizteko eskubidea du. Bestalde, bigarren hezkuntza ikasten duten 16 eta 20 urte bitarteko gazteek ikasketetarako diru-laguntza jasotzen dute.

21 Iturria: <https://cor.europa.eu/EN/our-work/Pages/OpinionTimeline.aspx?OpId=CDR-4645-2019>

22 Iturria: <https://www.hie.co.uk/>

4. Ondorioak

Puntu honetan, egindakoaren balantzetik eta azterketa-eredu gisa aztertu ditugun nazioarteko erreferentzietatik atera ditugun ondorioetako batzuk laburbildu dira. Horiek guztiak Estrategiaren dokumentu operatiboan jasoko dira.

4.1. Egindakoaren balantzea

I. Euskal instituzioek eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak erronka demografikoaren arloan egiten dituzten jarduerak diagnostiko egokietan oinarritzen dira, kontzeptualki ondo orientatuta daude eta erronka horri erantzun integrala emateko jardun behar den eremuak hartzen dituzte barnean, batez ere gazteen emantzipazioa eta familia berrien eraketa, baina baita gizartearen zahartzeari eta etorkinen gizarteratzeari erantzuteko beste batzuk ere.

II. Sailen politika askok erronka demografikoari heltzen laguntzen dute. Enpleguko, etxebizitzako, hezkuntzako, osasuneko edo gizarte-zerbitzueta politika sektorialak; biztanleria-sektore edo -taldeetan zentratutako politikak, hala nola gazteak, haurrak eta familiak, migratzaileak eta asilo-eskatzaileak; eta zeharkako politikak, hala nola berdintasunekoak.

Horiek guztiak estrategia integratu eta koherente batean egituratu eta optimizatu behar dira, jarduera-sorta hori bateratuko duena eta demografiaren gaiari modu autonomoan helduko diona, sail arteko eta erakunde arteko zentzu- eta ikuspegi-batasunarekin.

III. Kontuan izan behar da biztanleriaren zahartze-joerak bere horretan jarraitzen duela, gazteen batez besteko emantzipazio-adinean ez dela aurrerapen nabarmenik gertatzen, eta jaiotza-tasetan ere ez dela aldaketa nabarmenik ikusten, familiek nahi duten seme-alaben kopurua eta nahi dutenean izan dezaten laguntzeko irizpidearen ildotik. Gainera, ziurrenik pandemiak eragin negatiboa izango du epe laburrean eta ertainean, bai emantzipazioan, bai jaiotza-tasan.

Testuinguru horretan, garrantzi handiko balio erantsia hartzen du gazteen emantzipazioaren batez besteko adina murriztera, familia berriak eratzea bultzatzera eta jaiotza-tasak handitzen laguntzera bideratutako eragin-plan bat duen estrategia bat definitzeak.

Helburuek xede-talde jakin batzuen gaineko neurri espezifikoak eta ekintza positiboko neurriak orientatu behar dituzte, helburu estrategiko horiek lortzeko, hargatik eragotzi gabe lehentasuneko beste alderdi batzuei heltzea estrategia horren esparruan, epe ertainean eta luzean. Adibidez, zahartzeari eta autonomiaren sustapenari dagokienez, 30eko hamarkadaren muga, edo migratzaileen inklusioari eta landa-eremuaren balioa handitzeari dagokienez. Nolanahi ere, gizarteak gaztetzeko eta demografia-piramidea inbertitzeko, ezinbestekoa da gazteen emantzipazioari eta jaiotza-tasari buruzko datuak aldatzea.

4.2. Nazioarteko erreferentzia nagusiei dagokienez

I. Nazioarteko erakunde guztiek gomendatzen dute lehentasun handiena ematea demografiaren beherakadari eta biztanleriaren zahartzeari. Politika publikoen ahaleginak *makrojoera* hori leheneratzera bideratzea proposatu dute, nahiz eta deialdi horrekin batera ez dagoen argi eta garbi zehaztutako politika-ildorik. Ekimen horiek aztertzeko eta adosteko gonbidapen orokor baten barruan kokatzen da, eta ekimen horien eraginkortasuna agerian geratu behar da oraindik. Horrek guztiak argi eta garbi aitortzen du zeregin honen konplexutasuna.

II. Aurreko oharra ez du eragotzi behar argi adieraztea Euskadiko datuek balantze demografiko txarrean duten Europar Batasuneko herrialdeen artean kokatzen gaituztela,

eta, beraz, lehen mailako premia eta erronka sozial baten aurrean gaudela. Horri gehitu behar zaio bai Espainiako estatuan bai Euskadin Ekonomi Lankidetzaz eta Garapenerako Antolakundearen batez bestekoaren azpitik gaudela familian inbertitzeko BPGaren ehunekoari dagokionez.

III. Konparazioan, balantze onenak eskaintzen dituzten herrialdeak bereizten dira gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzeko baliabide gehiago erabiltzeagatik, askotariko neurriekin, eta familiei zuzeneko laguntza ekonomiko handiagoak eta luzeagoak emateagatik seme edo alaba bakoitzeko, uztartze-neurriak sustatzeaz eta migrazioaren etorrera eta gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeaz gain, eta, bestalde, zahartze aktiborako eta osasungarriarako politikak sustatzeagatik eta adinekoen autonomia bultzatzeagatik, edo landa-ingurunea indartzeagatik.

5. Erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategia baterako gakoak

5.1. Oinarri etikoak

Jarduteko edo esku hartzeko plan orok hura mugitzen duen *espirituari* edo *filosofiari* buruz hausnartzea eskatzen du. Zeregin konplexuari aurre egiteko behar dugun jarrerari buruzko alde aurreko hausnarketa partekatzea da haren funtsean dauden oinarriak identifikatzea, eta, kasu honetan, demografiaren moduko erronka bat da.

Atal honetan aurkezten diren oinarriek lotura dute 2030 Agendaren oinarriekin, eta une honetan, halaber, *Covid inpaktu* izenarekin dei daitekeena aztertze gakoekin lotzen dira. Horrek guztiak trantsizio sozial sakoneko agertokia eratzen du, eta, horretarako, ezinbestekoa da oinarri etikoak finkatzea.

5.1.1. Printzipioak

Dena dago aldaketaren mende. Hala ere, planteatu behar da ea oinarri etikoak aldatu behar diren garai bakoitzean edo edozein kontingentzia edo krisiren aurrean, edo, aitzitik, ea badagoen antzina-antzinateko jakinduriaren oinarri batzuk, berrikuntzaren eta gurekin batera datozen gizarte-erlaketak berrien erantzunaren oinarri izaten jarrai dezaketenak.

Estrategia horrek hartzen duen hipotesia da badirela oinarri unibertsal batzuk, ez kointzuralak, krisiaren ondoren bizirik irauten dutenak, eta, orain ere, baliagarriagoak izan daitezkeenak larritasun garaietan.

Umiltasunaren eta mugatu izatearen kontzientziaren printzipioa

Umiltasuna da gure mugak ezagutzea eta ezagutza horren arabera jardutea. Pandemiak agerian utzi du gure hausnartasuna, bai indibidualki, bai kolektiboki. Errealitate demografikoa ere etorkizunerako proiektzioa egiten du. Errealitate demografikoa eta haren konplexutasuna ere gure kalteberatasunaren adierazgarri dira.

Ezin dugu, eta ez dakigu dena. Hala da giza izaera. Gure perspektibak beti dira osatugabeak. Egin beharreko guztia errealitatearen printzipio ukaezin hori onartzetik abiatu behar da. Ikasi, elkarri lagundu eta elkarrekin lan egin.

Aitorpenaren eta balio positibo iraunkorraren kontzientziaren printzipioa

Beti dago eraikuntza-potentziaren faktore edo ikuspegi bat, errealitateari aurre egiteko garrantzi estrategikoa duena. Balio positibo iraunkorra da.

Edozein konponbide-prozesu eraikitzeko, daukagunaren eta positiboa denaren balioespen esplizituan oinarritu behar da. Krisi edo zailtasun bat gainditzea, kasu honetan erronka demografikoa, zailtasunen artean aukerak bilatzean eta bultzatzean datza neurri handi batean. Zerbait onuragarria dela argi esatea da erresilientziarako oxigeno psikologikoa eta komunitarioa.

•Erantzukizunaren eta kontzientzia etiko pertsonalaren printzipioa

Pertsona bakoitzak hauta dezake. Bere egintzen eta ondorioen erantzule da. Zentzu etikoarekin aukeratzeko kontzientzia dugu. Gure erabakiak gara. Errealitate horretaz jabetzeak erantzukizun-printzipioa onartzea dakar. Printzipio horrek interpelazio pertsonalizatua planteatzea dakar: *zer zati dagokit niri?*

Ez da soilik zer eska dezakegun, baizik eta zer eman dezakegun ere, ezinbestekoa den erantzun komunitario baten zati gisa. Kasu hori ere erronka demografikoari aplikatuta. Galdera hau lehen pertsonan planteatzeak eta erantzun etikoa bilatzeak erantzukizunaren printzipioa islatzen du.

•Elkartasunaren eta giza duintasunaren kontzientziaren printzipioa

Giza duintasunak pertsona izatearen zentzua adierazten du, eta giza eskubideen oinarria da. Proiektzio lokala eta unibertsala du. Krisiek desberdintasunak handitzeko joera dute. Giza duintasunaren kontzientziak baldintzak sustatzera bultzatzen du, krisi- edo zailtasun-egoera batetik kohesio eta justizia sozial handiagoarekin ateratzea ahalbidetzeko.

Elkartasun-printzipioak berdintasuna eta egoera ahulenean dauden pertsonen aldeko lana eskatzen ditu. Elkartasunaren eta giza duintasunaren kontzientziaren printzipioa gaur egun, 2022an, munduan eta Euskadin hiru hitzetan adierazten dira: Giza Garapen Jasangarria. Demografiaren gaiari ezin zaio heldu printzipio hori sartu gabe.

5.1.2. Balioak

Gaur egungo testuinguruan, balio positibo ugari eta askotarikoak aipa daitezke. Horregatik, beharrezkoa da irizpide ez-arbitrarioen bidez horiek hautatzea. Bidegurutze horretan egokienak aurkitu eta sustatu nahi dira.

Hemen, proposamen gisa, hiru irizpideri erantzuten dieten lau baliori ematen zaie lehenetasuna: oinarri etikoa duten balioak dira, eta elkarlaneko eta erabilgarritasun handiko kulturaren filosofia indartu dezakete demografiaren moduko erronka bati modu positiboan aurre egiteko.

•Elkarrizketa. Beste jarrera eta proposamen batzuk entzuteko eta kontuan hartzeko aldez aurreko jarrera adierazten du. Elkarrizketa lankidetzan aritu ahal izateko aurrebaldintza gisa eratzen den balio bat da. Elkarrizketa alternatiba lasaia ere bada, presaren edo indarkeriaren aurrean. Elkarrizketa da dogmatismoaren aurkako antidotorik onena.

•Lankidetzaketa. Lankidetzaketa konpromiso bat da, eta bateratze-lana, koordinazioa eta elkarlaneko gobernantza eskatzen ditu. Egungo testuinguruak lankidetzaketa-estrategia eskatzen du (eragile anitzekoa) norabide guztietan. Aliantza-dinamikak eta talde-lana sustatzen ditu. Lankidetzaketa unilateralismoari eta totalitarismoari aurre egiten die.

•Pertseberantzia. Krisi orotatik irteteko, eustean eta irmotasunean oinarritutako prozesuak behar dira. Pertseberantziaren bi osagaiak dira. Erresilientzia eta lankidetzaketa sustatzeko baldintza egokiak sortzen dituzte. Atzera egitearen aurrean, pertseberantziak zorrotasuna eta erantzunkidetasuna behin eta berriz azpimarratzea sustatzen du.

•Proaktibitatea. Bizi garen larrialdi-testuinguru berriak paradigma-aldaketak eskatzen ditu. Lehenengo gaia ez da *arazoa non dagoen eta erruduna nor den*, baizik eta *konponbidea non dagoen, nola eraikitzen dugun guztion artean eta zer ekarpen dagokidan*. Biktimismoaren eta kexaren kulturaren aurrean, proposamen-konpromisoa, eraikitze-konpromisoa eta inplikazioa.

5.2. Premisa estrategikoak

Jarraian azaltzen direnak dira demografiaren gaiari heltzeko eta dokumentu honekin bultzatu nahi den prozesua lantzeko esparru orokorra eratzen duten alderdi estrategikoetako batzuk. Premisa horiek erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren II. Dokumentuan ere jasotzen dira, Jarduera Plana barne hartzen duen dokumentu operatiboan.

5.2.1. Perspektiba integrala, sistemikoa eta progresiboa

Estrategiak 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatutako eraldaketa-ikuspegi sistemikoa eta progresiboa izan behar du. Ikuspegi integral horrek honako politika hauek eskatzen ditu: etxebizitza, enplegua, hezkuntza, soziosanitarioak, osasuna edo migrazioa eta gizarte-prestazioak, gaitasunak garatzeko laguntzak edo laguntza, bai eta hiri- eta landa-dimentsio bikoitza ere, epe labur eta ertaineko ekimenekin eta lau sektore hauen lankidetzarekin: publikoa, enpresa, hirugarren sektorea eta familia, sare komunitarioekin batera.

Begirada horrek bateragarria izan behar du jarduera politikoaren eta instituzionalaren erreforma-bokazioarekin. Epe labur eta ertaineko ondoz ondoko jarduketa-programetan zehaztu behar da, finkatutako helburu orokorrekin bat etorritik eskalatzeko eragin zuzena izan dezaten. Ikuspegi progresibo horren barruan, garrantzi berezia hartzen du lehentasun partekatuen arabera jardunak. Lehentasun horiek trakzio-proiektuetan eta lehen talka-planean islatu behar dira.

5.2.2. Genero-ikuspegia

Estrategia eta jarduera guztiek genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersektionalaren berri izan behar dute, eta arreta berezia jarri behar dute herritarren eskubideak benetan baliatzean eta zailtasun, bazterkeria edo diskriminazio anizkoitzeko egoeretan.

Helburua da baldintzak sortzea, pertsonak, hala aukeratzen badute, amatasuna/aitatasuna beren bizi-proiektuko beste alderdi batzuekin bateratu ahal izateko eta nahi duten seme-alaba kopurua eduki ahal izateko, nahi dutenean, eta nahi dutena baino kopuru txikiagoa edo nahi dutena ez den une batean edukitzeko baldintzarik edo bultzadarik ez izatea.

5.2.3. Aniztasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspegia

Estrategia familia-egituren, familia-bizitzako ibilbideen eta familia barruko harremanen aldaketa-prozesu sakona onartzean oinarritzen da, eta familia-egitura guztiek babes sozial maila bera izatea bilatzen du. Azken batean, familia-aniztasuna, tratu-berdintasuna eta pertsonen eta familien diskriminaziorik eza aitortu eta babestu behar dute.

5.2.4. Erantzunkidetasunaren ikuspegia

Estrategia honetan jasotako jarduerak kontuan hartu behar dute gizarte-antolaketa erantzukide baterantz aurrera egiteko beharra, eredu bat garatuz, non bi gurasoek neurri berean parte hartzen duten produkzio- edo lan-zereginetan, eta ugalketa- edo zaintza-lanetan, jasotzaile bikoitzaren eta zaintzaile bikoitzaren eredutik abiatuta.

5.2.5. Iraunkortasunaren ikuspegia

Estrategia horren hedapenak, helburuek eta jarduerak kontuan izan behar dute belau-naldien ordezkapena zuzenean lotuta dagoela gizarte baten berrikuntzarekin eta haren iraunkortasunarekin. Desoreka demografikoak eragin zuzena du belau-naldien arteko elkartasun-politiketan eta gizarte-zerbitzu eta -politiketan. Era berean, lan-merkatuko eskulanaren birjarpenean gero eta defizit handiagoa eragiten du. Oreka demografikoaren bilaketa estu lotuta dago iraunkortasunaren irizpide gidariarekin, eta trantsizio sozialaren ardatz nagusietako bat da.

5.2.6. Adinekoen eskubideak, autodeterminazioa eta autonomia bermatzeko ikuspegia

Era berean, adinekoek beren etxean bizitza autonomia izateko bermeak izan behar dituzte, hala nahi izanez gero, beren bizitzako aldi laburrago edo luzeagoetan nahitaez beharko dituzten zainketak alde batera utzi gabe, autodeterminatuz.

2021ean 18.000 pertsona zeuden egoitzetan, baina milioi erdi baino gehiago ziren pentsiodunak; beraz, gehienak beren etxeetan bizi dira. Eta, aldi berean, gehien hazi diren etxe unitateak kide bakarrekoak (guztizkoaren heren bat inguru) eta bi pertsonakoak (aurrekoekin batera, etxe unitate guztien bi heren) dira.

Horrek esan nahi du beharrezkoa dela komunitatean arreta indartzea, lehen eta bigarren mailako arreta, zaintza instituzionala indartuz eta familiaren pisua modulatzuz, zaintza-eredua eraldatuz. Bestalde, adineko autonomoekin, gehienak baitira, politikak eta ekimenak bultzatu behar dira, eta adineko pertsonen autonomia, bizitza osoa eta parte-hartze soziala sustatu bizi-ziklo osoan, bizi-itxaropen osasungarria handitzen lagunduz eta politikak, zerbitzuak eta programak adinekoen belaunaldien itxaropenetara, gaitasunetara, interesetara... egokituz.

5.2.7. Gazteen emantzipazio-prozesuaren zentralitate-ikuspegia

Egungo krisi-egoera argien deskribatzen duten faktoreetako bat da gazteek gero eta zailtasun handiagoa dutela beren bizi-proiektua autonomiaz gauzatzeko. Emantzipazio-prozesua, beraz, erronka demografikoari lotutako gazte-politiken bizkarrezurra da, eta, beraz, jatorrizko familia-etxetik benetan ateratzea ahalbidetuko duten emantzipazio-politika espezifikak izan behar dute.

Zeharkako irizpidea baldintza egokiak sustatzea da, gazteek bizi-proiektu autonomo bat aukera faltak eragindako atzerapenik gabe garatu ahal izan dezaten.

5.2.8. Politiken zeharkakotasunaren eta koherentziaren ikuspegia

Zeharkakotasunak berekin dakar politikak artikulatzea *biztanleria-sektoreetan (gazteak, adinekoak, gizonak, emakumeak, migratzaileak...)* eta *jarduera-sektoreetan (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...)* helburu partekatuen inguruan – gizartea gaztetzea, bizi-itxaropena eta desgaitasunik gabeko bizimodua areagotzea...–, helburu horiek lortzeko funtsezko faktoreak *azpimarratuz*, betiere *elkarlaneko gobernantzatik, politiken koherentziatik*, eta sektoreen lankidetzatik (4S) eta hartzaileen parte hartzetik abiatuta.

Horiek guztiak ezinbestekoak dira *trantsizio-politikak* bultzatzeko, sinergiak eta berariazko tresnak behar baitituzte, urgentziazko egoeretan (ez hain luzeak) edo egoera arruntetan (egonkorragoak) erabiltzen ez direnak.

Sinergiak eta lankidetzak publiko-publikoko, publiko-pribatuko eta publiko-sozialeko tresnak, edo mugaz gaindiko lankidetzak, garrantzi handiko, ibilbide luzeko, izaera globaleko eta izaera sistemikoko fenomenoei erantzuteko, hala nola gizarteak gaztetzeari, osasun-krisiaren inpaktu sozial eta ekonomikoari, eraldaketa digitalari edo klima-aldaketari.

5.2.9. Eskubideen ikuspegia eta babes soziala sendotzearen ikuspegia

Eskubideen ikuspegiak garapen sozial eta pertsonalaren osagai bat gehitzen dio erronka demografikoaren kudeaketari, *biztanleriaren piramidearen oreka eta garapen ekonomikoa* bilatuz, babes sozialeko sistemak, gizarte-kohesioa eta gure ongizate-eredu propioa sendotzeko bitarteko gisa.

Erantzukizun publikoa zabalduz, gure ereduaren oinarri komunitarioa galdu gabe, *esku-bideak benetan baliatu eta pertsona guztiek bizitza autonomoko proiektuak hedatu ahal izateko*.

Bizi-proiektuak garatzeko laguntza kolektibo bakoitzari egokitu behar zaio, eta izaera espezializatua eta, azken batean, pertsonalizatua izan behar du, laguntzak konbinatuz. Sektore publikoaren, pribatuaren, sozialaren eta familia-komunitatearen arteko lankidetzari (4S) eta laguntzen konbinazioari (pertsonalizazioa) esker, emaitza hobekak lor daitezke.

5.2.10. Belaunaldi arteko elkartasunaren ikuspegia

Elkartasuna maila pertsonalean, familiarrean, sozialean eta instituzionalean (elkartasun organikoa), behar bezala garatuz pentsio-sistema eta, oro har, babes sozialeko sistemak (Interes Orokorreko Gizarte Zerbitzuak, hezkuntza-, osasun- eta gizarte-sistemak barne). Sistema horiek ezinbestean jasan behar dira eta bateragarriak izan behar dute belaunaldien arteko baliabideen eta aukeren banaketarekin, arreta berezia eskainiz pertsona eta familia gazteei.

6. Orientabide orokorrak

Erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren Dokumentu Operatiboaren edukia honako orientabide orokor hauek ere kontuan hartuta eraikitzen da.

I. Eraldaketa demografikoak kultura-aldaketa sistemikoa eta integrala dakar berekin, eta horrek eragina du ia politika publiko guztietan eta maila guztietan.

Hala eta guztiz ere, progresibotasunaren ikuspegitik eta lehen fase gisa, badirudi beharrezkoa dela eraldaketa-indar bultzatzailea duten proiektuak adostu behar diren jarduketara estrategikoko eremuak identifikatzea. Alde horretatik, badirudi bi direla jardun-eremu estrategikoak, gizartea gaztetzeko eta oreka demografiko berri bat lortzeko: gazteen emantzipazio-prozesuei laguntzea eta familia-proiektuak eratzea.

Modu osagarrian, lehentasunezko jarduera-ardatz gisa, migranteak gizarteratzea, euskal gizartearen egitura demografikoari eragiteko gaitasunarekin. Eta, gaur egungo egitura demografikoak etorkizuneko behar, betebehar eta aukeretan izango duen eraginari aurrea hartu eta heldu nahian, zahartze aktiboa eta osasungarria bermatuko duten politika publikoak bultzatzea, adinekoen autonomia eta bizitza osoa sustatzea, eta zaintza sozial eta sanitarioak, baita landa-balioa handitzea eta lurraldearen oreka demografikoa ere.

II. Ildo horretan, erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategiak inpaktu bikoitzeko irizpide metodologiko bat hartu behar du bere gain: epe laburrean eta ibilbide luzean.

Materiaren konplexutasunak ez du aukerarik ematen bat-bateko efektuen mirari-aukerak aurkezteko. Beharrezkoa da arlo horretako politika publikoak erabaki jasangarri eta, batez ere, iraunkor gisa planteatzea. Horri dagokionez, 2030erako erronka demografikorako euskal estrategiak eragin bikoitzeko irizpide metodologiko bat hartu behar du bere gain bere jarduerak egituratzeko orduan, bere helburua epe laburrean edo ibilbide luzean kartzearen arabera.

·Epe laburrerako eraginaren irizpidea: jarduera berriak bultzatzea. Helburu zehatza eta apala: datozen urteetan joera negatiboan aldaketa eragitea, bai emantzipazio-adinean, bai jaiotza-tasan. Baita berriak eta gehigarriak ere. Jarduketa horiek iraunkorrak eta jasangarriak izan behar dute, baita ibilbide luzean ere.

·Ibilbide luzeko inpaktuaren irizpidea: abian dauden jarduerak indartzea. Erronka demografikoari erantzuteak belaunaldi-erleboboko ziklo baten kudeaketaz hitz egitea esan nahi du. Eraldaketa horrek aldaketa sistemikoa eta kulturala dakar, eta epe ertain eta luzera proiektatu behar da. Begirada luzea eta zabala behar du. Batez ere, dagoneko martxan dauden eta mantentzen, indartzen edo sakontzen diren jarduerekin bat etorriko dira.

III. Estrategiak eta haren ekimenek erreferentzia nagusitzat hartu behar dute gazteek emantzipatzeko, familiak eratzeke, amatasun-adinerako eta seme-alaben kopururako duten nahiaren eta benetan gertatzen denaren arteko aldea.

Azken urteetako inkesta eta azterlan soziologiko guztiek datu-ildoa bera berresten dute: desiraren eta errealtatearen arteko aldea dago. I. dokumentu honen eranskinak Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2022ko udaberrian demografiari buruz egindako azterlanaren datu nagusiak jasotzen ditu.

Euskaldunen ustez, emantzipatzeko batez besteko adin egokiena 25 urte da. Hala ere, euskal gazteen batez besteko emantzipazio-adina 30,2 urtekoa da. Inkestari erantzun diotenen iritziz, 28 urte da lehen seme-alaba izateko adinik egokiena. Hala ere, Euskadiko emakumeek lehen seme-alaba izateko duten batez besteko adina 32,6 da Euskadin. Era berean, batez bestekoaren arabera, seme-alaben kopuru ideala 2,2 da. Euskadiko jaiotza-tasa 1,28 da emakume bakoitzeko.

Ez erakundeek, ez politika publikoek ezin dituzte erabaki pertsonalak, familiakoak edo pribatuak baldintzatu. Hala ere, erabaki horiek baldintzarik ezak eragindako atzerape-nik edo mugarik gabe hartzen lagundu behar dute. Pertsonak autonomia pertsonaleko prozesuari dagokion adinean emantzipatzeko aukera izan behar dute, eta nahi duten seme-alaba kopurua izan behar dute, bai eta nahi dutenean ere.

IV. Azaldutako egoera demografikoa larriagotu egiten da kezka- eta ziurgabetasun-fak-tore berrien ondorioz. COVID-19aren pandemiak edo Ukrainaren inbasioaren inpaktuak zailtasun- eta ziurgabetasun-faktoreak dira, eta errekupeazio demografikoaren ikuspe-giaren aurka jarduten dute.

Helburuak ezartzerakoan eta jarduketa batzuk zehazterakoan kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsuak dira. INEren arabera, 2021eko urtarrilean izandako jaiotzak % 20,9 jaitzi ziren Espainian, aurreko urteko hilabete beraren aldean. 2020ko abenduan, Italiako murrizketa % 21,6koa izan zen. 2021eko urtarrilean, jaiotzak % 13 jaitzi ziren Frantzia.

Euskadin, EUSTATEN arabera, 2021. urte osoa hartuta, jaiotzen behin-behineko kopurua 14.247 izan zen; hau da, % 3,3ko beherakada izan zen 2020. urtearekin alderatuta, urte ho-rretan jaiotzak 14.739 izan baitziren, aurreko urtean baino % 4,4 gutxiago.

Horrek guztiak berresten du estrategia bat eraiki behar dela egungo balantze demo-grafikoa eta haren joerak lehengoratzeko helburuarekin eta jarduketekin. Ildo horretan, beharrezkoa da garrantzi arauemaileko esparru bat artikulatzea, hala badagokio har dai-tezkeen neurriei babes juridikoa emateko. Helburu hori lortzeko, gomendagarria da ikus-pegia demografikoa legeen, erregelamenduen, planen eta inbertsio-programen lanke-tan duen eragina txertatzea.

V. Dokumentu honetan azaldutako guztia gorabehera, eta demografiaren gaiak zalan-tzarik gabe duen garrantzi estrategikoa gorabehera, haren tratamendu integrala ez da lehen lehentasun-lerrora iristen agenda publikoan, Gobernuaren komunikazioan, Lege-biltzarreko eztabaidetan edo komunikabideen arretan, ezta gizarte-kezken artean ere. Ezta Estatuan edo Europan ere.

Zenbait adierazpen, hala nola pentsioen etorkizuna edo duela gutxi zaintzak, nolabaite-ko zentraltasuna hartzen ari dira eztabaida sozialean eta politikoan, baina ez da gauza bera gertatzen erroka demografikoaren funtsezko dimentsioei dagokienez, hala nola gazteen emantzipazioa edo jaiotza-tasa, eta horrek pertsonengan, familietan eta gizar-tean duen eraginari dagokionez, adibidez, gazteen eta migranteen gizarteratzeari, edo babes- eta ongizate-eredua mantentzeko eta eraldatzeko dagokienez.

Estrategia horren prestaketak eta haren akordio-prozesuak eragiten dituen eztabaidek eta erreflexuek defizit hori neurri batean zuzendu dute. Hala ere, beharrezkoa da haus-narketa hori agenda publikoan intentsitate handiagoz sartzea, ikuspegi multidimentsio-nal eta errealista batetik, funtsezko gaiei buruzko adostasun soziala sustatuz, hala nola gazteen aukeren garapena, zeinengan bi krisialdi segidan eragin duten, familien politi-karen bultzada, euskal harrera-eredua, zaintzak, hezkuntza, gizartea eta osasuna, edo lurraldearen garapen orekatua ikuspuntu ekonomikotik, sozialetik eta demografikotik (landa-balioa handitzea).

II.

DOKUMENTU OPERATIBOA

ERRONKA DEMOGRAFIKOA

2030  ERAKO EUSKAL ESTRATEGIA

2022ko ekainaren 21a

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sinergia... Auzolana

Sinergia da sistema baten zatiek, modu isolatuan jardun beharrear, modu itunduan egiten dutenean lor daitekeen balio positibo erantsia.

Definizio horrek bat egiten du Auzolana kontzeptuaren egungo adierarekin: auzokide guztien artean zereginak partekatuz egindako lana.

Aurkibidea

Sarrera.

Lehen zatia. Abiapuntua.

1. Azken urteetako esperientziaren ikaskuntzak.
2. Prospekzio soziologikoko azterlanen ondorio nagusiak.
3. Irizpide gidariak.
4. Esparru operatiboa.

Bigarren zatia. Jarduera-plana.

1. Lehen atala. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako eragin-irizpidearekin.

- 1. jarduera. Ardurapeko seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak handitzea.
- 2. jarduera. Gazteen ekintzailatza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa.
- 3. jarduera. 0-2 urte bitarteko etaparen doakotasuna, Haurreskolak Partzuergoaren bidez.
- 4. jarduera. Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna.

2. Bigarren atala. Ibilbide luzeko inpaktu-irizpidearekin abian dauden jarduerak indartzea.

- I. ardatza: jarduera estrategikoa: gazteen emantzipazioa.
 1. Esparrua.
 2. Emantzipazio-ibilbideei laguntza pertsonalizatua emateko irizpideak eta jarduerak.
 - 5. jarduera. GAZ diseinatzea eta abian jartzea.
 3. Etxebizitzaren arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 6. jarduera. Gaztelagun programa zabaltzea.
 - 7. jarduera. Pilotaje berritzaileak abian jartzea.
 4. Enpleguaren arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 8. jarduera. Gazteen enplegurako talka-plana bultzatzea.
 - 9. jarduera. Txanda-plana diseinatzea.
 - 10. jarduera. Lan Ikuskaritzako kanpainen jarraipena.
 5. Prestakuntzaren eta laneratzearen arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 11. jarduera. Prestakuntza eta, bereziki, Lanbide Heziketa eta Unibertsitate-Heziketa Duala bultzatzea, nagusiki, industria-sektorean emakumeek duten parte-hartzeari erreparatuta.
 - 12. jarduera. Lan-merkatuko beharren diagnostikoa eguneratzea.
 6. Garraio publikoko irizpideak eta jarduerak.
 - 13. jarduera. Tarifak egokitzea.
- II. ardatza: jarduera estrategikoa: familia-proiektuak eraikitzea
 1. Esparrua.
 2. Haur eta familiei laguntzeko irizpideak eta jarduerak.

- 14. jarduera. Haurrak bermatzeko programa bat diseinatzea eta abian jartzea.
- 15. jarduera. Guraso bakarra izateari buruzko txostena egitea.
- 3. Kontziliazioaren arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 16. jarduera. Aitatasun- eta amatasun-baimenen luzapena.
 - 17. jarduera. Adingabeen adina luzatzea adingabeak zaintzeko kontratazioan.
 - 18. jarduera. Ordainsari-berdintasunari buruzko kanpainei eta berdintasun-planei eustea.
- III. ardatza: jarduera estrategikoari buruzkoa: adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea.
 1. Esparrua.
 2. Irizpideak eta jarduerak zahartze osoaren eta osasungarriaren esparruan.
 - 19. jarduera. Adinekoekin euskal estrategia bultzatzea.
 - 20. jarduera. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik indartzea.
 3. Zainketen arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 21. jarduera. Proiektu pilotuak aktibatzea.
 - 22. jarduera. Arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea.
 - 23. jarduera. Belaunaldi-erreiboko zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea.
- IV. ardatza: jarduera estrategikoa: migranteen gizarteratzea.
 1. Esparrua.
 2. Migratzaileak gizarteratzeko irizpideak eta jarduerak.
 - 24. jarduera. Migraziorako Euskal Itun Sozialaren garapena eta urteko ebaluazioa.
 - 25. jarduera. Transferentzia lehenestea asilo-migrazioaren arloan, eta migratzaileak hartzeko eta integratzeko euskal eredua diseinatzea.
 3. Gizarteratzearen eta laneratzearen eta mugikortasunaren arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 26. jarduera. Talentua atxikitze, garatzeko eta erakartzeko programa bat abian jartzea.
 - 27. jarduera. Euskarri Estrategiaren garatzea.

3. Hirugarren atala. Zeharkako jarduera-ildoak.

- 1. ildo, zeharkako jarduera: landa-balioa handitzea.
 1. Esparrua.
 2. Jarduerak.
 - 28. jarduera. Landa Garapeneko Legea onartzea.
 - 29. jarduera. Landa-ingurunearekin lotzeko pizgarriei buruzko azterlan egitea.
- 2. ildo, zeharkako jarduera: prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa
 1. Esparrua.
 2. Jarduerak.
 - 30. jarduera. Urteko prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-plan bat garatzea.
 - 31. jarduera. Aldizkako azterlan prospektiboak egitea.
 - 32. jarduera. Erronka demografikoak enpleguan dituen ondorioen azterketa bultzatzea.
 - 33. jarduera. Baliabideen gida bat egitea eta zabaltzea.
- 3. ildo, zeharkako jarduera: aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa.
 1. Esparrua.
 2. Jarduerak.

- 34. jarduera. Aurrekontuaren isla.
- 35. jarduera. Urteko jarraipen-memoriak egitea.
- 36. jarduera. Ebaluazio-prozesuak bultzatzea.

Eranskina. Erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren aginte-taula integrala.

Sarrera

Egoera demografikoa lehentasunezko kezka da, bai tokiko ikuspegitik, bai ikuspegi globaletik. Nazio Batuen 2030 Agendaren ikuspegi estrategikoaren parte da. Belaunaldien arteko elkartasuna eta lurralde-kohesioa epe ertain eta luzeko eraldaketa-prozesuak dira.

EBk ere azpimarratu du demografia-desoreka gero eta handiagoa dela datozen urteetako makrojoeretako bat. EBko Kontseiluak, *erronka demografikoen aurrean jarraitu beharreko bidea* izeneko dokumentuan, politika demografikoen esparru bat egiteko, mantentzeko eta eguneratzeko eskatu du, gizarte-solaskideen laguntzarekin.

Espainiako Gobernuaren kasuan, *2030erako Estrategia nazionala* dokumentuak erronka demografikoaren aurrean gai hori planteatzen du gizarte- eta lurralde-kohesioari heltzeko eta pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatzeko eskakizun gisa.

Euskadi, Espainiako Estatuarekin eta Italiarekin batera, ugalkortasunari eta jaiotza-tasari buruzko datu baxuenak eskaintzen dituzten Europako herrialdeen artean dago. Paradoxikoa bada ere, 50eko hamarkadaren erdialdetik joan den mendeko 70eko hamarkadara arte erregistratutako eztanda demografikoak, (baby boom moduan ezaguna dena), 2030. urtean gehien haziko den adin-tartea adierazten du. Belaunaldi horretako seme-alabak dira gaur egun emantzipatzeko eta, hala badagokio, nahi duten seme-alaba kopurua nahi dutenean edukitzeko zailtasunak dituztenak.

Euskal erakundeek egindako bidea

Azken urteotan, euskal erakundeek zenbait jarduera gauzatu dituzte, zuzenean edo zeharka, demografiaren errealitatean eragina izan dutenak, politika publiko aitzindarien eta berritzaileen bidez, familiei, kontziliazioari, erantzukidetasunari, enpleguari, etxebizitzari edo gizarte-babesari zuzenduta.

Adibiderik esanguratsuena 2018ko urtarrilean Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta EUDELe sinatutako *Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna* da. Itun hori alde aurretik aho batez onartu zen Familiaren Euskal Kontseiluan. Haur eta familientzako politiken ibilbide-orria da, eta, besteak beste, *Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plan*ean gauzatu zen.

Plan horrek politiken pakete koordinatu bat antolatu zuen bi helbururi erantzuteko: alde batetik, jaiotza-tasa txikiak lehengoratzeari, eta, batez ere, pertsonen familia-proiektua hastea eta nahi adina seme-alaba izatea eragozten duten oztopoen iraunkortasuna; eta, bestetik, desberdintasunaren belaunaldien arteko transmisioa prebenitzea eta seme-alabak dituzten familien pobrezia-egoerak ahalik eta gehien murriztea.

Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren arabera, erronka demografikoa hamar herri-helburuetako bat da. Bere konpromiso espezifikoaren artean, *2030erako euskal estrategia* idaztea eta bultzatzea aurreikusten du arlo horretan, eta Lehendakaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusian uzten du hori egiteko koordinazioa.

Helburu programatiko horrekin bat etorritik, 2020ko urriaren 29an, lege besteko proposamen baten bidez, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari planteatu zion sailen eta erakundearen arteko erronka demografikoari buruzko plan bat egiteko beharra, besteak beste, jaiotza-tasa sustatzeko, lana eta familia uztartzen laguntzeko, zahartze aktiboa bultzatzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko eta landa-eremukopopulazioaren aurka borrokatzeko politika publikoak garatzeko.

Estrategia hori onartzeko prozesua

Bi aurreikuspen horiekin bat etorriz, 2021. urtearen hasieratik, Eusko Jaurlaritzak erronka demografikoari buruzko deliberazio-prozesu bat bultzatu zuen. Lehenengo etapa, ekainera arte, sailen artekoa izan zen, eta bigarrena, 2021eko azarora arte, erakundeartekoa foru aldundiekin. Hamaika hilabete horietan sortutako dokumentazioak lan-dokumentu izaera hartu zuen. Hau da, une horretan oraindik osagarriak izateko irekita daude.

2021eko abenduaren 14an, dokumentazio hori Gobernu Kontseiluetan aurkeztu zen, bai foru aldundietan, bai Eusko Jaurlaritzan, jakinaren gainean egon zedin, eta Eusko Legebiltzarrera eta EUDELera bidali eta jendaurrean jarri zen. Harrezkero, 2022ko martxoaren 31ra arte, ekarpenak jasotzeko aldi bat ireki zen, bai erakundeen aldetik, bai gizarte-eragileen eta herritarren aldetik.

Jasotako ekarpenen artean, nabarmentzekoa da EUDELen Batzorde Exekutiboak martxoaren 10ean erabaki zuela Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren oinarrien proposamen-dokumentua baliozkotzea, berreskuratze demografikoaren bideari ekiteko abiapuntu gisa.

Prozesu horren esparru kronologikoan, Eusko Legebiltzarrak osoko bilkura monografikoa deitu zuen 2022ko maiatzaren 18an, hamarkada batean indarrean egongo den Estrategia Demografikoaren zuzendaritza, lehentasunak eta ekimen garrantzitsuenak legebiltzar-taldearen artean eztabaidatu, partekatu eta zehazteko.

Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen bere asmoa zela Legebiltzarreko eztabaida horretatik sortutako ebazpenak Estrategian sartzea. Azkenik, 74 ebazpen onartu ziren, eta horietako asko oposizioko legebiltzar-taldeen ere aurkeztu edo babestu zituzten.

74 ebazpen horiek heterogeneoak dira edukiari dagokionez. Batzuk printzipio, helburu edo irizpide orokorragoei erantzuten diete, eta beste batzuk, berriz, neurri eta proposamen zehatzagoei eta espezifikoei. Nolanahi ere, horiek guztiak bat datoz Erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategian ezarritako jarduera-esparruarekin, eta guztiak sartu dira azken dokumentu honetan.

Prozesu honen hasieran ezarritako kronogramaren arabera, ekarpenak kontuan hartu eta txertatu ondoren, 2030 Euskal Estrategiak 2022ko ekainean izan beharko luke behin betiko onarpena. Aurreikuspen hori betetz, Gobernu Kontseiluak 2022ko ekainaren 21ean berretsi du estrategia-proposamena. Bi dokumentu bereizitan egituratuta dago: I. Esparru Orokorra eta II. Dokumentu operatiboa.

Lehenengo dokumentuak, alde batetik, Estrategiaren oinarriak jasotzen ditu; eta, bestetik, egindakoaren balantzea eta nazioarteko erreferentziak. Bigarren dokumentuan proiektatutako erabakien oinarri den esparrua deskribatzen du. Bigarren dokumentu honek bi atal ditu: estrategiaren abiapuntuak eta jarduera-plana.

Ondorioztatu behar da, abian jarri aurretik, Estrategia horrek bere aurretiko helburueta-ko bat bete duela. Planaren prestaketa parte-hartzailea izan da, sailen, erakundearen eta gizartearen ikuspegitik. Guztioi, guztion onerako, komeni eta interesatzen zaigu gai honetan adostasun handietan oinarrituta jardutea. Sinergia handia behar da erronka horri aurre egiteko. Jokoan dago Euskadiren proiektzioa datozen hamarkadetan.

Lehen zatia
Abiapuntua

1. Azken urteotako esperientziaren ikaskuntzak

1.1. Nazioarteko lehentasuna

Nazioarteko erakundeek gomendatzen dute lehentasun handiena ematea demografiaren gainbeherari eta biztanleriaren zahartzeari. Balantze onenak eskaintzen dituzten herrialdeak bereizten dira gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzeko baliabide gehiago erabiltzeagatik eta familiei zuzeneko laguntza ekonomiko handiagoak eta luzeagoak emateagatik seme-alaba bakoitzeko.

1.2. Tokiko orientazioa

Euskadin garatutako jarduerak diagnostiko egokietan oinarritzen dira, eta erronka horri erantzun integrala emateko esparru guztiak hartzen dituzte barnean, batez ere gazteen emantzipazioa eta familia berrien eraketa, baina baita gizartearen zahartzeari, etorkinen gizarteratzeari eta gizarte-politika aurreratuen bidezko desberdintasunei erantzuteko beste batzuk ere.

1.3. Joera ezkorra

Hala ere, biztanleriaren zahartze-joerak jarraitzen du, eta ez da aurrerapenik ikusten emantzipatzeko batez besteko adinean. Jaiotza-tasen eta ugalkortasun-tasen beheranzko joerak ere ez du atzera egiten. Datuek balantze demografiko txarrena duten Europar Batasuneko herrialdeen artean kokatzen gaituzte.

1.4. Pandemia eta Ukrainako inbasioa

COVID eragina demografian ere faktore garrantzitsua da Europa osoan. Euskadin, EUSTATEN arabera, jaiotzen kopurua % 5,9 jaitsi zen 2020ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Ukrainaren inbasioak eragindako ziurgabetasun sozioekonomikoaren inpaktuak indartu egiten ditu berreskurapen demografikoaren ikuspegiarako oztopoak. Errealitate horrek erronkaren konplexutasuna azpimarratzen du eta zuhurtzia eskatzen du helburuak ezartzerakoan.

1.5. Defizita

Aurreko guztia gorabehera, eta zalantzarik gabe garrantzi estrategikoa duen arren, 2022ko lehen seihilekora arte, demografiaren gaiak ez du lehen lerroko lehentasuna lortu agenda publikoan, parlamentarioan edo komunikabideetan, ezta gizarte-kezken artean ere. Ezta Estatuan edo Europan ere. Euskadin, estrategia hau aurkeztu izanari eta Eusko Legebiltzarrean egindako eztabaida monografikoari esker, neurri batean, gai horren lehentasuna birkokatu ahal izan da.

1.6. Beharra

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da erakundearteko eta gizarteko euskal estrategia bat izatea, bi gako osagarri kontuan hartzen dituena: lehena, eraldaketa demografikoak aldaketa sistemiko eta kultural bat dakar, epe ertain eta luzera proiektatu behar dena; eta, bigarrena, lehentasunezkoa da egungo joera demografikoa aldatzen lagunduko duten epe laburreko inpaktu-jarduerak identifikatzea.

1.7. Eragile anitzeko lankidetzak: Auzolana

Eusko Legebiltzarrak 2022ko maiatzaren 18ko eztabaida monografikoan azpimarratu zuenez, "erakundeetako eta gizarteko eragile guztiei dagokie demografiaren gaia agenda politiko-instituzionalaren erdigunean kokatzea eta gizartearekin partekatzea haren irismen strategikoa". Hori herri-estrategia bat da. Metatutako esperientziak erakusten

duenez, bere helburuak ondo lortzeko ezinbestekoa da arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzeta eta hirugarren sektore sozialaren parte-hartzea sustatzea erronka demografikoari aurre egiteko politiketan, bai eta gizarte-eskubideen onarpena indartzeko eta eskubide horiek benetan erabiltzen direla bermatzeko, biztanleria kalteberenaren beharrak ezagutzeko eta gizarte aurreratu baten berezko kohesio- eta gizarteratze-helburuak lortzea ahalbidetuko duten estaldurak ezartzeko ere. Talde-mentalitatea behar da, Auzolana.

2. Prospekzio soziologikoko azterlanen ondorio nagusiak

2022ko maiatzaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak Euskadiko biztanleek erronka demografikoaren aurrean dituzten pertzepzioetan eta jarreretan oinarritutako azterlan bat argitaratu zuen. Landa-lana 2022ko martxoaren 28tik apirilaren 1era bitartean egin zen, eta, guztira, 1.202 inkesta egin ziren telefonoz. Azterlan horrek eta datu-multzo horrek aurreko azterlanetan eta inkestetan hautemandako joerak berretsi eta eguneratu zituzten. Gai demografikoaren garrantzi estrategikoa eta hurrengo hamarkadako ikuspegiaren duen lehentasuna ere berresten dute. Hona hemen ondorio nagusiak:

2.1. Nahi baino seme-alaba gutxiago

Idealarekin izandako benetako seme-alaba kopurua zenbateraino egokitzen den galdetuta, % 52k esan du nahi lukeena edo gustatuko litzaiokeena baino seme-alaba gutxiago izan dituela. 18 eta 29 urte bitartekoaren artean, berriz, % 81era iristen da ehuneko hori, baina horietatik gutxienez % 54k espero du etorkizunean izatea.

Biztanleen % 10ek dio, “0 seme-alaba izatea gustatuko litzaiokeela edo gustatu izango litzaiokeela”; ehuneko hori % 5ekoa zen duela sei urte. 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 15ek adierazi du hori. Azken batean, amatasunari eta aitatasunari uko egiteko jarrerak gora egin du. Hala ere, inkestari erantzun dioten pertsonen batez bestekoaren arabera, seme-alaben kopuru ideala 2,2 da. Euskadiko jaiotza-tasari dagokionez, 1,28 seme-alaba emakume bakoitzeko.

2.2. Lehenengo amatasuna edo aitatasuna, nahi baino 4 urte geroago

Lehen seme-alaba izateko adinari dagokionez, lortutako erantzun guztien batez bestekoa 28 urtekoa da. Hala ere, Euskadiko emakumeek lehen seme-alaba izateko batez besteko adina 32,6 da Euskadin.

2.3. Gazteen emantzipazioa, nahi baino 5 urte beranduago

Nahi baino beranduago seme-alabak izateko arrazoietakoa bat da gazteak beranduago emantzipatzen direla. Euskaldunen ustez, emantzipatzeko batez besteko adin egokiena 25 urte da. Hala ere, euskal gazteen batez besteko emantzipazio-adina 30,2 urtekoa da.

2.4. Demografikoa, lehentasunezko erronka

Herritarrei planteatutako etorkizuneko erronken artean, arazo demografikoak garrantzitsuenetakotzat hartzen dira, 10etik 7ko aldearekin “larritasun-eskalan”. “Desberdintasun sozialen eta pobreziaren” atzetik soilik kokatzen da (7,1).

2.5. Enplegua, laguntzak eta immigrazioa, konponbiderako bide nagusiak

Herritarrek planteatzen dituzten irtenbideek bi orientazio nagusi dituzte. Lehenik, enplegua (enplegua sortzea, % 23, eta kalitatezko enplegua, % 14); eta, bigarrenik, familiak eraikitzen laguntzea (laguntza ekonomikoak, % 17, eta jaiotza-tasa sustatzea, % 12).

Biztanleriaren bi herenek (% 65) uste dute biztanleria etorkinaren etorrera ere izan daitekeela biztanleriaren zahartzearen arazoaren irtenbidearen zati. Herritarren antzeko proportzio batek (% 64) uste du etorkizunean eskulan-faltari aurre egiteko neurririk eraginkorrena seme-alaba gehiago izatea dela.

3. Irizpide gidariak

3.1. Eraldaketa sistemikoa eta progresiboa

Estrategia horrek eraldaketa sistemiko eta progresibo bat proiektatzen du, 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorrena. Ikuspegi integral horrek berrekin dakar etxebizitza-, enplegu-, hezkuntza-, gizarte- eta osasun-politikak, migrazio- eta gizarte-prestazioen politikak eta gaitasunak garatzeko laguntzak, bai eta hiri- eta landa-dimentsio bikoitza ere, epe labur eta ertaineko ekimenekin eta lau sektore hauen lankidetzarekin: publikoa, enpresa, hirugarren sektorea eta familia, sare komunitarioekin batera.

3.2. Genero-ikuspegia

Estrategia eta jarduera guztien berri genero-ikuspegiak eta ikuspegi intersektionalak ematen dute. Helburua da pertsonen, hala aukeratzen badute, amatasuna/aitatasuna beren bizi-proiektuko beste alderdi batzuekin batera egin ahal izateko eta nahi duten seme-alaba kopurua nahi dutenean eduki ahal izateko baldintzak sortzea.

3.3. Aniztasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik eza

Estrategia familia-egituren, familia-bizitzako ibilbideen eta familia barruko harremanen aldaketa-prozesu sakona aitortzetik abiatzen da, eta familia-adierazpenen aniztasun horrek gizarte-babes maila bera izatea bilatzen du. Azken batean, familia-aniztasuna, tratu-berdintasuna eta pertsonen eta familien diskriminaziorik eza aitortu eta babestu nahi dira.

3.4. Erantzukidetasuna

Estrategia honetan jasotako jarduerak gizarte-antolaketa erantzukide baterantz aurrera egiteko beharra biltzen dute, eredu bat garatuz non bi gurasoek neurri berean parte hartzen duten produkzio- edo lan-zereginetan, eta ugalketa- edo zaintza-lanetan, jaso-tzaile bikoitzaren eta zaintzaile bikoitzaren eredutik abiatuta.

3.5. Iraunkortasuna

Estrategia horrek barne hartzen dituen hedapenak, helburuek eta jarduerak kontuan hartzen dute belaunaldien ordezkapena zuzenean lotuta dagoela gizarte baten berrikuntzarekin eta haren iraunkortasunarekin. Desoreka demografikoak eragin zuzena du belaunaldien arteko elkartasun-politikei eta gizarte-zerbitzu eta -politikei eustean. Era berean, lan-merkatuan laneskua birjartzean gero eta defizit handiagoa eragiten du. Oreka demografikoa bilatzea oso lotuta dago iraunkortasunaren irizpide gidariarekin, eta trantsizio sozialaren ardatz nagusietako bat da.

3.6. Adinekoen eskubideen bermea

Estrategia horren lehentasunezko erreferentzia da adineko pertsonen autonomia, bizitza osoa eta parte-hartze soziala sustatzea bizi-ziklo osoan, bizi-itxaropen osasungarria handitzen lagunduz eta politikak, zerbitzuak eta programak adinekoen belaunaldi desberdinen itxaropen, gaitasun edo interesetara egokituz.

3.7. Gazteen emantzipazio-prozesuaren zentraltasuna

Gazteek beren bizi-proiektua errealitate bihurtzeko dituzten zailtasunak defizit-adierazle oso garrantzitsua dira. Emantzipaziorako baldintza egokiak sustatzea da estrategia honen ardatz nagusia erronka demografikoari lotutako gazte-politiketan, aukera faltak eragindako atzerapenik gabe.

4. Esparru operatiboa

Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategia esparru estrategiko batean kokatzen da, eta esparru horren osagai nagusiak honako hauek dira: ikuspegia, misioa, helburuak, etapen programa, irizpide metodologikoa, jarduera-planaren egitura eta aurrekontu-zenbatespena.

4.1. Ikuspegia

Estrategia honetan identifikatutako jarduera-proposamenak eta horien aplikazioa baliagarriak izan daitezten lortzea, errealitate demografikoan eta eraldaketa sistemiko baten esparruan joera-aldaketa erabilgarria, bidezkoa, inklusiboa, iraunkorra eta jasangarria egin ahal izateko.

4.2. Misioa

Erronka demografikoaren izaera sistemikoaren arabera, estrategia honen misioa *sinergia* hitzari lotuta dago (*Auzolana*). Gutxienez, lau alderdi ditu:

- Sinergia instituzionala. Sailen arteko eta erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazioa.
- Sinergia soziala. Kultura-aldaketaren eta lankidetzak publiko-pribatuaren eta publiko-sozialaren prozesua.
- Sinergia sektoriala. Askotariko gai- eta kudeaketa-eremuetako jardueren batura.
- Aldi baterako sinergia. Eragin metakorra, progresiboa eta jasangarria hamarkada-aldien arabera.

4.3. Helburuak

• Helburu orokorrak

- Jarduera-programa iraunkor bat garatzea, 2030erako ebaluazio- eta progresibotasun-ikuspegiarekin.
- Demografiaren gaia agenda politiko-instituzionalaren erdigunean jartzea eta gizartearekin partekatzea haren irismen estrategikoa.

• Helburu estrategikoak

• **Emantzipazioa.** Gazteen emantzipazioari laguntzeko politikak gure ingurunean emaitzarik onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea.

- 2025erako helburua: emantzipatzeko batez besteko adina 30,2 urtetik 29 urtera jaitea.
- 2030erako helburua: emantzipatzeko batez besteko adina 28 urtetik beherakoa izatea.

• **Jaiotza.** Familia-proiektuak eraikitze laguntzak eta jaiotza-tasarako laguntzak gure ingurunean emaitzarik onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea.

- 2025erako helburua: jaiotza-tasaren beheranzko joera aldatzea.
- 2030erako helburua: jaiotza-tasa %15 handitzea.

• Lehentasunezko helburuak

• **Errefortzua.** Politika publikoen emaitzak eta eragina kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzea lehentasunezko eremu hauetan, demografia-erronkari modu sistemikoan heltzeko:

- Landa-ingurunezko despopulazioari eta zahartzeari erantzutea.
- Migrazioa erakartzea eta gizarteratzea.
- Zahartze osoa eta osasungarria.

4.4. Etapen programa

Prozesu horren diseinuan hiru etapa hartu dira kontuan:

- **Prestakuntza**

2021eko urtarriletik 2022ko ekainera: elkarriketa eta akordioa estrategia eta proposamen partekatuak definitzeko.

- **Abian jartzea**

2022ko ekainetik 2025era: Estrategiaren lehen fasea prestatzea, garatzea eta ebaluatzea.

- **Finkatzea**

2026 eta 2030 bitartean: Euskal estrategia hedatzea eta sendotzea eta aldizka ebaluatzea.

4.5. Irizpide metodologikoa *(inpaktu bikoitzekoa)*

Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak inpaktu bikoitzeko irizpide metodologikoa hartzen du bere gain jardunak bere helburua epe laburrean edo ibilbide luzean kokatzearen arabera egituratzeko garaian.

- **Epe laburrerako eraginaren irizpidea: jarduera berriak bultzatzea**

Errealitate demografikoak epe laburrerako eragina duten ekimenen programa bat eskatzen du, oso helburu zehatz eta apal batekin: datozen urteetan joera negatiboan aldaketa eragitea, bai emantzipazio-adinean, bai jaiotza-tasan. Bestela esanda, gain-behera demografikoko agertoki batetik berreskuratze demografikoko agertoki batera igarotzea. Logikoa denez, epe laburrean eragina izango duten jarduera horiek berriak eta gehigarriak izango dira. Gainera, iraunkorrak eta jasangarriak izan beharko dute ibilbide luzean ere.

- **Ibilbide luzeko inpaktuaren irizpidea: abian dauden jarduerak indartzea**

Erronka demografikoari erantzuteak belaunaldi-erleleboko ziklo baten kudeaketaz hitz egitea esan nahi du. Eraldaketa horrek aldaketa sistemikoa eta kulturala dakar, eta epe ertain eta luzera proiektatu behar da. Begirada luzea eta zabala behar du. Gutxienez 30 urteko horizonteaz ari gara. Epe laburreko eragin-jarduerak indartu eta osatu egin behar dira, ibilbide luzeko eragin iraunkor eta jarraitua duten ekimenen programa baten bidez. Batez ere, dagoeneko martxan dauden eta mantentzen, indartzen edo handitu egiten diren jarduerekin bat etorriko dira.

4.6. Jarduera-planaren egitura

Proposamen honek hiru atal handitan egituratzen du bere jarduera-plana. Lehenengo biek epe laburreko inpaktuaren eta ibilbide luzeko inpaktuaren ikuspegi bikoitza islatzen dute. Hirugarrenak zeharkako jarduera-ardatzak planteatzen ditu. Eranskinean aginte-taula integrala eta bere adierazle-sistema deskribatzen ditu.

• **Lehen atala. Epe laburreko eragina: jarduera berriak bultzatzea.** Lehentasunezko lau jardueratan zehazten dira:

- Ardurapeko seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak handitzea.
- Gazteenekintzailatza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa.
- 0-2 urteko etaparen doakotasuna Haurreskolak Partzuergoaren bitartez.
- Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna.

• **Bigarren atala. Ibilbide luzeko inpaktua: abian dauden jarduerak indartzea.** Jarduera estrategikoko lau ardatzetan antolatzen dira:

- Gazteen emantzipazioa.
- Familien proiektuak eraikitzea.
- Adinekoen bizitza autonomoa eta erabatekoa bultzatzea.
- Migranteen gizarteratzea.

•**Hirugarren atala. Zeharkako ardatzak.** Osagarri gisa, jarduera-planak zeharkako euskarriko hiru ardatz gehitzen ditu:

- Landa-balioa handitzea.
- Prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa.
- Aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa.

•**Eranskina.** Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren **Aginte Taula Integrala**.

4.7. Aurrekontu-zenbatespena

Estrategia honetan sartutako jarduera bakoitzak koadro operatibo bat du, eta koadro horrek honako hauek identifikatzen ditu: “Arlo Arduraduna”, “Abiarazteko Egutegia” eta “Aurrekontu-zenbatespena”. Prozeduraren ikuspegitik, estrategia hori onartzeak ez du oraindik lotzen azken eduki ekonomikoaren definizioa. Jarduera bakoitzaren ardura duen sail bakoitzari dagokio, prozedura egokien bidez, jarduera horren aurrekontu-izla garatzea, zehaztea eta jasotzea.

Hala ere, “1. ataleko jarduerak. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburreko inpaktuaren irizpideari jarraituz” hasierako aurrekontu-zenbatespen bat jasotzen dute, garatu nahi den ekimenaren dimentsioa adierazteko eta deskribatzeko.

Bigarren eta hirugarren blokeetan, jarduketa asko eta asko abian dauden eta indartzen diren jarduketei dagozkien, eta jarduera horien izla dagokion arloaren edo sailaren aurrekontu arruntan xurgatzen da; beste jarduera batzuek, beren izaeratik, ez dute eragin gehigarririk aurrekontuan; eta, azkenik, beste kasu batzuetan, lehen fasean aurreikusitako txosten-, diseinu- edo zehaztapen-tresnak burutzeak baldintzatzen du jarduera horien aurrekontu-izla.

Ondorioz, jarduketa bakoitzaren eduki ekonomikoak, hala badagokio eta abian jarri aurretik, dagokion aurrekontu-izendapena eta tresna juridiko egokia beharko ditu.

Bigarren zatia
Jarduera-plana

LEHEN ATALA

Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktu-irizpidearekin

•Orientazio estrategikoen esparrua

-Laguntza-sistema iraunkorra eta jasangarria bultzatzea, emantzipaziorako zein familiek nahi dituzten seme-alabak nahi dutenean izan ditzaten aldeko baldintzak sortuko dituen.

-Familiak eraikitzeke ekosistema egokia sustatzea eta, zehazki, familiek hazkuntzarako jasotzen dituzten pizgarriak areagotzea, ardurapeko seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak handituz, ebaluazio- eta progresio-ikuspegiarekin.

-Gaur egun dauden maileguen ebaluazioa oinarri hartuta, gazteentzako mailegu-programak ezartzea, diruz lagunduak edo interesik gabeak, epe luzera itzultzeko aukera ematen dutenak, ekintzailetzako, prestakuntzako eta ohiko etxebizitza erosteko proiektuetarako.

-0-3 haur-hezkuntzan plaza publikoen eskaintza eta eskaria egokitzea eta 2023 urtearen amaieran 0-2 urteko etapan doakotasuna lortzea, Haurreskolak Partzuergoa indartuz, zerbitzu publikoa, unibertsala, kalitatezkoa eta doakoa den aldetik, eta haur kalteberenek plazak bete ditzaten sustatzea, informazio-kanpainen bidez, ordutegiak eta eredia malgutuz, unibertsaltasunean eta aukera-berdintasunean aurrera egiteko eta kontziliazioa indartzeko baldintzak sortzeko.

-Ikuspegi demografikoa sustatzea, politika publiko guztien garapenean kontuan hartu beharreko zeharkako dimentsio gisa.

•Helburuak

-Datozen urteetan joera negatiboan aldaketa eragitea, bai emantzipatzeko adinean, bai jaiotza-tasetan, epe ertainean beharakada demografikoko agertokitik errekupeazio demografikoko agertokira igarotzea errazteko. Horren ondorioz, lehenik eta behin joera-aldaketa lortu behar da, epe laburrean. Bigarrena, helburu hori lortzera bideratutako jarduerak ibilbide luzean ere iraunkorrak eta jasangarriak izango direla ziurtatzea da.

•1. jarduera. Ardurapeko seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak handitzea

Hilean 200 euroko zuzeneko laguntza ematea ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko, hiru urte bete arte. Laguntza hori bateragarria izango da 4 eta 7 urte bitarteko familia ugarietzako egungo prestazioekin, egungo zerga-kenkariarekin eta DSBEko seme-alabengatiko laguntzekin. Neurri hori UNICEFek sustatutako "Lehenengo 1.000 eguneko programekin" bat dator. Programa horien irizpidearen arabera, administrazio publikoek lehen 1.000 egun horietan egin behar dituzte inbertsioak, haurren bizitzako lehen hiru urteen garrantziagatik.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an.
Aurrekontu-zenbatespena	·125 milioi euro.

·2.jarduera. Gazteen ekintzailetza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa

Mailegu subsidiatuen edo interesik gabekoen programa bat sortzea, epe luzera itzultzeko aukerarekin, ekintzailetzako, prestakuntzako edo gazteentzako etxebizitzako proiektuetarako. Programa bera ezarri aurretik, azterlan bat egingo da ekintzailetzari, prestakuntzari eta etxebizitzaren erosketari laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ildo publikoak ebaluatzeko, programa berriarekin duen lotura eta osagarritasuna aztertzeko: adina, maileguaren kuantifikazioa, finantza-baldintzak, administrazio-prozesua eta erregulazio-irizpideak, besteak beste. Lehenengo lau urteetan, programa proiektu pilotu gisa mantenduko da, haren eragina ebaluatu ahal izateko eta ezaugarriak gazteen beharretara egokitzeko. Eskatzailearen kalteberatasun sozialeko edo landatartasuneko salbuespenezko baldintzak kontuan hartuta, maileguaren ehuneko bat itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izan liteke.

Arlo arduraduna	·Gazteria Zuzendaritza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an zehar.
Aurrekontu-zenbatespena (Aurretiaz aztertu ondoren zehaztu gabe)	·20 milioi euro.

·3.jarduera. 0-2 urte bitarteko etaparen doakotasuna, Haurreskolak Partzuergoaren bidez

Haur-eskolen doakotasuna bermatzea 0-2 urteko etapan, Haurreskolak Partzuergo indartuz. Ekimen horren helburua da kontziliazioa, hezkuntzaren unibertsaltasuna eta aukera-berdintasuna sustatzeko neurrien multzoa sendotzea.

Arlo arduraduna	·Hezkuntza Saila.
Abian jartzeko egutegia	·2023an zehar.
Aurrekontu-zenbatespena (Ikasturte oso baterako)	·7 milioi euro.

·4. jarduera. Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura ezartzen duen araudia aldatzea, legeak, arauak, estrategiak, sektoreko jarduera-planak edo inbertsio-programak egitean ikuspegi demografikoa kontuan har dadin, hala badagokio familiaren ikuspegia barne. (8/2003 Legea, abenduaren 22koa. Xedapen orokorrak egiteko prozedura)

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia. ·Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Saila.
Abian jartzeko egutegia	·2022an zehar.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan eraginik ez dauka.

BIGARREN ATALA

Abian dauden jarduerak indartzea ibilbide luzeko inpaktuaren irizpidearekin

•I. ardatza, jarduera estrategikoa: **Gazteen emantzipazioa**

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Belaunaldien arteko arrakala murriztea, belaunaldien arteko desberdintasuna konpentsatzea likideziaren eta bitartekoen eskuragarritasunean, gazteen bizi-proiektuei laguntzea eta, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategiaren arabera, emantzipazio-adina aurreratzea, eta, horretarako, gazteen bizi-proiektuak eraikitzeko ekintzailatza eta autonomia erraztuko duten enplegu-, etxebizitza-, prestakuntza- eta laguntza-politiketan eragitea.

•Lan-hipotesiak

-Emantzipazioaren arloko erronka demografikoari erantzuteko, lehenengo etapan, 26 eta 31 urte bitarteko gazteek:

- Likidezia handiagoa izatea emantzipazioa gauzatu ahal izateko.
- Enplegua eta etxebizitza eskuratzea, bereziki alokairu-erregimenean, beren diru-sarreretara egokitutako kostu batean.
- Emantzipazio-ibilbideak garatzeko informazio eta orientazio pertsonalizaturako eta espezializaturako sarbidea izatea.

•2030erako helburuak

-Euskadiko gazteen emantzipazio-adina 28 urtetik beherakoa izatea.

•Legegintzaldiko helburuak

-Emantzipazio-adina atzeratzeko joera indargabetzea, beste arrazoi batzuen artean eta oraindik zehazteke dagoen intentsitatearekin, COVID-19aren krisiaren inpaktua indartzen ari dena, eta emantzipatzeko batez besteko adina murriztea, 30,2 urtetik 29 urtera pasatuta.

-Estrategia aktibo eta ezagun bat hedatzea politika eta neurri espezifiko argiekin, gazteei emantzipatzen eta enplegua eta etxebizitza lortzen laguntzeko.

•Orientazio estrategikoak

-Gazteen emantzipazio-prozesuaren ikuspegia funtsezkoa da Erronka Demografikoko 2030 Estrategian, eta gazteek bizi-proiektuak autonomiaz eta aukerarik ezak eragindako atzerapenik gabe eraiki ahal izateko baldintza egokiak sustatzean oinarritzen da.

-Zehazki, estrategia horrek lehentasuna ematen die Gazteen Euskal Legeak gazteen emantzipazioari buruz ezartzen dituen aurreikuspenei, bai eta eremu horretan bertan ekimen berritzaileak abian jartzeari ere. Horren guztiaren helburua da 2030erako emantzipatzeko batez besteko adina 28 urtetik beherakoa izatea.

2. Emantzipazio-ibilbideei laguntza pertsonalizatua emateko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Gazteei laguntza pertsonalizatua bermatzea emantzipazio-ibilbideetan eta bizi-proiektuetan, gazteen mugikortasuna eta migrazio-prozesuak barne (20 eta 40 urte bitarteko pertsona, bikote eta familia gazteak erakartzea, itzultzea eta konektatzea).

-Gazteek parte hartzeko espazioak sustatzea (panelak, tailerrak) askotariko bizi-proiektuei eta emantzipazio-ibilbideei laguntzeko diseinuan (baterako diseinua) eta informazio- eta orientazio-prestazioetan.

-Emantzipazioaren inguruko hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea, kultura eta emantzipazio-ibilbideak edo -prozesuak eta -praktikak azpimarratuz.

•Jarduerak

•5. jarduera. GAZ diseinatzea eta abian jartzea

Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearen esparruan, GAZ (Gazteen ibilbideak Abian jartzeko Zerbitzua) diseinatzea eta abian jartzea –Ameslariak programa hartzen duena–, Gazteei buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, informazioa, orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza integrala, jarraitua eta pertsonalizatua emateko zerbitzuari dagokionez, gazteen emantzipaziorako eta mugikortasunerako, itzulera barne. Bi programa horiek Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin artikulatuko dira; bereziki gazteen emantzipazioa eta mugikortasuna sustatzera bideratutako foru- eta toki-ekimeneekin, bai eta talentua erakartzera, atxikitza, itzultza eta konektatzera bideratutakoekin ere; eta gazte-informazioko sarearekin eta baliabideekin.

Arlo arduraduna	·Gazteria Zuzendaritza.
Abian jartzeko egutegia	·2022ko azken hiruhilekoa.
Aurrekontu-zenbatespena	·Programen diseinua amaitzean sartuko da.

3. Etxebizitzaren arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Etxebizitzarako eskubide subjektiboa erregelamendu bidez garatzea, EPOTik etxebizitzarako prestazio ekonomikorako trantsizio ordenatua bermatuz, eta Etxebizitzaren aldeko Itun Sozial bat, 2021-2023 Etxebizitza Bideratzeko Plana eta gazteentzako etxebizitza-programa berezi bat bultzatzea, horietan guztietan gazteen emantzipazioa helburu gisa sartuz eta neurri espezifikoak aurreikusiz.

-Familia mota desberdinak artatzea, familia ugariei arreta berezia eskainiz, familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua kontuan hartuz eta etxebizitzaren tamaina aldatzeko premiei erantzunez.

-Etxebizitza hutsen gizarte-arazoa etxebizitza-politikaren zutabe nagusitzat hartzea, eta arazo hori gainditzeko hainbat aukera proposatzea, bai Etxebizitza Hutsei buruzko 149/2021 Dekretuaren garapenari dagokionez, bai zerga-neurriei dagokienez.

-Gazteentzako enplegua sortzea, hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko programak eta horri lotutako lanbideetan lanbide-heziketa duala bultzatuz.

•Jarduerak

•6. jarduera. Gaztelagun programa zabaltzea

36 urtetik beherakoak alokairuan hartzeko Gaztelagun programa garatzen jarraitzea, eta etxebizitza-gastu publikoa handitzen jarraitzea gazteentzat, bai eta programa horretaz baliatzen diren 26 eta 31 (34) urte bitarteko pertsonen ehunekoa ere.

Arlo arduraduna	· <i>Etxebizitza Sailburuordetza.</i>
Abian jartzeko egutegia	· <i>Jarduera hau aktibatuta dago.</i>
Aurrekontu-zenbatespena	· <i>Aurrekontuan sartuta dago.</i>

•7. jarduera. Pilotaje berritzaileak abian jartzea

Etxebizitza-proiektu pilotuak abian jartzea, bizikidetzarako gune komunitarioak sortzeko, zainketa-lanen eta bizitzari eusteko lanen erantzukidetasun sozial eta kolektiboa erdigunean jar dezaten; baita alokairu sozialeko politika eraginkor bat ere, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzat, eta bizikidetza-proiektu komun bat eta nahi ez den bakardadea prebenitzeko proiektu bat duten komunitateak sustatzeko.

Arlo arduraduna	· <i>Etxebizitza Sailburuordetza.</i>
Abian jartzeko egutegia	· <i>2023an zehar.</i>
Aurrekontu-zenbatespena	· <i>Pilotajeak zehaztean sartuko da.</i>

4. Enpleguaren arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Enplegu-politika aktiboak ebaluatzea, gazteen emantzipazioaren ikuspegitik, eta ikuspegi hori sartzeari euskal enpleguari buruzko legean, emantzipaziorako neurri espezifikoak txertatuz, gazteei enplegua lortzen laguntzera bideratutako beste neurri orokor batzuekin batera (gazteen bermea).

-Gazteen laneratzea hobetzea, talka-plan baten bidez eta kalitatezko enplegu egonkorra sustatzeko politiken bidez, ezinbestekoak baitira bizitza- eta familia-proiektuak sortzeko. Toki- eta foru-administrazioekin horiek abian jartzea koordinatzea, enplegu publiko bermatuarekin eta lan-baldintza duinak eta lan-eskubideen errespetua bermatzeko politiketan inbertsio handiagoa egitearekin.

-Sektore ekonomikoek eta kolektibo profesional feminizatuenek izango duten eraldaketa sakona kontuan hartuta, langileen errelebo-plan ordenatu eta eraginkorra egitea, honako hauek izango dituen:

—neurri bereziak, feminizatutako sektore eta kolektibo profesional horiek duintzeko eta haien lan-eremua kalitatezko enplegurako gune bihurtzeko. Besteak beste, zainketen eremuan emakume migratzaileak nagusi diren lan-baldintzak duintzeko neurriak berariaz jasotzea.

—belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko neurriak, kalitatezko enplegua sustatzeko pizgarrien bidez, enpresetan, erakundeetan eta instituzioetan ordezkapena belaunaldiz belaunaldi kudeatzeko planen esparruan.

•Jarduerak

•8. jarduera. Gazteen enplegurako talka-plana bultzatzea

Gazteen enplegurako talka-plan bat bultzatzea, enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren esparru-programan integratua, honako jarduera-ardatz hauekin: gazteen enplegurako prestakuntza duala; hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa; prestakuntza-bekak eta lan-esperientziakoak, kontratatze konpromisoarekin; gazteen laguntza pertsonalizatua eta tutoretza indartzea, enplegu-

rako eta garapen profesionalerako ibilbidean; ekintzailetzaren garapena, autoenplegua eta gazteen startupa; eskualdeen garapeneko eta gazte-prestakuntzako berariazko programak.

Arlo arduraduna	·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an zehar.
Aurrekontu-zenbatespena	·Edukia diseinatu eta garatzean sartuko da.

·9. jarduera. Txanda-plana diseinatzea

Plan ordenatu eta eraginkor bat prestatzea, datozen urteetan EAEn langileak txandakatzeko, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko eta langabezia- eta prekaritate-tasa handienak dituzten kolektiboek –gazteek, emakumeek eta iraupen luzeko langabeek, batez ere– kalitatezko enplegu batera igarotzeko bidea egin dezaten.

Arlo arduraduna	·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an zehar.
Aurrekontu-zenbatespena	·Edukia diseinatu eta garatzean sartuko da.

·10. jarduera. Lan Ikuskaritzako kanpainen jarraipena

Kontratazioko iruzurraren arloko Lan Ikuskaritzako kanpainei eustea, eta 2022ko martxoaren 15eko Gizarte Elkarriketako Mahaian onartu ziren gizarte-eragileen partaidetzarako neurriak babestea, Lan Ikuskaritzaren Aholku Batzordea sortuz, aurrekarizatutako eta feminizatutako sektoreei eta, bereziki, etxeko langileei begira.

Arlo arduraduna	·Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Jarduera hau aktibatuta dago.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan sartuta dago.

5. Prestakuntzaren eta laneratzearen arloko irizpideak eta jarduerak

·Irizpideak

- Lanbide-heziketa eta unibertsitate-mailako prestakuntza duala sustatzea.
- Gazteak gizarteratzeko programa espezifikoak bultzatzea, orientazioaren, prestakuntzaren eta ekintzailetzaren garapenaren bidez.
- Gazteen laguntza pertsonalizatua eta tutoretza indartzea, enplegurako eta garapen profesionalerako bidean.
- Biztanleria osoa enplegurako prestakuntzara iristeko mekanismo arinak egituratzea.
- Bizi-proiektuak garatzea ahalbidetuko duen kalitatezko enplegua sustatzea.
- Talentua atxikitze eta erakartzeko programak abian jartzea, ikerketari eta berrikuntzari laguntzeko politika publikoen bidez.
- Belaunaldien arteko lankidetzaren programak garatzea, adinekoen eta gazteen artean eza-gutza transferitzea sustatzeko, eta enplegu-politika publikoak garatzea luzaroko langabeak laneratzeko, bai eta zainketen arretarako jarduerarik gabeko aldi luze baten ondoren

lan-merkatuan sartzea erabakitzen dutenak ere, orientazio-, prestakuntza- eta laguntza-ekintzen bidez, pertsona horiek birkualifikatzea eta lan-jardueran sartzea lortzeko.

•Jarduerak

•11. jarduera. Prestakuntza eta, bereziki, Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Heziketa Duala bultzatzea, bereziki, industria-sektorean emakumeek duten parte-hartzeari erreparatuta

Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Heziketa Duala bultzatzea Lanbide- eta Unibertsitate-Heziketako sektore guztietan, enplegarritasuna indartzeko, bereziki emakumeek industria-sektorean duten parte-hartzea, eta, era berean, gizarte-kohesioa eta gizarteratzea indartzeko.

Arlo arduraduna	·Lanbide Heziketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023ko lehen seihilekoa.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan sartuta dago.

•12. jarduera. Lan-merkatuko beharren diagnostikoa eguneratzea

Gizarte-eragileekin eta hezkuntza-komunitatearekin (unibertsitateak, LHko zentroak eta profesionaltasun-ziurtagiriak eskaintzen dituzten zentroak) lankidetzan, premien azterketa bat egitea, gure lan-merkatuaren eskaerak eta lanbide-profilei dagokienez dauden gabezia nabarmenenak eguneratu eta identifikatzeko. Hori oinarri hartuta, eskaera horiekin bat datozen langileak erakartzeko kanpainak egitea.

Arlo arduraduna	·Lanbide Heziketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. ·Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea.
Abian jartzeko egutegia	·2023ko lehen seihilekoa.
Aurrekontu-zenbatespena	·Azterlana diseinatzean sartuko da.

6. Garraio publikoko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Gazteei erraztasunak ematea garraio publikoa erabiltzeko eta mugitzeko, emantzipazio-prozesuak errazten lagundu behar duten estalduren ekosistemaren beste neurri bat den aldetik.

•Jarduerak

•13. jarduera. Tarifak egokitzea

Gazteentzako garraio publikoaren prezioak berrikustea eta erabilera-tarifak aldatzea, Gazteria Legearen arabera gaztetzat jotzen den adin-tarteari dagozkion tarifak lurralde guztietan bateratuz.

Arlo arduraduna	·Garraio Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023ko lehen seihilekoa.
Aurrekontu-zenbatespena	·Azterlana diseinatzean sartuko da.

•II. ardatza, jarduera estrategikoa: **Familia-proiektuak eraikitzea**

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Politika zehatzak ezarri eta garatzea, familia bakoitzak nahi adina seme-alaba izan ditzan, haurren pobrezia prebenitzeko eta lehenengo amatasunaren atzerapena baldintza-defizitaren ondorioz ez behartzeko.

•Lan-hipotesiak

-Erronka demografikoari erantzuteko, beharrezkoa da gazteek iraunkortasun-ikuspegia izatea, beren familia-proiektuan aurrera egiteko, hala nahi badute. Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazio ekonomiko bat izatea, lau sektoreek kontziliazio erantzukiderako baimenak eta neurriak sustatzea eta gizarte-, osasun- eta hezkuntza-laguntzako sare bat eratzea eta arian-arian garatzea, 0 eta 6 urte bitarteko adinean, familia- edo komunitate-mailako laguntza-sarerik ez duten familia kalteberen kasuan zabal daitekeena, seme-alaben bizitzako lehen urteetan familia-proiektuei laguntzeko estrategia baten oinarriak dira.

•2030erako helburuak

-Helburu nagusia, haur-pobrezia prebenitzeaz gain, familia bakoitzak nahi adina seme-alaba izan ditzan ahalbidetzea da, bai eta lehenengo amatasuna atzeratzea ez behartzea ere, baldintzarik ez dagoelako, eta, horren ondorioz, bizitza-proiektu pertsonaletarako eta familia-proiektuetarako aukerak sortzea, familia-ereduen aniztasunetik abiatuta.

-Jaiotza-tasa % 15 handitzea eta ardurapean seme-alabak dituzten familien pobrezia-tasa % 20 murriztea.

•Legegintzaldiko helburuak

-Estrategia aktiboa eta ezaguna izatea, ardatz eta laguntza argiak dituen, familiak eraikitzen laguntzeko.

-Joera-aldaketa sustatzea, bai jaiotza-tasan, bai lehen amatasunaren atzerapen gero eta handiagoan, Covid inpaktuak eraginda.

•Orientazio estrategikoak

-Bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko politika integral bat bultzatzea, eta gizarte-antolaketa erantzukide baterantz irmoki aurrera egitea, gurasoek produkzio- edo lan-zereginetan, ugalketa-zereginetan edo zaintza-lanetan neurri berean parte hartzen duten eredu bat garatuz.

-Arreta berezia eskaintzea familia ugariei, guraso bakarreko familiei eta mendeko pertsonak ardurapean dituzten familiei.

-Patologia batek eragindako ugalkortasun-arazoak dituzten emakumeei laguntza bidezko ugalketa-tratamendua bermatzea Osakidetzaren bitartez, betiere mediku-kontraindikaziorik ez badago, eta tratamendu horretarako beharrezkoak diren dohaintzak sustatuko dituzten informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak garatzea.

-Euskal Osasun Sistema Publikoaren bidez, haurdunaldia borondatez eteten dela bermatzea, baita emakumeen gorputza eta ugalketa-eskubideak errespetatzeko eta sarbide unibertsala bermatzeko ezinbesteko neurriak direla ere.

-Apurka-apurka handitzea 2030erako berdintasun-politiken aurrekontu-ahalegina, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bosgarren Xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, eta, besteak beste, honako hauek sortzera, indartzera eta bultzatzera bideratzea:

- a) Sail guztietako berdintasunerako administrazio-unitateak.
- b) Indarkeria matxisten biktimen detekzioan, prebentzioan, arreta integralean, erreparazioan eta oroimenean espezializatutako zerbitzuak.
- c) 24 orduko krisi-zentroak koordinatzea, sexu-indarkeriaren biktimei laguntzeko.
- d) Haurren eta nerabeen sexu-esplotazioaren aurkako ekintza-planean aurreikusitako zerbitzuak eta jarduerak.
- e) Berdintasun-planak eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloak EAEko administrazio guztietan eta 50 langile baino gehiago dituzten enpresa guztietan.

2. Haurrei eta familiei laguntzeko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-0-6 urteko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko tokiko ekosistemak arian-arian garatzea, lidergo publikotik eta hiru sistemen eta lau sektoreen lankidetzatik abiatuta, gizarte-, hezkuntza- eta osasun-laguntzak egituratzeko eta hobetzeko, eta 18 urtetik beherako eta pobrezia- eta gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeen aukera-berdintasuna sustatzen jarraitzea.

-Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen arauzko aurreikuspenak gauzatzeko behar diren bitartekoak eta baliabideak izatea, egoera ahulean dauden adingabeak dituzten familiak hobeto babesteko, bai eta Haurren Bermarako Euskal Estrategia bat ere.

-Haur eta Nerabeen Behatokia indartzea, legez dagozkion funtzioak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ezarri, bai eta EAEko haur eta nerabeen errealitatea eta eremu horretan aplikatzen diren politiken eragina aztertzeke ere.

-Ikasleen irakaskuntza-kalitatean eta banakako arretan sakontzea, eta hezkuntza-sistema errealitate demografiko berrira egokitzeko eta ikastetxeetan gero eta etorkin gehiago egoteko erraztasunak ematea.

•Jarduerak

•14. jarduera. Haurrak bermatzeko programa bat diseinatzea eta abian jartzea

Haurrak bermatzeko estrategia edo programa bat diseinatzea eta abian jartzea, pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden 18 urtetik beherako haur eta nerabeen aukera-berdintasuna sustatzeko, hezkuntza-, gizarte-, osasun- eta etxebizitza-zerbitzuetarako sarbide eraginkorra eta doakoa bermatuz, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta indartuz, ardurapean seme-alabak dituzten familien babesa hobetzeko.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an zehar.
Aurrekontu-zenbatespena	·Programa definitu ondoren sartuko da.

•15. jarduera. Guraso bakarra izateari buruzko txostena egitea

Gure gizartean dauden guraso bakarreko familiei buruzko txostena egitea, tratu-berdintasunaren printzipioari jarraiki eta irizpide bateratuen bidez, guraso bakarreko familiei laguntzeko printzipio, eskubide, zerbitzu eta prestazio espezifikoak jasoko

dituen araudi egokiaren garapena sustatzera bideratuta, baita ekintza positiboko baliuzko neurriak eta beste batzuk ere, Euskadin feminizazioarekin eta pobreziaarekin lotuta dauden fenomenoak ezabatzen laguntzeko.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2024ko lehen sei hilekoan.
Aurrekontu-zenbatespena	·Txostena egin ondoren sartuko da.

3. Kontziliazioaren arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Lau sektoreen (publikoa, pribatua, soziala eta familia- eta komunitate-arlokoa) arteko lankidetzatik abiatuta, kontziliazio erantzunkideko neurriak bultzatzea eta erreformatzeari, kontziliaziorako eta hazkuntzari eta, oro har, zaintzari laguntzeko programak, presazioak eta zerbitzuak indartuz, eta kontziliazio- eta zaintza-egoeren aniztasuna kon-tuan hartuz bizikidetzaren eremuan.

-Udan eta eskolarik gabeko aldietan familiei lana eta familia bateragarri egiteko behar diren baliabideen eskaintza garatzea eta zabaltzea, lehentasuna emanez balio posi-tiboaren transmisioari, kirol- eta jolas-jarduerari eta ingelesaren praktikari.

-Zaintza eta kontziliazio erantzukidea sustatzea, EAEko gainerako administrazio publi-koekin koordinatuta, gurasotasun positiboa laguntzeko eta sustatzeko programak eta neurriak bultzatzea, bai eta Kontzilia Erkidegoa ere, kontziliazio-neurriak hedatzeko go-goeta-, azterketa- eta jardueraren esparru partekatu gisa.

-Lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko neurriak sar daitezkeen bultzatzea, bai eta erantzukidetasuna sustatzea ere, negoziazio kolektiboaren esparruan, hori baita ere-murik egokiena langileen beharretara eta enpresen eta sektoreen errealitatera ego-kitzeko, ordutegiak eta lanaldiak malgutzea aurreikusten duten uztartze-programak sustatuz, bai eta telelana ere.

•Jarduerak

•16. jardueraren Aitatasun- eta amatasun-baimenen luzapena

Elkarrizketa sozialaren bidez eta lau sektoreen inplikazioarekin, eremu pribatuan amatasun- eta aitatasun-baimenak, berdina eta besterenezinak, 18 astera zabaltzea bultzatzea, eta, lehen urrats gisa, Kontzilia Erkidegoak enpresetan ezarri beharreko kontziliazio-neurriari buruzko txosten bat egin dezan sustatzea.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2024ko lehen sei hilekoan.
Aurrekontu-zenbatespena	·Txostena egin ondoren sartuko da.

•17. jardueraren Adingabeen adina luzatzea adingabeak zaintzeko kontratazioan

Egungo 3 urteetatik 14 urteetara luzatzea ondorengo adingabeak zaintzeko adina langileak kontratatuzko, 2021-2022 ikasturtera arteko atzeratzearekin.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2022ko azken sei hilekoan.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan sartuta dago.

•18. jarduera. Ordainsari-berdintasunari buruzko kanpainei eta berdintasun-planei eustea

Laneko Ikuskaritzak ordainsari-berdintasunari eta berdintasun-planei buruz egiten dituen kanpainei eustea, enpresek genero-berdintasunaren arloan dituzten bete-beharren jarraipena eta kontrola egiteko.

Arlo arduraduna	·Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Jarduera hau aktibatuta dago.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan sartuta dago.

•III. ardatza, jarduera estrategikoa: Adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Jardun-ildo bultzatzaile bat zehaztea eta garatzea adineko pertsona guztien autonomia, bizitza osoa eta parte-hartze soziala sustatzeko bizi-ziklo osoan zehar, bizi-itxaropen osasungarria handitzen lagunduz, politikak, zerbitzuak eta programak adinekoen belaunaldien itxaropenetara, gaitasunetara edo interesetara egokituz, zahartze aktiborako eta osasungarriko politikak ezarri eta adinekoen ekarpen soziala bultzatuz. Hori guztia, Zahartze Osasuntsuaren Hamarkadaren esparruan, OMEk sustatuta eta Europako Batzordearen *Zahartzeari buruzko Liburu Berdearen* arabera.

•Lan-hipotesiak

-*Zahartzeari buruzko Liburu Berdearen* tesiari heltzea: “Aurreko belaunaldiek baino urte gehiago eta osasun-egoera hobean bizitzea gure merkatuko gizarte-ekonomiaren arrakastaren eta indarraren seinale da. Hala ere, fenomeno horrek erronka berriak ere planteatzen ditu eta aztertu beharreko aukerak eskaintzen ditu. Eztabaida bat egin behar da zahartzen ari den biztanleriaren potentzial osoa aprobetxatzeko moduari buruz, aurkeztu duen berrikuntzarako pizgarriei buruz eta eskatzen dituen erantzun politikoei buruz”. (Dubravka Šuica, Europako Batzordeko Demokrazia eta Demografiako lehendakariordea).

•2030erako helburua

-Zahartze aktiboari eta osasungarriari bultzada estrategikoa ematea eta adinekoen autonomia pertsonala, parte-hartze soziala eta bizitza osoa sustatzea.

-Bizi-itxaropena 86 urtera arte eta bizi-itxaropen osasungarria edo desgaitasunik gabea handitzea.

-Helburu horri laguntzeko politikak emaitza onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea. Erreferentzia: zahartze aktiboaren indize europarra.

-Arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatzea eta tokiko zaintza-, gizarte- eta osasun-ekosistemak sustatzea, bereziki lehen mailako arreta eta prebentzio sozio-

sanitarioa indartuz, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiarekin bat etorriz.

•Legegintzaldiko helburua

-Adinekoekin estrategia integral bat bultzatzea, adinekoen belaunaldien autonomia, bizitza osoa eta parte-hartze soziala sustatzeko, bai eta hauskortasun- eta mendekotasun-egoerei arreta emateko ere.

-Bizi-itxaropena 85 urtera arte luzatzea.

-Zainketen aldeko itun soziala eta zaintzaileen estatutua bultzatzea.

•Orientazio estrategikoak

-Zahartze aktiboa eta osasungarria sustatzen jarraitzea, eta adinekoen beren gaitasunak eta talentua garatzen laguntzea, bizi-ziklo osoan zehar beren autonomia, bizitza osoa eta gizarte-ekarpena bultzatuz, bai eta gizarte-kohesioa, belaunaldien arteko elkartasuna eta adinekoen eta gazteen bizi-proiektuak sustatzea ere.

-Zahartze aktiboa bizitza osoaren ikuspegian txertatzea, adineko autonomoak zein laguntza eta zaintza gero eta handiagoak behar dituztenak kontuan hartuta.

-EAEko administrazio publikoen lankidetzat sustatzea, adineko pertsonen nahi gabeko bakardadea prebenitzeko eta horri arreta integrala emateko programen garapenean, zahartze osasungarria lortzeko funtsezko faktoretzat hartuta.

-Belaunaldien arteko harremanak sustatzea, batez ere gazteen eta adinekoen artekoak, interakziorako eta trukerako bitarteko gisa, lankidetzat eta elkarrekiko laguntza, elkar ulertzea, errespetua eta ezagutzak eta esperientziak transmititzea bultzatzeko.

-Adinekoen zaintza sozialen eta sanitarioen eredu berri bateranzko trantsizio-politikak bultzatzea, zainketetarako gaitasunen agenda bat landuz, pertsona guztiei beharrezko arreta eskainiko diena profesional kualifikatuak eta kalitatezko enpleguak dituzten profesionalak.

-Familien kontziliazioa eta erantzukidetasuna ziurtatuko duten neurriak sustatzea, erakundearen zaintza eta profesionalizazioa indartuz, zaintzaren sektorean zaintza profesionala eta kalitatezko enpleguak poltsak sortuz, eta lanbide-esperientziaren bidez edo bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak egiaztatze sistemak bat abian jarritik, prestakuntza kualifikatzaile espezializatua sustatuz, profil profesional berriak garatuz eta plangintza estrategikoa eginez, besteak beste, gizonek zainketetan parte hartzea, erantzukidetasunari eta haiei zuzendutako zaintzei buruzko prestakuntza-planak bultzatuz. Era berean, zaintzaren eta erantzukidetasunaren arloko neurriak kontuan hartuko dute telelanak zainketan eta erantzukidetasunean duen eragina.

2. Irizpideak eta jarduerak zahartze osoaren eta osasungarriaren esparruan

•Irizpideak

-Zahartze osoa eta osasungarria sustatzeko politikak indartzea, adinekoekin Euskal Estrategia bat artikulatuz eta garatuz, gizarte-kohesioa eta belaunaldi arteko elkartasuna sustatuz.

-Adinekoen arteko elkarriketa, akordioa eta lankidetzat sustatzea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Adinekoen Batzordea eta Euskadi Langunkoia Sustraiaetik eta Adinekoen Batzordea sustatzen jarraitzea, adinekoen erakunde eta sareetako elkarriketa zibilaren adierazpen gisa.

-Adineko autonomoekin eta autonomia sustatzera bideratutako gizarte-politikak bultzatzea, baita hauskortasun- edo mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonenak ere.

-Belaunaldien arteko lankidetzeta-programak garatzea, adinekoen eta gazteen artean ezagutza transferitzea sustatzeko, bai eta baterako beste ekimen batzuk eta, oro har, belaunaldien arteko elkarrizketa eta lankidetzeta sustatzeko ere.

•Jarduerak

•19. jarduera. Adinekoekin euskal estrategia bultzatzea

Zahartze aktiboa bizitza osoko ikuspegian integratuko duen adineko pertsonetikiko Euskal Estrategia definitzen jarraitzea, adineko autonomoak eta autonomiarako laguntza (zaintza) gero eta handiagoak behar dituztenak kontuan hartuta, eta belaunaldien arteko elkartasunetik abiatuta, adinekoen bizitzako adin-aniztasunari edo faseei eta erretiroari aurre egiteko moduei buruzko eztabaida piztuko duena.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Jarduera hau abian da.
Aurrekontu-zenbatespena	·Estrategiaren definizioa amaitu ondoren sartuko da.

•20. jarduera. Euskadi lagunkoia sustraiaetatik indartzea

Euskadi Lagunkoia Sustraiaetatik indartzen jarraitzea, estrategia tokiko planoarekin lotzeko eta hiri lagunkoiak adinekoekin sustatzeko tresna gisa.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Jarduera hau aktibatuta dago.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan sartuta dago.

3. Zainketen arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Tokiko zaintza-, gizarte- eta osasun-ekosistemak sustatzea landa-ingurunean, zerbitzu ez-presentzialak (BetiON) edo deszentralizatuak (CRADak, adinekoentzako ostatu lagundurako alternatibak...) garatuz, desagertzeko arriskuan dauden landa-guneetan eta koadrila-buruetan (Maeztu...) jardunez, hala dagokionean.

-Zainketen sektorea profesionalizatzea, pertsona ardatz duen zainketa-eredu berriari lotutako enplegu-aukera berriak eta kualifikazio-eskakizunak aztertuz.

-Silver Economy sustatzea, enplegu-aukerak sortzeko ikuspegitik, eta, zehazki, ekimen berritzaileak sustatu eta bultzatzea zaintzaren ekonomiaren sektorearen barruan, sektore hori agerian jarri eta balioetsiz.

•Jarduerak

•21. jarduera. Proiektu pilotuak aktibatzea

Proiektu pilotuak diseinatu eta aktibatzea, definitutako jarduera-irizpideen arabera, ingurune hurbilenean edo etxean ahultasun-egoeran dauden adinekoek arreta zabaltzea eta indartzea ahalbidetuko dutenak.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Jarduera hau aktibatuta dago.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan sartuta dago.

•22. jarduera. Arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea

EAEko 60 urtetik gorako pertsonen artean, arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea ahalbidetuko duen tresna bat eraikitzea, iragarpen-faktore jakin batzuk definituz eta mailakatuz.

Arlo arduraduna	·Osasun Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an, lehen txostena.
Aurrekontu-zenbatespena	·Tresna zehaztu ondoren txertatuko da.

•23. jarduera. Belaunaldi-erlebozko zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea

Belaunaldien arteko errelebo-zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea eta abian jartzea hirugarren sektoreko erakunde, enpresa eta antolakundeetan.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Proposamenaren lehen zirriborroa 2023an.
Aurrekontu-zenbatespena	·Estrategia diseinatu ondoren txertatuko da.

•IV. ardatza, jarduera estrategikoa: Migranteen gizarteratzea

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Erakartzeko jarduera-ildo bat zehaztu eta garatzea, migratzaileak iristeko zailtasunak gainditzeko, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza-ibilbideak eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide erabilgarri eta eskuragarriak ezartzea.

•Lan-hipotesiak

-Gure herriaren demografiak migratzaileen ekarpena behar du. Horretarako lehenengo helburua integrazioa da. Premisa da bizileku- eta lan-baimenen arloko baldintzak aldatzea eta erraztea. Hala ere, ahalmen hori EAEko eskumen-eremutik kanpo dago. Bien bitartean, eta euskal erakundeek eskumenen barruan, lehentasunezkoa da gizarteratzea eta laneratzeko, eta, horretarako, beharrezkoa da ibilbide lagunduak eta sustatuak zehaztea, prestakuntza, trebakuntza, kualifikazioa, homologazioa eta profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko.

•2030erako helburuak

-Gizarteratzeko eta Integratzeko Euskal Indize sintetikoaren oinarritzko zazpi dimentsioak % 10 handitzea, migratzaileak Euskadin integratzeari dagokionez, inoren kargura ez dauden adingabeak izateari uzten dioten gazte migratzaileak barne.

•Legegintzaldiko helburuak

-Migrazio-arloko eginkizunak eta zerbitzuak transferitzea, euskal administrazioak bere gain hartu ahal izan dezan lan-baimenen eta Euskadiren eskumen-tituluetan sar daitezkeen jarduera guztien kudeaketa.

-Migratzaileak iristeko zailtasunak ahal den neurrian murriztea eta harrerako euskal eredia definitzea eta bultzatzea.

-Migratzaileen prestakuntza-, gaikuntza-, kualifikazio-, homologazio- eta profesionaltasun-ziurtagirako ibilbideak definitzea, bai eta gizarteratze- eta laneratze-ibilbide erabilgarriak eta eskuragarriak ere.

•Orientazio estrategikoak

-Migraziorako Euskal Itun Soziala da euskal erakundeek eta gizarte-eragileek estrategia partekatua definitzen duen esparru orokorra, migratzaileen eta asilo-eskatzaileen harreraren eta integrazioaren arloan.

-Migratzaile guztiei harrera duina eta inolako diskriminaziorik gabea bermatzea eta herritarrentzat aurreikusitako sistemetatik erantzun egokia ematea.

-Herritarren, Immigrazioaren eta Asiloaren VI. Kulturarteko Plana (2022-2025), babes-sistemak eta gizarte-zerbitzuak, aurreikusitako neurriak, zerbitzuak eta baliabideak egokitztea eta indartzea, egoera bakoitzari behar bezala, duintasunez eta behar bezala erantzun ahal izateko.

2. Migratzaileak gizarteratzeko irizpideak eta jarduerak**•Irizpideak**

-Estatuko Gobernuari migrazio-arloko eginkizunak eta zerbitzuak transferitzeko eskatzen jarraitzea, Immigrazioari buruzko Euskal Itun Sozialean adostutako kontzeptu- eta programa-esparruan oinarrituta, migrazioa Euskadin erakartzeko, hartzeko eta integartzeko eredu bat gara dezan.

-Migratzaileei eta errefuxiatuei Euskadin kokatzeko eta gizarteratzeko beharrezkoak diren izapideak egiten laguntzea, bai eta gizarte-babeseko sistemetara iristeko prozesuan laguntzea ere, laguntza horiek beren egoera eta behar espezifikoetara egokituz.

•Jarduerak**•24. jarduera. Migraziorako Euskal Itun Sozialaren garapena eta urteko ebaluazioa**

Migraziorako Euskal Itun Soziala garatzen jarraitzea, itun horrekiko atxikimendua gizartean eta erakundeetan zabaltzea, eta haren betetze-mailaren jarraipena eta urteko ebaluazioa egitea.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Urteko memoria eta ebaluazioa.
Aurrekontu-zenbatespena	·Jarduera berrien urteko memoria bakoitzarekin batera gehituko da.

•25. jarduera. Transferentzia lehenestea asilo-migrazioaren arloan, eta migratzaileak hartzeko eta integartzeko euskal eredia diseinatzea

Migrazioaren eta asiloaren arloko eskumenetik egiteke dauden transferentzien egutegian lehentasunezko izaerari eustea. Hori oinarri hartuta, migratzaileen ha-

rrerarako eta integraziorako euskal eredua diseinatu eta abian jartzea. Ereduek horren barruan, laguntza pertsonalizatuko euskal zerbitzu bat egongo da, migratzaileak gizarteratzera eta laneratzera bideratua, Gobernu Programaren 90. konpromisoaren 5. ekimenean aurreikusitakoaren ildotik.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Transferentziaren gauzatzearen arabera.
Aurrekontu-zenbatespena	·Definizioa egin ondoren sartuko da.

3. Gizarteratzearen eta laneratzearen eta mugikortasunaren arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Migratzaileak laneratzeko ibilbide pertsonalizatuen lana indartzea, ikuspegi integral eta zeharkako batetik, orientazioaren, prestakuntzaren eta erregularizazio-prozesuetan laguntzearen bitartez, lan-eremura igarotzea ahalbidetzeko (Enplegu Zerbitzu Publikoa).

-Migratzaileak erakartzera bideratutako jarduera eta ekimen berritzaileak garatzea, lan-merkatuaren beharrei erantzuteko.

-Enplegu-zerbitzu publikoaren esparruan, eta beste administrazio batzuekin lankidetzan, migratzaileak laneratzeko sektore arteko programak garatzea, lan-merkatuan enplegu duineko baldintzetan sartzeko erregularizazio-prozesua hasi eta amaitu ahal izateko.

-Gazteen eta migrazioen mugikortasun-proiektuei laguntzea, pertsona eta familia gazteak erakartzen, atxikitzen eta itzultzen laguntzeko, edo, hala badagokio, Euskadin jaio edo bizi izandakoak orain Euskaditik kanpo bizi direnak euskal instituzioek, enpresek edo erakundeek parte hartzen duten ekimenekin lotzeko.

•Jarduerak

•26. jarduera. Talentua atxikitze, garatzeko eta erakartzeko programa bat abian jartzea

Talentua Euskadin atxiki, garatu eta zentzuz erakartzeko programa espezifiko bat abian jartzea, Gazteen Legean aurreikusitakoaren esparruan.

Arlo arduraduna	·Gazteria Zuzendaritza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an zehar.
Aurrekontu-zenbatespena	·Definizioa egin ondoren sartuko da.

•27. jarduera. Euskarri Estrategia garatzea

Helduarora igarotzeko prozesuetan, familiarentzako laguntza-sarerik ez duten gazteei laguntzeko programa pilotua eta Euskarri Estrategia garatzen jarraitzea, gazte horiek migratzaileak izan edo ez izan, eta babes-saretik kanpo egon ala ez.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·Jarduera hau aktibatuta dago.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan sartuta dago.

HIRUGARREN ATALA

Zeharkako jarduera-ildoak

•1. ildoak, zeharkako jarduera: **Landa-balioa handitzea**

1. Esparrua

•Zeharkako jardun-ildo honen deskribapen sintetikoa

-Landa-garapenerako politika integrala bultzatzea, lurralde-orekan eta gizarte-kohesioan oinarritua, landa-ingurunearen zahartzea eta despoblazioa lehengoratzeko lagunduko duena eta Euskadiko landa-eremuak bizitzeko eta jarduera sozioekonomiko bideragarriak eta jasangarriak egiteko gune erakargarriak izan daitezen lortuko duena, hau da, bizi-kalitatearekin eta lehiakortasunarekin.

•Lan-hipotesiak

-Osasun demografikoak hiri-eremuaren eta landa-eremuaren arteko harreman ekologikoa dakar. Horretarako, baldintza egokiak sustatu eta babestu behar dira, landa-ingurunearen berezko proiektu sozioekonomikoen bideragarritasun- eta populazio-desorekak birbideratzeko.

•2030erako helburuak

-Landa-ingurunea zahartzeko eta despoblartzeko joera epe laburrean geldiaraztea eta 2030erako lehengoratzeko, natura-ingurunearen edo populazio txikiaren berezko jardura sozioekonomikoak proiektu erakargarri, bideragarri eta jasangarriak izan daitezen lagunduz.

-Landa-biztanleriaren hazkundea sustatzea, bai igoerak izaten hasi diren eskualdeetan, bai beherakadak izan dituzten eskualdeetan, Euskal Herriko Unibertsitateak egindako "Arabako despoblazio-prozesuaren azterketa demografikoa, azterketa eta diagnostikoa (2021)" oinarri hartuta.

•Legegintzaldiko helburuak

-Landa Ingurunearen Garapenerako Lege berria onartzea eta abian jartzea, bai eta lege horretatik eratortzen diren gobernantzarako tresna eta formula berriak ere, eta NPBren hurrengo Plan Estrategikoko 2. oinarriko neurriak diseinatzea (Landa Garapena). Neurri horiek izango dira 2023-2027 programazio-aldian abian jarriko diren laguntza-programen oinarri.

-Smart Villages kontzeptua eta gizarte-berrikuntza sakontzea, landa-eremuen garapen sozioekonomikoari laguntzen dioten elementuak diren aldetik.

•Orientazio estrategikoak

-Erronka demografikoari buruzko estrategia honetan, zeharkako izaerarekin mantentzea hiri- eta landa-dimentsio bikoitza jarduerak aurreikustean, diseinatzean eta aplikatzean, landa-inguruneak planteatzen dituen premia berezietara egokitze eta horiei erantzuteko jarraibide espezifikoak ezarri.

-Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren oinarria lurraldeen arteko oreka eta kohesioa bilatzea da, eta aitortzen du landa-eremuetako herritarrek, hiriburuen eremu geografikoan bizi ez direnek, zerbitzuak eskuratzeko eta garraio publikoa izateko duten eskubidea.

-Elikadura-kateari buruzko Legea betetzea, lehen sektoreko produktuei bidezko prezioak bermatzeko eta familien errentagarritasun ekonomikoa eta jasangarritasuna eta landa-eremuko bizi-proiektuak bultzatzeko.

2. Jarduerak

•28. jarduera. Landa Garapeneko Legea onartzea

Landa Garapeneko Legea onartzea eta haren aurreikuspenak garatzea.

Arlo arduraduna	·Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politi- kako Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2022an eta erregelamendu-garapenean 2023an.
Aurrekontu-zenbatespena	·Onartu ondoren sartuko da.

•29. jarduera. Landa-ingurunearekin lotzeko pizgarriei buruzko azterlana egitea

Lehen azterlan bat egitea, bertako zein migratzaile gazteentzako pizgarri-programa bat definitzera bideratua, landa-ingurune bizi-proiektuekin lotzea sustatzeko.

Arlo arduraduna	·Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politi- kako Sailburuordetza ·Gazteria Zuzendaritza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an.
Aurrekontu-zenbatespena	·Azterketa egin ondoren sartuko da.

•2. ildo, zeharkako jarduera: **Prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa**

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Gai demografikoa lehentasunezko arreta sozialeko, politikoko eta instituzionaleko lehentasunen agendan kokatzera bideratutako prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-ekimenak modu artikulatuan garatzea. 2022tik aurrera, maiatzean “Maiatza demografikoa” izeneko demografiari buruzko urteko promozioan jarriko da arreta. Aldi horretan, urtero, erakundeen publizitate-kanpainak, dibulgazio-ekimenak, biltzarrak, jardunaldiak edo mintegiak sustatuko dira, berariazko azterlanak argitaratuko dira eta balantzeak eta jarduera-planak aurkeztuko dira. Komunikabideak gai horri buruzko informazio, erreportaje edo kroniken bidez gonbidatuko dira ekarpenak egitera.

•Lan-hipotesiak

-Arazo demografikoak ez du, orain arte, garrantzi estrategikoarekin bat datorren arreta-mailarik erakarri. Ez du lehentasunezko esparru nahikorik lortu agenda publikoan, ez Legebiltzarrean, ez hedabideetan, ez gizarte-kezken artean. Beharrezkoa da ahaleginak etengabe inbertitzea prospekzio, dibulgazio eta komunikazioan. Konponbide-prozesuek gizarte informatua eta gai honen konplexutasunaren jakitun eskatzen dute.

•2030erako helburua

-Urtero, maiatzean, erakunde-maila guztietatik (udalak, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza), hirugarren sektoretik, ekimen pribatutik edo unibertsitate- eta ikasketa-esparrutik datorren erroka demografikoari buruzko hausnarketa-, dibulgazio- eta proposamen-ekimenak elkartzea ahalbidetuko duen dinamika sendotzea.

-Prospekzio-tresnak artikulatzea, modu erregularrean eta jarraituan diagnostiko sako-nak egin ahal izateko, bai emantzipazio berantiarrean edo jaiotza-tasan eragina duten faktoreei buruz, bai errealitate demografiko osoari buruz eta horren bilakaerari, kauseri eta ondorioei buruz.

-Kontzientzia sozial eraikitzailea sendotzea problematika demografikoari dagokionez, eta sinergia eta *auzolanaren* pentsaera bultzatzea.

•Legegintzaldiko helburua

-Gai demografikoa lehentasunezko arreta sozial, politiko eta instituzionaleko lehenta-sunen agendan kokatzera bideratutako prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-eki-menak modu artikulatuan garatzea.

-Erronka demografikoari buruzko gizarte-kontzientzia kritikoa sortzen laguntzea, bai eta erantzunkidetasuna eta belaunaldien arteko konpromisoa bezalako balioak sustatzen ere.

-Demografiaren erronkari erantzun konstruktiboa emateko erakundeek herritarren zer-bitzura jartzen dituzten neurriei buruzko informazio argia eta eraginkorra eskaintzea.

•Orientazio estrategikoak

-Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak garatzea, gai demografikoa arreta sozial, poli-tiko eta instituzionaleko lehentasunen agendan kokatzera bideratutako komunikazio-ka-nal guztietara joz.

-Sail bakoitzak eta GAZ zerbitzuak gazteen emantzipazioa errazteko eta familia-proiek-tuak eraikitzeke eskura dauden ekimen publiko guztien berri izan dezaten sustatzea, bai prestazio eta laguntza ekonomikoei dagokienez, bai kontziliazioari, hezkuntzari, etxebizitzari edo enpleguari dagokienez.

-Erronka Demografikorako 2030 Estrategian jasotako lan-ildoak garatzea, garapen-pro-zesu osoan beharrezkoak diren partaidetza- eta ebaluazio-tresnak sustatuz, eta propo-samenak gauzatzeko behar adina partida ekonomiko izatea.

2. Jarduerak

•30. jarduera. Urteko prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-plan bat garatzea

Urtero, erronka demografikoari buruzko prospekzio, dibulgazio eta komunikazio sozialaren arloko lan-plana egitea, "Maiatza demografikoa"ren programazioa bar-nean hartuta.

Arlo arduraduna	· <i>Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.</i>
Abian jartzeko egutegia	· <i>Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan.</i>
Aurrekontu-zenbatespena	· <i>300.000 euro urtean.</i>

•31. jarduera. Aldian behingo azterlan prospektiboak egitea

Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin eta EUSTATEkin lankidetzan, demogra-fia-errealitatea etengabe aztertzeke prozesu bat egitea, bai eta demografiaren bi-lakaera, kausak eta ondorioak aztertzeke prozesu bat ere, prospekzioko, dibulgazio-ko eta komunikazioko urteko planetan sartuko diren lanen programazio batekin.

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Abian jartzeko egutegia	·Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan.
Aurrekontu-zenbatespena	·30. jardueran sartuta.

•32. jarduera. Erronka demografikoak enpleguan dituen ondorioen azterketa bultzatzea

2022ko martxoaren 15ean Euskadiko Elkarriketa Sozialaren Mahaiaren Lan Planean jada adostu zen demografiak enpleguan duen erronkaren ondorioei buruzko azterketa egitea. Azterketa hori hiru aldeko elkarriketan egingo da sindikatuekin, enpresa-elkarteekin eta gobernuekin, eta Eusko Legebiltzarrera bidaliko da amaitutakoan.

Arlo arduraduna	·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Abian jartzeko egutegia	·2023an zehar.
Aurrekontu-zenbatespena	·Hala badagokio, amaitu ondoren sartuko da.

•33. jarduera. Baliabideen gida bat egitea eta zabaltzea

Baliabideen gida bat egitea, gazteen emantzipazioa errazteko eta familia-proiektuak eraikitzeke eskura dauden ekimen publiko guztien ezagutza sustatzeko, bai prestazio eta laguntza ekonomikoek dagokienez, bai kontziliazio, hezkuntza, etxebizitza edo enpleguaren arloan.

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Abian jartzeko egutegia	·2023ko lehen sei hilekoa.
Aurrekontu-zenbatespena	·Hala badagokio, amaitu ondoren sartuko da.

•3. ildo, zeharkako jarduera: Aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Aginte-taula integral bat eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sistema bat izatea, estrategia horren barruan aktibatzen diren neurrien eta politiken bilakaera demografikoa eta eragina baloratu ahal izateko. Aurrekontu-aurreikuspenarekin batera, aginte-taula hori metodologikoki osatuko da jarraipeneko urteko memoriekin eta hiru urtean behin egingo diren ebaluazio-prozesuekin. Bi tresna horiek Erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategian une bakoitzean sartu ahal izango diren neurri zuzentzaileak identifikatzera bideratuko dira.

•Lan-hipotesiak

-Estrategiaren azken helburua da biztanleriaren piramidearen oreka berreskuratzea eta euskal gizartea gaztetzea. Ildo horretan, gazteen emantzipazioa eta familia-proiektuen eraikuntza funtsezko faktoreak dira. Edonola ere, eta gai konplexu

honetan, estrategia hasierako diagnostikoetatik abiatuta diseinatzen da, eta diagnostiko horiek ezin dira itxi. *Trantsizio-politikak kudeatzeko* testuinguruan sortu behar dira, definizioz politika horiek etengabe hobetzera irekita. Alde horretatik, jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak funtsezkoak dira. Erronka demografikoaren inguruko *ikaskuntza-komunitate* bat sustatzeko aukera ere ematen dute, Euskadin sail guztiek, gainerako erakundeek eta lau sektoreek (publikoa, pribatua, soziala, komunitarioa) parte har dezaten, baita unibertsitateek eta beste ezagutza-zentro batzuek ere, helize laukoitzeko ikuspegitik.

•2030erako helburua

-Demografiaren erronkari heltzeko prozesu metodologiko bat sendotzea, datuetan, ekintza-hausnarketa-ekintzan eta neurrien zuzenketan eta doikuntzan oinarrituta, estrategia kudeatzeko aginte-taula integral, sinple eta garrantzitsu baten adierazleetatik abiatuta, helburu eta faktore giltzarriak lotuta.

-Estrategiaren tarteko bi ebaluazio-prozesu garatzea, 2025eko eta 2028ko lehen seihilekoan aurkezteko, baita amaierako ebaluazio bat ere, 2031ko lehen seihilekoan aurkezteko.

•Legegintzaldiko helburua

-Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian jasotako aurreikuspenak eta jarduerak betetzen direla egiaztatzeke jarraipen-memoriak egitea urtero.

-Urteko aurrekontuetan "Lehen ataleko Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktu-irizpidearekin" jardueretarako erabiliko diren aurrekontu-baliabideak jasotzea, bai eta sailen ohiko aurrekontutik aparteko gastu bat edo gastu gehigarri bat ekar dezaketenak ere.

•Orientazio estrategikoak

-Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia esparru-estrategia gisa ezartzea, diagnostiko eta ebaluazio jarraitu, ireki eta esperientziatik abiatuta alda daitekeen baten oinarrituta.

-PDCA ziklo bat metodologikoki garatzea (planifikatzea [Plana], egitea [Do], egiaztatzea [Check] eta jardutea [Act]), *erronka demografikoaren kudeaketaren* inguruan, zeina, ikaskuntza-testuinguru horretan eta saiakera gisa, honela ulertzen baita:

- bizi-ziklo osoa kontuan hartuta, biztanleria-piramidearen oreka egokia, nahitaez eze-gonkorra, eratzea eta mantentzea;

- komunitate batek behar adina biztanle izan ditzan, profil eta gaitasun egokiak izan ditzan, eta banaketa egokia izan dezan (adinez, geografikoki...), garapen ekonomikoa, bizi-kalitatea eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bermatzeko;

- halako moldez non pertsonak eta familiek beren bizi-proiektuak hedatu ahal izango dituzten, autodeterminatuz, beren aukeren arabera eta ahalik eta autonomia handienarekin.

2. Jarduerak

•34. jarduera. Aurrekontuaren isla

Urteko aurrekontuetan lehen ataleko jardueretarako erabiliko diren baliabideak adieraztea. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktu-irizpidearekin, bai eta sailen ohiko aurrekontutik aparteko gastu bat edo gastu gehigarri bat ekar dezaketenak ere.

Arlo arduraduna	·Ogasun Saila.
Abian jartzeko egutegia	·Urtero, aurrekontu-prozesuan.
Aurrekontu-zenbatespena	·Jarduera bakoitzaren ardura duen sail bakoitzari dagokio kasu bakoitzean dagokion aurrekontu-islara garatu, zehaztu eta jasotzea, dagozkion prozeduren bitartez (*).

(*) **1. oharra.** Lehen ataleko jardueren aurrekontu-zenbatespen hau. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktuaren irizpideari jarraikiz, garatu nahi den ekimenaren dimentsioaren adierazle gisa hartu behar da.

·Hilean 200 euroko zuzeneko laguntzak	
Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko, hiru urte bete arte:	125.000.000
·Ekintzailatza, pertsonen prestakuntza edo etxebizitza	
Gazteak (zehaztu gabe, aurretik azterlana egin ondoren)	20.000.000
·0-2 urteko etaparen doakotasuna,	
Haurreskolak Partzuergoarena (ikasturte osorako))	7.000.000

(*) **2. oharra.** Bigarren eta hirugarren ataletan, jarduera asko sendotzen ari diren eta dagokion arlo edo sailaren aurrekontu arruntean islatuko diren abiarazitako jardueri dagozkio; beste jarduera batzuek, beren izaeragatik, ez dute aurrekontu-eragin gehigarririk, eta, azkenik, beste kasu batzuetan, lehen fasean aurreikusitako txosten-, diseinu- edo zehaztapen-tresnak amaitzeak baldintzatuko du haien aurrekontu-islara.

(*) **3. oharra.** Urteko aurrekontuek, urteko jarraipen-memoriek eta aurreikusitako ebaluazio-prozesuek estrategia horretara bideratutako baliabide gehigarriak islatu behar dituzte, bai lehen ataleko jarduera berriei dagokienez, bai oraindik diseinu-fasean dauden edo ekimen berriak ebaluatzen eta txertatzeko prozesuetatik datozen ekimenak zehaztearen ondoriozko jardueri dagokienez.

·35. jarduera. Urteko jarraipen-memoriak egitea

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian jasotako aurreikuspenen eta jardueren betetze-mailari buruzko urteko jarraipen-memoriak egitea, bai eta horiek aurrekontuan duten isla ere.

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Abian jartzeko egutegia	·Urtero, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, 2024tik aurrera.
Aurrekontu-zenbatespena	·Aurrekontuan eraginik ez dauka.

·36. jarduera. Ebaluazio-prozesuak bultzatzea

2025eko eta 2028ko lehen seihilekoan aurkeztu behar diren tarteko ebaluazio-prozesuen diseinua eta enkargua eta 2031ko lehen seihilekoan amaitu behar den azken ebaluazioa planifikatzea. Hiru ebaluazio-prozesu horiek Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren Aginte Taula Integrala erabiliko dute Eranskinean aurkeztu dena. Aginte-taula hori 3 adierazle-multzotan egituratzen da: egoera, helburuak eta funtsezko faktoreak.

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Abian jartzeko egutegia	·2024an tarteko lehen ebaluazio-prozesua prestatzea.
Aurrekontu-zenbatespena	·Prozesuaren definizioa zehaztu ondoren, aurrekontua egingo da.

ERANSKINA

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren

Aginte-taula integrala

1. Aurkezpena

Aginte-taula integral bat osatu da, adierazle garrantzitsuen kopuru txiki batekin, demografia-erronkaren kudeaketan funtsezkoak diren helburu eta faktoreen aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Lerroetan, aginte-taula 3 bloke handitan egituratzen da, adierazle moten arabera: egoera-adierazleak, testuinguruari eta joera demografikoei dagozkienak; adierazle/helburuak, estrategiaren emaitzekin lotutakoak; eta adierazle/faktore giltzarriak, helburuak lortzeko eragina izan dezaketen faktoreei buruzko hipotesietan oinarrituak.

Lehenengoei funtsezko bi joeraren handitasunaren irudia ematen dute: biztanleriaren zahartzea eta biztanleria landunaren ordezkapen eraginkorrerako zailtasuna. Bigarrenek estrategiaren bost ardatzetako bakoitzean lortu nahi diren emaitzak jorratzen dituzte. Azken horiek estrategiaren proposamenen eragina neurtzen laguntzen dute.

Zutabeetan, aginte-taula erronka demografikoaren kudeaketari buruzko serie historiko bat edukitzeko egituratzen da. Lehenengo zutabeak ardatz bakoitzaren adierazleak ematen ditu, eta gainerakoak denboran zehar neurtuko dira. Bigarren zutabeak ("jatorria") adierazlearen abiapuntua islatzen du, datuen jatorri diren eragiketen aldizkakotasunaren arabera eskuragarri dagoen azken datuaren data kontuan hartuta. Hala, onena ez bada ere, jatorrizko datuak 2018, 2019, 2020 eta 2021ekoak dira. Nolanahi ere, adierazle guztiak 2022tik 2023ra bitartean eguneratzea espero da, eta horrek aukera emango du serie historiko bat ezartzeko.

2. Aginte-koadroaren ezaugarri nagusiak

Koadro homogeneoa da ardatz bakoitzeko adierazle-kopuruari dagokionez, eta garrantziera ematen die estrategiaren ardatz guztiei. Adierazle-helburuetan ardatz bakoitzeko 3 adierazle aurkezten dira; adierazle-faktore giltzarrietan, berriz, 6 sartzen dira.

Adierazleak helburuekin eta horiek lortzeko funtsezko faktoreekin lotuta daude, baita helburuen jomuga diren taldeekin ere. Esate baterako, 1. ardatzean (gazteen emantzipazioa), adierazleak 16-29 urteko jomuga-taldean zentratzen dira, gazteen emantzipazio-tasa izan ezik; izan ere, Europako beste eskualde batzuekin alderatzeko aukera dela-eta, 18-34 urteetan dago ezarrita. Adinekoei buruzko 3. ardatzean, aldiz, adierazle gehienak 65 urtetik gorako kolektiboari buruzkoak dira.

Sartutako adierazle guztiak eskuragarri daude, aldizka argitaratzen dira eta iturri estatistiko fidagarrietatik datoz, eta Europa mailan konpara daitezke. Batzuek herrialdeko helburuekin edo gobernu-programako beste batzuekin dute zerikusia, bai eta 2030 Agendarekin edo Gizarte Eskubideen Europako Zutabearekin ere (ikus gizarte-adierazleen taula berrikusia, Zutabearen Ekintza Plana barne hartzen duena).

Europar Batasuneko beste eskualde batzuekin eta eskualdeko biztanleria-estatistikekin konparatzeko diseinatutako adierazleak dira¹. NUTS3 (lurralde historikoak) edo NUTS2

1 Bereziki interesgarriak dira honako hauek: a) biztanleriaren egitura adin-talde handien arabera

(EAE) mailan erabilgarri dauden adierazleak kontuan hartzen saiatu gara. NUTS: Estatistikako Lurralde Unitateen nomenklatura.

Adierazleak, ahal den neurrian, adinaren, sexuaren, jatorriaren (jaioterria) eta desgaitasun-egoeraren arabera bereizi beharko lirateke, GJHPan aurreikusitakoaren ildotik. Gazteei buruzkoak bi adin-tartetan (18-24, 25-29) bereizten saiatu beharko lirateke, emantzipazioak izan ezik (18-34).

Komeni da azpimarratzea zeharkako emaitzen ebaluazioaren adierazle izango dela jarduera, proiektu, zerbitzu edo programa batean parte hartu ondoren emantzipatzen diren gazteen kopurua, bai eta estrategiaren ekimenetan parte hartzen duten gazte emantzipatuen kopurua ere, haien emantzipazio-prozesua eta bizi-proiektu autonomoa sendotzeko.

Azkenik, adierazle guztiak hobetu daitezke, eta adierazleak hobetzeko/aldatzeko proposamen arrazoituek aginte-taula integral ahalik eta osoena eta alderagarriena lortzen laguntzen dute.

ra; b) hirugarren adinekoen mendekotasun-tasa; c) aldaketa demografikoaren batez besteko tasa gordina; d) biztanleriaren batez besteko aldaketa-tasa gordina; e) batez besteko migrazio-tasa gordina; f) jaiotza-tasa gordina; g) ugalkortasun-tasa osoa; h) jaiotzako bizi-itxaropena. Hasiera batean, horiek guztiak NUTS3 eskualdearen (gure ondorioetarako, lurralde historikoen) edo NUTS2 eskualdearen (Espainiako estatuaren kasuan, autonomia-erkidegoak) arabera bereizita lor daitezke. NUTS = Estatistikako Lurralde Unitateen Nomenklatura. Ikusi: [#https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?Title=Population_statistics_at_regional_level](https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?Title=Population_statistics_at_regional_level) #Regional_populations

3. AGINTE-TAULA INTEGRALAREN ADIERAZLEAK

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia kudeatzeko

A. EGOERA-ADIERAZLEAK				
	Jatorria	2024	2027	2030
Biztanleriaren egitura, adin-taldean, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera	(2021)			
Araba: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak)	32.911 / 30.821			
20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak)	97.570 / 97.519			
65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	31.756 / 39.612			
Bizkaia: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak)	103.006 / 96.647			
20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak)	335.152 / 341.537			
65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	112.379 / 155.402			
Gipuzkoa: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak)	70.230 / 66.119			
20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak)	209.835 / 207.799			
65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	71.202 / 93.702			
Hazkunde begetatiboa, lurralde historikoaren arabera	(2020)			
	Ar: -869			
	Bi: -5.925			
	Gi: -2.714			
Biztanleria aktiboaren ordezte-indizea	(2021) 1,47			
Biztanleria aktiboaren eta ez-aktiboaren arteko oreka	(2022, 1. hiruh.) 1,29			

B. HELBURUEN ADIERAZLEAK				
	Jatorria	2024	2027	2030
1.1. Emantzipatzeko batez besteko adina	(2019) 30,2			
1.2. Emantzipazio-adin ideala, gazteen iritzia (15-29 urte)	(2020) 24,5			
1.3. Gazteen emantzipazio-tasa (18-34 urte)	(2020) % 35,1			
2.1. Jaiotza-tasa, lurralde historikoaren arabera	(2020) Ar: 7,26 Bi: 6,41 Gi: 7,01			
2.2. Lehen seme-alaba izateko batez besteko adina, lurralde historikoaren arabera	(2020) Ar: 31,68 Bi: 32,32 Gi: 31,95			
2.3. Ugalkortasun-adierazle koiunturala, lurralde historikoaren arabera	(2020) Ar: 1,29 Bi: 1,19 Gi: 1,32			
3.1. Bizi-itxaropena jaiotzean, sexuaren arabera	(2019) G. 80,9 E. 86,7			
3.2. Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena, sexuaren arabera	(2018) G. 70,5 E. 72,8			
3.3. Benetako erretiro-adina	(2021, 3. hiruh.) 64,2			
4.1. Immigrazio-tasa	(2019) 15,8			

B. HELBURUEN ADIERAZLEAK				
	Jatorria	2024	2027	2030
4.2. Atzerriarekiko migrazio-saldoa, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera	(2020) Ar: G. 351 Ar: E. 443 Bi: G. 1.902 Bi: E. 2.330 Gi: G. 1.165 Gi: E. 1.362			
4.3. Biztanleria jaioterri-talde handien (kontinenteak) arabera	(2022, 1. hiruh.) Europa: 47.504 Afrika: 54.776 Amerika: 133.860 Asia: 16.454 Ozeania: 444 Guztira: 253.038			
5.1. Biztanleria-dentsitatea, lurralde historikoaren arabera	(2019) Ar: 109,2 Bi: 517,0 Gi: 362,3			
5.2. Landa-eremuetan bizi diren biztanleen ehunekoa	(2021) % 3,80			

B. HELBURUEN ADIERAZLEAK

	Jatorria	2024	2027	2030
5.3. Lehen sektorearen ehunekoa/BPG (guztizko enpleguaren gaineko banakapena)	(2020) BPG: % 0,79 Enplegua, guztira: % 1,71			

C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK

	Jatorria	2024	2027	2030
1.1. Gazteen okupazio-tasa (16-29 urte)	(2022, 1. hiruh.) % 42,9			
1.2. Gazteen langabezia-tasa (16-29 urte)	(2022, 1. hiruh.) % 14,6			
1.3. Gazteen behin-behinekotasun tasa (16-29 urte)	(2021) % 65,5			
1.4. Aldi baterako kontratuetatik mugagabeko kontratuatarako trantsizio-tasa (16-29 urte)	(2021) % 3,1			
1.5. Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren tasa (30-34 urte)	(2020) % 59,6			
1.6. Unibertsitate-ikasketak amaitu eta 3 urtera graduatu berrien (20-34 urte) okupazio-tasa	(2020) % 80,7			
2.1. Alokairu-erregimeneko familien ehunekoa	(2020) % 14,6			
2.2. Alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko finantza-ahalegina (18-29 urte)	(2020) % 61,7			
2.3. Seme-alaba bakoitzeko jaiotza-tasarako laguntzen batez besteko guztizko zenbatekoa	(2020) 796			
2.4. Kontziliazio-neurriak dituzten hirugarren sektore sozialeko enpresen eta erakundeen kopurua	(2021) 25			
2.5. Eskola uztearen tasa	(2020) % 6,5			
2.6. 2 urteko haurren eskolatze-tasa	(2019) % 93,1			
3.1. Zahartze-indizea, lurralde historikoaren arabera	(2021) Ar: % 139,07 Bi: % 168,18 Gi: % 153,46			
3.2. Zahartze aktiboaren indizea	(2020) 37,3			

C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK				
	Jatorria	2024	2027	2030
3.3. Mendekotasun-tasa, lurralde historikoaren arabera	(2021) Ar: % 60,06 Bi: % 60,24 Gi: % 61,43			
3.4. Etxeko pertsona helduen zaintzan partaide bakoitzak egunean batez beste ematen duen denbora, sexuaren arabera	(2018) G: 2:09 E: 2:05			
3.5. Erostea ahalmenaren parekotasunean gizarte-babesean egindako gastu publikoa	(2018) 9.022€			
3.6. Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuak komunitatean dituen plazen ehunekoa (egoitza-zentroetako plazak kontuan hartu gabe) Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuak kontingentziengatik dituen plaza guztiei dagokienez	(2019) Mendekotasuna: % 29,0 Bazterketa: % 79,6 Babesgabetasuna: % 13,6 Desgaitasuna: % 62,8			
4.1. Biztanleria etorkinaren okupazio-tasa sexuaren arabera	(2020) G: % 60,5 E: % 48,8			
4.2. Etorkinen langabezia-tasa sexuaren arabera	(2020) G: % 18,4 E: % 23,0			
4.3. Atzeritar jatorriko (16-66 urte) biztanle landu- nen ehunekoa, lanbide/okupazio motaren arabera	(2018) Zuzendaria/teknikaria % 15,3 Lang. Kualifikatua % 54 Lang. Ez-kualifikazioa % 27,4 Bestelakoa: % 3,3			
4.4. Emakume etorkinen jaiotza-tasa	(2020) 22,72			

C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK

	Jatorria	2024	2027	2030
4.5. Datozen 5 urteetan EAEn geratzeko asmoa duten 16 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren, enpleguaren eta gizarte-harremanen arloko itxaropenen eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera	(2018) <u>Etxebizitza</u> Mendebaldeko EB: % 11,4 Europako beste herrialde batzuk: % 26,5 Latinoamerika: % 20,67 Afrika: % 12,32 Txina: % 15,0 Munduko gainerakoa: % 16,3 <u>Hobekuntzak enpleguan</u> Mendebaldeko EB: % 20,7 Europako beste herrialde batzuk: % 49,9 Latinoamerika: % 56,30 Afrika: % 58,81 Txina: % 19 Munduko gainerakoa: % 44,9 <u>Tokiko biztanleriazioa</u> Mendebaldeko EB: % 0,6 Europako beste herrialde batzuk: % 5,8 Latinoamerika: % 8,10 Afrika: % 7,40 Txina: % 16,5 Munduko gainerakoa: % 7,40			

C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK

	Jatorria	2024	2027	2030
4.6. EAEn jaio eta atzerritik Euskadira itzultzen diren pertsonen (18-34 urte) ehunekoa aldi horretan atzerrira emigratzen duten EAEko gazte guztiekiko, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera.	(2020) Ar: G. % 53,8 Ar: E. % 38,5 Bi: G. % 58,2 Bi: E. % 38,6 Gi: G. % 60,2 Gi: E. % 56,8			
5.1. Landa-eremuetako biztanleriaren egitura, adin-taldean, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera	(2021)			
Araba				
19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak)	2.959 / 2.714			
20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak)	9.833 / 8.305			
65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	3.234 / 3.192			
Bizkaia:				
19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak)	5.496 / 5.030			
20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak)	16.980 / 16.445			
65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	5.497 / 6.798			
5.2. Landa-eremuen zahartze-indizea, lurralde historikoaren arabera	(2021) Ar: % 113,27 Bi: % 116,81			
5.3. Gizarte Segurantzaren izena emandako lehen sektoreko enpresen kopurua	(2018) 971			
5.4. Landa-eremuak sustatzeko laguntzen zenbateko osoa	(2022) 50.400.000€			

C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK

	Jatorria	2024	2027	2030
5.5. 5.000 biztanletik beherako landa-eremuetako eraikinen NGA banda zabaleko instalazioaren egoera	(2021) Laguntza publikoa: % 51,34 Instalazio pribatuak: % 27,61 Laguntza publikoa hedatzen: % 19,40 Zerbitzurik gabe: % 1,66			

3. dokumentua

Erronka

Demografikorako

2030 Euskal

Estrategiaren

2023ko memoria

MEMORIA **2023**

ERRONKA **DEMOGRAFIKORAKO**

2030  EUSKAL ESTRATEGIA

2024ko urtarila

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sarrera

I. Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldiko Gobernu Programak hamar herri-helburuetako bat da erronka demografikoa. 140. konpromisoak arlo horretan 2030erako euskal estrategia idatzi eta bultzatzea aurreikusten zuen, eta Lehendakaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren esku uzten du hura egiteko koordinazioa.

Aurreikuspen programatiko horrekin berarekin bat etorritik, 2020ko urriaren 29an, Eusko Legebiltzarrak, legez besteko proposamen baten bidez, sailarteko eta erakundearteko erronka demografikoari buruzko plan bat egiteko beharra planteatu zion Eusko Jaurlaritzari.

Bi aurreikuspen horien arabera, 2021eko hasieratik urte bereko azarora arte, Eusko Jaurlaritzak sail arteko eta erakunde arteko erronka demografikoari buruzko eztaba-ida-prozesu bat bultzatu zuen foru-aldundiekin. 11 hilabete horietan sortutako dokumentazioa "Laneko dokumentu" bihurtu zen. Hau da, une horretan oraindik ere irekita zeuden osatzeko.

2021eko abenduaren 14an, dokumentazio hori Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluetan aurkeztu zen, jakinaren gainean egon zitezen; Eusko Legebiltzarrera eta EUDELera bidali zen, eta jendearen eskura jarri zen. Ordutik 2022ko martxoaren 31ra arte, ekarpenak jasotzeko aldi bat ireki zen, bai erakundeen aldetik, bai gizarte-eragileak eta herritarren aldetik.

Prozesu horretan, Confebask, Unicef, Save the Children eta UEMA erakundeen oharrak eta proposamenak jaso ziren, bai eta Irekia kanalaren bidez jasotako herritarren beste iradokizun edo kezka batzuk ere.

Prozesu horren esparru kronologikoan, Eusko Legebiltzarrak Osoko Bilkura monografiko bat deitu zuen 2022ko maiatzaren 18an, "hamarkada batean indarrean egongo den Estrategia Demografikoaren zuzendaritza, lehenetsiak eta ekimen garrantzitsuenak eztaba-idatzeko, partekatzeko eta zehazteko legebiltzar-taldearen artean". Osoko Bilkura hartan 74 ebazpen onartu ziren, guztiak ere markatutako jarduketaren esparruarekin bat zetozenak, eta Estrategiaren dokumentuetan sartu ziren.

II. Estrategiaren edukia

Azkenik, 2022ko ekainaren 21ean, Gobernu Kontseiluak behin betiko onartu zuen Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia, zeinak, oro har, 36 jarduketa aurreikusten dituen. Bi dokumentutan aurkezten da: I. Esparru orokorra, eta II. Dokumentu operatiboa. Bigarrenak hiru bloketan egituraturako jarduketa-plana hartzen du barnean:

- Lehenengo blokeak lau jarduketa berri jasotzen ditu, epe laburrerako eraginaren irizpidearekin:

- 1. jarduketa. Ardurapeko seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak handitzea.
- 2. jarduketa. Gazteen ekintzailletza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako maila-legu-programa.
- 3. jarduketa. 0-2 urte bitarteko etaparen doakotasuna, Haurreskolak Partzuergoaren bidez.
- 4. jarduketa. Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna.

- Bigarren blokean, ibilbide luzeko inpaktu-irizpidearekin abian dauden jarduketak jasotzen dira. Hona hemen ardatzen eta jardueren laburpena:

- Jarduketa estrategikoko I. ardatza: Gazteen emantzipazioa.

- 5. jarduketa. GAZ diseinatzea eta abian jartzea.
- 6. jarduketa. Gaztelagun Programa zabaltzea.
- 7. jarduketa. Pilotaje berritzaileak abian jartzea.
- 8. jarduketa. Gazteen enplegurako talka-plana bultzatzea.
- 9. jarduketa. Txanda-plana diseinatzea.
- 10. jarduketa. Lan Ikuskaritzako kanpaineekin jarraitzea.
- 11. jarduketa. Prestakuntza eta, bereziki, Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Heziketa Duala bultzatzea, bereziki, industria-sektorean emakumeek duten parte-hartzeari erreparatuta.
- 12. jarduketa. Lan-merkatuaren beharren diagnostikoa eguneratzea.
- 13. jarduketa. Garraio publikoa erabiltzeko tarifak egokitzea.

- Jarduketa estrategikoko II. ardatza: Familia-proiektuen eraikuntza.

- 14. jarduketa. Haurrak bermatzeko programa bat diseinatzea eta abian jartzea.
- 15. jarduketa. Guraso bakarra izateari buruzko txosten bat egitea.
- 16. jarduketa. Aitatasun- eta amatasun-baimenak zabaltzea.
- 17. jarduketa. Adingabeen adina handitzea haiek zaintzeko kontratazioan.
- 18. jarduketa. Ordainsari-berdintasunari buruzko kanpainei eta berdintasun-planei eustea.

- Jarduketa estrategikoko III. ardatza: Adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea.

- 19. jarduketa. Adinekoekin euskal estrategia bultzatzea.
- 20. jarduketa. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik indartzea.
- 21. jarduketa. Proiektu pilotuak aktibatzea.
- 22. jarduketa. Arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea.
- 23. jarduketa. Belaunaldi-erleleboko zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea.

- Jarduketa estrategikoko IV. ardatza: Migranteen gizarteratzea.

- 24. jarduketa. Migraziorako Euskal Itun Sozialaren garapena eta urteko ebaluazioa.
- 25. jarduketa. Transferentzia lehenestea asilo-migrazioaren arloan, eta migratzaileak hartzeko eta integratzeko euskal eredia diseinatzea.

- 26. jarduketa. Talentua atxikitzeke, garatzeko eta erakartzeko programa bat abian jartzea.
- 27. jarduketa. Euskarri Estrategia garatzea.
- Hirugarren blokeak zeharkako hiru jardun-ildo zehazten ditu. Ildoen eta jarduketaren egitura honako hau da:
 - Zeharkako 1. jarduera-ildoak: landa-eremua errebalorizatzea.
 - 28. jarduketa. Landa Garapeneko Legea onartzea.
 - 29. jarduketa. Landa-inguruneari atxikitzeke pizgarriei buruzko azterlana egitea.
 - Zeharkako 2. jarduera-ildoak: prospekzioa, zabalkundea eta komunikazioa.
 - 30. jarduketa. Urteko prospekzio, dibulgazio eta komunikaziorako plana garatzea.
 - 31. jarduketa. Aldian behingo prospekzio-azterlanak egitea.
 - 32. jarduketa. Erronka demografikoak enpleguan dituen ondorioen azterketa bultzatzea.
 - 33. jarduketa. Baliabideen gida bat egitea eta zabaltzea.
 - Zeharkako 3. jarduera-ildoak: aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa.
 - 34. jarduketa. Aurrekontuan islatzea.
 - 35. jarduketa. Urteko jarraipen-memoriak egitea.
 - 36. jarduketa. Ebaluazio-prozesuak bultzatzea.

Dokumentu operatiboa Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren aginte-taula integral batekin osatzen da, eta egoera-adierazleak, helburuenak eta funtsezko faktoreenak biltzen ditu.

III. Jarraipen-sistema, adierazleak eta ebaluazioa

Egiazta daitekeenez, Estrategiaren azken bi jarduketak jarraipenean eta ebaluazioan oinarritzen dira. Eranskinean, aginte-taula integral gisa eratutako adierazle-panel bat dago.

Zehazki, 35. jarduerak honako hau ezartzen du: “Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian jasotako aurreikuspenen eta jarduketaren betetze-mailari buruzko urteko jarraipen-memoriak egin beharko dira, baita horien aurrekontu-irratia ere”.

Horren koordinazioaren ardura Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari dagokio, eta “urtero, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, 2024tik aurrera” egingo direla ezartzen da. Dokumentu honek aurreikuspen horri erantzuten dio.

Modu osagarrian, 36. jarduerak honako hauen plangintza ezartzen du: “2025eko eta 2028ko lehen seihilekoan aurkeztu behar diren tarteko ebaluazio-prozesuen diseinua eta enkargua, eta azken ebaluazioa, zeina 2031ko lehen seihilekoan amaitu beharko baita. Tarteko eta amaierako ebaluazio-prozesu horiek aginte-taula hori erabiliko dute”.

Horrela, jarraipena, ebaluazioa eta adierazleak egiteko sistema bat antolatu da, estrategiaren garapena eta emaitzak baloratzeko eta neurtzeko aukera ematen duena. Sistema horrek lau erreferentzia ditu: urteko memoriak, hala nola hau, tarteko eta amaierako ebaluazio-prozesuak, adierazleen panela eta, azkenik, Sailarteko Mahaia, Estrategia osoaren jarraipena eta koordinazioa egiteko urtean bitan biltzen dena.

Dokumentu honi dagokionez, sarrera honetaz gain, haren egiturak bi puntu ditu. Lehenik eta behin, aurreikuspenen betetze-maila, Estrategia osatzen duten 36 jarduerak banan-banan berrikusiz. Eta, bigarrenik, azken oharren atal bat.

1. Aurreikuspenen betetze-maila

•1. jarduketa. Ardurapeko seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak handitzea

Hilean 200 euroko zuzeneko laguntza ematea ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko, hiru urte bete arte. Laguntza hori bateragarria izango da 4 eta 7 urte bitarteko familia ugarienezako egungo prestazioekin, egungo zerga-kenkariekin eta DSBEko seme-alabengatiko laguntzekin. Neurri hori UNICEFek sustatutako "Lehenengo 1.000 eguneko programekin" bat dator. Programa horien irizpidearen arabera, administrazio publikoek lehen 1.000 egun horietan egin behar dituzte inbertsioak, haurren bizitzako lehen hiru urteen garrantziagatik.

Oharrak

- Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko 27/2023 Dekretua 2023ko otsailaren 21ean onartu eta eskabideak aurkezteko epea 2023ko martxoaren 1ean ireki zen.
- Egun horretatik 2023ko amaierara arte, 61.900 eskaera jaso dira, eta, beraz, ezarritako aurreikuspenak erabat bete dira.
- Urte amaierara arte 58.923 eskaera izapidetu dira. Baldintzak ez betetzeagatik 5.508 eskaera ukatu dira.

Arlo arduraduna	•Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	•92.725.400 euro (guztira konprometitutako kredituak: 225.658.200 euro).
Betetze-maila 2023an	•% 100.

•2. jarduketa. Gazteen ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa

Mailegu subsidiatuen edo interesik gabekoen programa bat sortzea, epe luzera itzultzeko aukerarekin, ekintzailtza-, prestakuntza- edo gazteentzako etxebizitzako proiektuetarako. Programa bera ezarri aurretik, azterlan bat egingo da ekintzailtza-, prestakuntza- eta etxebizitzaren erosketari laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ildo publikoak ebaluatzeko, programa berriarekin duen lotura eta osagarritasuna aztertzeko: adina, maileguaren kuantifikazioa, finantza-baldintzak, administrazio-prozesua eta erregulazio-irizpideak, besteak beste. Lehenengo lau urteetan, programa proiektu pilotu gisa mantenduko da, haren eragina ebaluatu ahal izateko eta ezaugarriak gazteen beharretara egokitzeko. Eskatzailearen kalteberatasun sozialeko edo landatartasuneko salbuespenezko baldintzak kontuan hartuta, maileguaren ehuneko bat itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izan liteke.

Oharrak

- 2023an, Eusko Jaurlaritzan dauden mailegu-programei buruzko aurretiazko azterketa egin da.
- Azterketa horretatik ondorioztatzen da programa prestakuntza- eta ekintzailtza-eremuetara mugatu behar dela.
- 2024ra arte atzeratu da abian jartzea. 2023ko amaieran, programa diseinatzen hasi da, 2024ko bigarren seihilekoan pilotu gisa garatzeko.

Arlo arduraduna	•Gazteria Zuzendaritza.
Aurrekontu-eragina 2023an	•Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	•% 50, 2024ra hedatzea aurreikusi da.

•3. jarduketa. 0-2 urte bitarteko etaparen doakotasuna, Haurreskolak Partzuergoaren bidez

Haurreskolen doakotasuna bermatzea 0-2 urteko etapan, Haurreskolak Partzuergoa indartuz. Ekimen horren helburua da kontziliazioa, hezkuntzaren unibertsaltasuna eta aukera-berdintasuna sustatzeko neurrien multzoa sendotzea.

Oharrak

- 0 eta 2 urte arteko zikloan Haurreskolen doakotasuna aplikatzeko aurreikusitako neurria 2023ko irailetik dago indarrean, 2023-2024 ikasturtearen hasierarekin bat etorritik.
- Neurriak % 55 handitu du matrikulazioa Haurreskolak Partzuergoan.

Arlo arduraduna	•Hezkuntza Saila.
Aurrekontu-eragina 2023an	•2024ko aurrekontuan sartutako neurri horrek eta Partzuergoaren zentro-sarearen barruan plaza berriak hornitzeak 11 milioi euroko aurrekontu-gehikuntza dakar. Partzuergoak 77 milioi euro inguruko finantzaketa izango du 2024an. 2023an baino % 16,6 gehiago.
Betetze-maila 2023an	•% 100.

•4. jarduketa. Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna

Xedapen orokorrak egiteko prozedura ezartzen duen araudia aldatzea, legeak, arauak, estrategiak, sektoreko jarduera-planak edo inbertsio-programak egitean ikuspegi demografikoa kontuan har dadin, hala badagokio familiaren ikuspegia barne. (8/2003 Legea, abenduaren 22koa. Xedapen orokorrak egiteko prozedura).

Oharrak

- Ikuspegi demografikoa Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean sartu da arauak egiteko prozeduretan.

Arlo arduraduna	•Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.
Aurrekontu-eragina 2023an	•Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	•% 100. Neurria behin betiko bete da.

•5. jarduketa. GAZ diseinatzea eta abian jartzea

Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearen esparruan, GAZ (Gazteen ibilbideak Abian jartzeko Zerbitzua) diseinatzea eta abian jartzea –Ameslariak programa hartzen duena–, Gazteei buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, informazioa, orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza integrala, jarraitua eta pertsonalizatua emateko zerbitzuari dagokionez, gazteen emantzipaziorako eta mugikortasunerako, itzulera barne. Bi programa horiek Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin artikulatuko dira; bereziki gazteen emantzipazioa eta mugikortasuna sustatzera bideratutako foru- eta toki-ekimenekin, bai eta talentua erakartzera, atxikitza, itzultza eta konektatza bideratutakoekin ere; eta gazte-informazioko sarearekin eta baliabideekin.

Oharrak

·GAZ online zerbitzua 2023ko urriaren 9tik aurrera jarri da abian, eta eskuragarri daude www.euskadi.eus/gaz webgune berria eta gaz.eus komunitate birtuala.

·Martxoan, GAZen aurrez aurreko lehen bulegoa inauguratu zen Bilbon, eta, abenduan, Barakaldon. 2024an, Gasteizko eta Donostiako bulegoak irekiko dira..

Arlo arduraduna	·Gazteria Zuzendaritza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·344.850 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•6. jarduketa. Gaztelagun Programa zabaltzea

36 urtetik beherakoak alokairuan hartzeko Gaztelagun programa garatzen jarraitzea, eta etxebizitza-gastu publikoa handitzen jarraitzea gazteentzat, bai eta programa horretaz baliatzen diren 26 eta 31 (34) urte bitarteko pertsonen ehunekoa ere.

Oharrak

·Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 300 eurora handitu da, eta programan sartzeko errenta-mugak handitu dira. Gazteen emantzipazioari laguntzeko politikek, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzen bidez (Gaztelagun Programak eskaintzen dituen laguntzak, adibidez), funtsezko zeregina dute gazteen finantza-independentsia babesteko. Ekimen horren bidez, etxebizitza propioa eskuratzeak dakarren karga ekonomikoa arindu nahi da, emantzipazio-prozesua erraztuz. Alokairurako berariazko subsidioak ematean, gazteen autonomia sustatzen da, beren espazio propioan kokatzea ahalbidetuz eta garapen pertsonal, profesional eta komunitarioan lagunduz. Politika horiek higiezinaren sektorerako pizgarri gisa ere jarduten dute, eta gizarteratzea sustatzen dute, etxebizitza-aukera ekitatiboak eskaintzen baitizkiete belarrialdiko gazteenari.

·Programaren berri emateko sustapen-kanpainak egitea aurreikusten da, 2024an zabal-kunde handiagoa emanez.

Arlo arduraduna	·Etxebizitza Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·17.400.000 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•7. jarduketa. Pilotaje berritzaileak abian jartzea

Etxebizitza-proiektu pilotuak abian jartzea, bizikidetzarako gune komunitarioak sortzeko, zainketa-lanen eta bizitzari eusteko lanen erantzukidetasun sozial eta kolektiboa erdigunean jar dezaten; baita alokairu sozialeko politika eraginkor bat ere, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzat, eta bizikidetzarako proiektu komun bat eta nahi ez den bakardadea prebenitzeko proiektu bat duten komunitateak sustatzeko.

Oharrak

·2018ko abenduaren 20an, Deialdi Publikoa egin zen Donostiako udalerrian (Gipuzkoa), Txomin Enea erabilera-lagapeneko erregimenean, cohousing erregimenean, babes ofizialeko 116 etxebizitzaren eta, hirigintza-plangintzak baimentzen badu, merkataritza-lokalen gehieneko itunpeko sustapenerako proposamenak aurkezteko, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 3. xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

·2022ko azaroaren 3an, finantza-laguntzak eman zitzaizkion Ankurkulu sozietate kooperatiboari, Mendatako udalerrian 5 etxebizitzaren eta horiei atxikitako eranskinen erabilera lagatzeko. Lehendik zeuden baserriak birgaitzeko garapen interesgarria, lan-kidetza-etxebizitzaren figura berria, cohousinga, tokiko hirigintzara egokitzeko arazoak gainditu baititu.

·Cohousinga sustatzeko araudia, bere hiru alderdi nagusietan: gazteentzat, seniorrentzat eta belaunaldiartekoentzat, erabat indarrean eta operatibo dago, eta, gainera, aurrekontu-zuzkidura garrantzitsuak ditu urtero Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-programaren gastu-aurrekontuan.

Arlo arduraduna	·Etxebizitza Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·48.000 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•8. jarduketa. Gazteen enplegurako talka-plana bultzatzea

Gazteen enplegurako talka-plan bat bultzatzea, enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren esparru-programan integratua, honako jarduera-ardatz hauekin: gazteen enplegurako prestakuntza duala; hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa; prestakuntza-bekak eta lan-esperientziakoak, kontratatze konpromisoarekin; gazteen laguntza pertsonalizatua eta tutoretza indartzea, enplegurako eta garapen profesionalerako ibilbidean; ekintzailatzaren garapena, autoenplegua eta gazteen startupa; eskualdeen garapeneko eta gazte-prestakuntzako berariazko programak.

Oharrak

·Gazte Enplegurako Talka Plana Enpleguaren 2030 Euskal Estrategian eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Plan Estrategikoan jasota dago, bai eta Berpiztu Programan ere (Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Programa). Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren 8. jardueran ere aurreikusitako ekimena da.

·Elkarri lotutako sei programa hauen garapena barne hartzen du: (1) Enplegurako lanbide-heziketa eta unibertsitate-prestakuntza duala; (2) Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak; (3) Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak; (4) Gazteen laneratzeko prestakuntza; (5) Gazteen enplegurako programak (Lehen Aukera, Txanda-kontratua, Gazteen itzulera eta Gazteak laneratzeko ekintza berritzaileak); eta (6) Gazteen ekintzailatza.

·2023-2024 aldirako, berariaz gazteei zuzendutako programa horietan 82 milioi euroko inbertsioa egingo da. Enplegua sustatzeari dagokionez, helburua da 2024an 13.500 lan-postu sortzea gazteentzat, eta horiei 13.800 gehitu behar zaizkie, enplegu-programa orokorrekin gazteen enpleguan izan duten eraginaren ondorioz.

·2021 eta 2022rako programatutako jardueren jarraipena egin da, eta betetze-maila handia ikusi da, bi urteko gauzatze-aldia kontuan hartuta. 2024aren hasieran 2023ko gauzatze eraginkorra aztertuko da, eta 2025ean helburuen eta emaitzen betetze-maila globala.

·Gazteen enplegurako Talka Plana, Lanbidek sustatua, gazteei zuzendutako enpleguaren arloan Eusko Jaurlaritzak egindako jarduketaren bilduma bat da, bai eta biztanleria orokorraren enplegarritasuna hobetzera bideratutako zeharkako jarduerak ere. Horietan, gazteek parte hartzen dute, eta Enplegu Plan Estrategikoaren (2021-2024) aldi bera hartzen du.

Arlo arduraduna	·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. ·Hezkuntza Saila.
Aurrekontu-eragina 2023an	·63.974.115 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•9. jarduketa. Txanda-plana diseinatzea

Plan ordenatu eta eraginkor bat prestatzea, datozen urteetan EAEn langileak txanda-katzeko, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko eta langabezia- eta prekariedade-tasa handienak dituzten kolektiboek –gazteek, emakumeek eta iraupen luzeko langabeek, batez ere– kalitatezko enplegu batera igarotzeko bidea egin dezaten.

Oharrak

·Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enpresentzako Zerbitzuaren bitartez, doako aholkularitza emateko proiektu pilotu bat garatzen du 60 enpresa txiki eta ertainentzat, LanMentoring izeneko. Proiektu horretan, 50 orduko diagnostikoaren eta aholkularitza pertsonalizatuaren bidez, tresna egokiak ematen zaizkie enpresei beren plantilletan belaunaldi-erreleboa aurreratzeko, bereziki negozioarako kritikoak diren lanpostu jakin batzuetan, ezagutza modu egokian transferitzeko eta enpresan irauteko.

·Ikaskuntzak enpresei aukera ematen die profil eta gaitasun kritikoak identifikatzeko metodologia izateko, belaunaldi-erreleboa aurreratzeko eta enpresen kulturen adina kudeatzeak duten garrantzia txertatzeko, eta ezagutzaren kudeaketa hobetzeko tresnak ezagutzeko.

·2023ko ekainaren 9an, proiektua 20 enpresaz osatutako bigarren eta azken txanda batean aurkeztu zen, eta guztira 60 enpresak parte hartu zuten. 2023ko abuztuan eta irailan, proiektuaren ebaluazioa egin zen parte hartzen duten enpresekin, galdetegien bidez, bai eta aholkularitza-enpresekin ere. Urrian, Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea ospatzen da, eta, bertan, LanMentoring-en lortutako esperientzia eta ikaskuntzak aurkeztu ziren.

Arlo arduraduna	·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·316.442 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•10. jarduketa. Lan Ikuskaritzako kanpainen jarraipena

Kontratazioko iruzurraren arloko Lan Ikuskaritzako kanpainei eustea, eta 2022ko martxoaren 15eko Gizarte Elkarrizketa Mahaian onartu ziren gizarte-eragileen partaidetzarako neurriak babestea, Lan Ikuskaritzaren Aholku Batzordea sortuz, aurrekarizatutako eta feminizatutako sektoreei eta, bereziki, etxeko langileei begira.

Oharrak

·2023an 2022ko balantzea eskaintzen da. Hala, 2022an, aldi baterako kontratazioaren iruzur-kanpaina egin zen, eta honako emaitza hauek lortu ziren:

-Lan-ikuskaritzak aldi baterako 25.948 kontratu berrikusi ditu, eta 8.760 kontratu mugagabe bihurtu dira.

-Gizarte-eragileek parte hartzeko neurriak babestu dira, eta Lan Ikuskaritzaren Aholku Batzordea bi aldiz bildu da 2022an. Bertan, sektore prekario feminizatuei eragiten dieten gaiak landu dira.

-Ikuskaritza-jarduerak egiten dira prekarizatutako eta feminizatutako sektore guztietan, hala nola hoteletako gelak garbitzeko zerbitzua eta etxeko langileak.

Arlo arduraduna	·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Baliabide propioak.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•11. jarduketa. Prestakuntza eta, bereziki, Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Heziketa Duala bultzatzea, bereziki, industria-sektorean emakumeek duten parte-hartzeari erreparatuta

Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Heziketa Duala bultzatzea Lanbide- eta Unibertsitate-Heziketako sektore guztietan, enplegagarritasuna indartzeko, bereziki emakumeek industria-sektorean duten parte-hartzea, eta, era berean, gizarte-kohesioa eta gizarteratzea indartzeko.

Oharrak

·2023-2024 ikasturtean, erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetako 14.500 ikaslek egingo dute zikloa Araubide Orokorreko eta Intentsiboko modalitate dualean, 8.247 enpresatan. Datu hori maila horietako heziketa-zikloren bat egiten duten ikasleen % 40,3 da.

·Horrez gain, eta unibertsitate-eremuari dagokionez, 2023ko maiatzaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak 2023-2026 aldirako Unibertsitate Sistemaren Plana onartu zuen. Plan horretan gradu eta master dualeko titulazioen eskaintza % 50 handitzea aurreikusten da.

·Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baliabide ekonomikoak ematen dizkio urtero Hezikuntza, Unibertsitate eta Ikerketako eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuen baterako Aginduari, ikas-ekinezko prestakuntza eta lanerako Hezibi Programarako, LHko ikasleei eta gazte langabeei zuzenduta. Praktikan, industria-sektoreko LHko gradua garatzen duten gazte gehienak –800 gazte inguru urtean. 2023an “Espezializazio” ikastaroak garatzen hasi dira.

·Lanbidekontratazio-konpromisodun prestakuntza egiteko dirulaguntzen deialdiak argitaratu ditu, eremu maskulinizatueta emakumeen kolektiboari zuzenduta. Horrez gain, 2023an, prestakuntza dualeko lehen ekimen bat hasi zen, SEA Arabako Enpresek sustatua. Ekimen horrek izaera industrialeko profesionaltasun-ziurtagiriaren prestakuntza garatzen du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak laguntzen du.

Arlo arduraduna	·Lanbide Heziketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·6.500.000 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•12. jarduketa. Lan-merkatuaren beharren diagnostikoa eguneratzea

Gizarte-eragileekin eta hezkuntza-komunitatearekin (unibertsitateak, LHko zentroak eta profesionaltasun-ziurtagiriak eskaintzen dituzten zentroak) lankidetzan, premien azterketa bat egitea, gure lan-merkatuaren eskaerak eta lanbide-profilei dagokienez dauden gabezia nabarmenenak eguneratu eta identifikatzeko. Hori oinarri hartuta, eskaera horiekin bat datozen langileak erakartzeko kanpainak egitea.

Oharrak

·Prestakuntza Premiak Aztertu eta Hautemateko Aholku Batzordeak –Lanbideren hiru aldeko aholkularitza-organoa (2019/09/13ko EHAA)–, Administrazioaren ordezkariak eta enpresa- eta sindikatu-erakundeak osatuta, honako lan hauek egin ditu:

- a) informazioa kudeatzeko sistema eta eredu metodologiko bat sortzen du, lan-merkatuaren prestakuntza- eta birkualifikazio-eskaerei erantzun eraginkorrak emateko (2022);
- b) *Euskadiko prestakuntza-premiak detektatzeko* behin-behineko txostena (2023).
- c) *“Prestakuntza-premiak hautemateko enpresei egindako inkesta”*ren 2. edizioa onartzea eta langileen ikuspegia azterketan txertatzea. Ikerketa kualitatibo baten bidez egingo da.

·2023an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE) buru duen *“Estaldura Zaileko Lanbideen Katalogoa”* egiten lagundu zuen.

Arlo arduraduna	·Lanbide Heziketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. ·Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Baliabide propioak.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•13. jarduketa. Garraio publikoa erabiltzeko tarifak egokitzea

Gazteentzako garraio publikoaren prezioak berrikustea eta erabilera-tarifak aldatzea, Gazteria Legearen arabera gaztetzat jotzen den adin-tarteari dagozkion tarifak lurralde guztietan bateratuz.

Oharrak

·Elkarreragingarritasunari dagokionez, 2023an egindako lanetik abiatuta, 2024ko ekitaldian erabat ezartzea aurreikusten da. Ariketa honen amaieran MUGI txartela erabili ahal izango da BizkaiBus eta Bilbobus lineetan, linea horien balidatzaileetan egokitzapenak egin ondoren.

·Tarifa-integrazioari dagokionez, 2023an Euskadiko Garraio Agintaritzan egindako proposamenaren ondoren, diseinuari buruzko erakunde arteko akordioa 2024ko lehen sei hilekoan izatea espero da. Akordio horren ondoren, ezarpena, eta, beraz, haren epea eta aurrekontua, lurralde historiko bakoitzeko partzuergo eta agintaritza bakoitzaren mende egongo dira.

Arlo arduraduna	·Garraio Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·3.047.770 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 50.

•14. jarduketa. Haurak bermatzeko programa bat diseinatzea eta abian jartzea

Haurren bermerako estrategia edo programa bat diseinatzea eta abian jartzea, po-brezia eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden 18 urtetik beherako haur eta nerabeen aukera-berdintasuna sustatzeko, hezkuntza-, gizarte-, osasun- eta etxebizitza-zerbitzuetarako sarbide eraginkorra eta doakoa bermatuz, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta indartuz, ardurapean seme-alabak dituzten familien babesa hobetzeko.

Oharrak

·2023ko abenduaren 29an, Haur Bermearen Euskal Estrategiaren zirriborroa aurkeztu zen, prozesu parte-hartzaile baten ondoren egin. Euskadiko erakunde publikoen eta hirugarren sektoreko erakundeek ekarpenak izan ditu. Aurreikuspenen arabera, 2024ko lehen hiruhilekoan onartuko da.

·Aukerak Suspertzen programa, Haur Bermearen Estrategiaren barruan, egiturazkoa bihurtu da. Helburua eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntza ematea da, eten digitala murrizteko eta gizarte-desabantailako egoeran dauden haur, nerabe eta familien gaitasunak indartzeko, tokiko komunitate-sarea aktibatuz. Berrikuntza gisa, aurtan dirulaguntza bat eman zaio Fair Saturday erakundeari, haurrak kulturaren bitartez gizarteratzeko bideak bilatzeko helburuarekin.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·1.409.055,50 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 90.

•15. jarduketa. Guraso bakarra izateari buruzko txosten bat egitea

Cure gizartean dauden guraso bakarreko familiei buruzko txostena egitea, tratu-berdintasunaren printzipioari jarraiki eta irizpide bateratuen bidez, guraso bakarreko familiei laguntzeko printzipio, eskubide, zerbitzu eta prestazio espezifikoak jasoko dituen araudi egokiaren garapena sustatzera bideratuta, baita ekintza positiboko balizko neurriak eta beste batzuk ere, Euskadin feminizazioarekin eta pobreziarekin lotuta dauden fenomenoak ezabatzen laguntzeko.

Oharrak

·Txostena egiteko prozesua hasita dago. Estrategian ezarritako egutegiaren arabera, 2024ko lehen sei hilekoan aurkeztea aurreikusten da. 2023ko ekitaldian, Familia eta Haurren Zuzendaritzako langileek azterlan bat egin zuten, eta azterlan hori oinarritzat hartuko da familia gurasobakarrarekin eta guraso bakarreko familiekin 2024ko lehen hiruhilekoan egingo den partaidetza-prozesuaren ondoren hura arautuko duen dokumentu arauemailea egiteko.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·2024rako egutegia egitea.
Betetze-maila 2023an	·Ez dagokio 2023an.

•16. jarduketa. Aitatasun- eta amatasun-baimenak zabaltzea

Elkarrizketa sozialaren bidez eta lau sektoreen inplikazioarekin, eremu pribatuan amatasun- eta aitatasun-baimenak, berdinak eta besterenezinak, 18 astera zabaltzea bultzatzea, eta, lehen urrats gisa, Kontziliako Komunitateak enpresetan ezarri beharreko kontziliazio-neurriei buruzko txosten bat egin dezan sustatzea.

Oharrak

·Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiak jarduera horren hedapena ezartzen du 2024an. Hala ere, helburu horrekin, honako ildo hauek landu dira:

-2024ko aurrekontuan 100.000 euroko partida bat sartu da etorkizuneko dekretuaren laguntza teknikorako, amatasun- eta aitatasun-baimenak 18 astera luzatzeko.

-Bestalde, Kontzilia komunitateko 30 enpresek hiru jardunaldi egin dituzte 2023an, enpresen artean kontziliazioari buruzko ezagutza eta jardunbide egokiak trukatzeko. Lehenengo martxoaren 23an egin zen, Kontziliazioaren eta Erantzukidetasunaren Egunean, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzan, komunitatea aurkezteko berriki sartu diren enpresei. Bigarrena, berriz, ekainaren 28ko 5/2023 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako neurri berriei buruzko webinar baten bidez gauzatu zen. Legegintzako Errege Dekretu horrek Europar Batasunaren Zuzentarauen transposizioa egiten du, gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta bizitza profesionala uztartzearen arloan, eta Europar Batasunaren Zuzenbidea betearazten eta betetzen du, bai eta Komunikabide tresnaren pilotajea ere. Azken jardunaldian, Eusko Jaurlaritzak kontziliazioaren arloan enpresak egiaztatzeko proiektua aurkeztu zuen, eta azaroaren 24an egin zen, Donostiako Kursaal.

-Nabarmentzekoa da "Kontziliaziorako bideak irekitzen" kongresua egin zela ekainaren 14an eta 15ean, Gasteizko Europa Jauregian.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Ez dagokio 2023an.
Betetze-maila 2023an	·% 100 prestaketa-fasean.

•17. jarduketa. Adingabeen adina handitzea haiek zaintzeko kontratazioan

Egungo 3 urteetatik 14 urteetara luzatzea ondorengo adingabeak zaintzeko adina langileak kontratatzeko, 2021-2022 ikasturtera arteko atzeraeraginarekin.

Oharrak

·102/2022 Dekretua, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzkoa, 2022ko irailaren 7an onartu zen.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe 2023an.
Betetze-maila 2023an	·2022an % 100ean bete zen.

•18. jarduketa. Ordainsari-berdintasunari buruzko kanpainei eta berdintasun-planei eustea

Laneko Ikuskaritzak ordainsari-berdintasunari eta berdintasun-planei buruz egiten dituen kanpainei eustea, enpresek genero-berdintasunaren arloan dituzten betebeharraren jarraipena eta kontrola egiteko.

Oharrak

·2023an, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ikuskapen-jarduerak egin dira. Bereziki, kanpaina hauek:

- Emakume langileen segurtasunaren eta osasunaren arloan, besteak beste, haurdun dauden emakumeen eta ama edoskitzaileen osasuna babestea.
- Amatasuna eta edoskitzea babestekoak.
- Sexu-jazarpena eta jazarpen-protokoloak.
- Sexuagatiko diskriminazioak.
- Ordainsari-desberdintasuna edo soldata-arraila.
- Berdintasun-planak.

Arlo arduraduna	·Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Baliabide propioak.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•19. jarduketa. Adinekoekin euskal estrategia bultzatzea

Zahartze aktiboa bizitza osoko ikuspegiaren integratuko duen adineko pertsonen Euskal Estrategia definitzen jarraitzea, adineko autonomoak eta autonomiarako laguntza (zaintza) gero eta handiagoak behar dituztenak kontuan hartuta, eta belaunaldien arteko elkartasunetik abiatuta, adinekoen bizitzako adin-aniztasunari edo faseei eta erretiroari aurre egiteko moduei buruzko eztabaida piztuko duena.

Oharrak

·2023ko abenduan, Adinekoekiko Euskal Estrategiaren bitarteko ebaluazioa egin da (2021-2024). 2023ko amaieran, 14 proiektu bultzatzaileetan ezarritako ekintzen erdia baino gehiago jarri dira abian.

·Euskadiko Adineko Batzordearekin (EAB) batera, gizarte-zentroak eraldatzeko eta adinekoentzako gaikuntza- eta prestakuntza-programa bihurtzeko lanean ari gara.

·Agenda Nagusian, bizi-luzera berrien gaia lantzen ari dira, eta adineko askok parte hartzen dute Foroetan eta Age Cafe-ean. Prozesu hori txosten batekin amaitzen da. Txosten hori gizarte-zerbitzuen zuzendaritzaren esku jartzen da, ikaskuntzak diseinatzen diren politika publikoetan txertatzen joateko.

·Telelaguntza-zerbitzu publikoak 68.000 erabiltzaile baino gehiago izan ditu 2023an.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·14.361.500 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•20. jarduketa. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik indartzea

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik indartzen jarraitzea, estrategia tokiko planoarekin lotzeko eta hiri lagunkoia adinekoekin sustatzeko tresna gisa.

Oharrak

·2023an zehar, programari atxikitako udalerrien sareak hazten jarraitu du: gaur egun, 79 udalerri daude, adineko pertsonen herritartasun aktiboa sustatzeko, erabakiak hartzen eta inguruneak hobetzen parte hartuz.

·Lagunkoitasunaren arloko jardunbide egokiei buruzko urriaren 3ko 145/2023 Dekretua onartu da, adinekoentzako ingurune erraztaileak sortzean berrikuntzagaratik eta eraginkortasunagaratik, lagunkoitasunari dagokionez, nabarmentzen diren jardunbideak ezagutzeko. Urriaren 4an, Lagunkoitasunari buruzko Europako Jardunbide Egozien VII. Jardunaldia egin zen Bilbon. Lagunkoitasuneko jardunbide egokien sarirako hautagaiak aurkezteko epea azaroaren 20an amaitu zen.

·Hiru Lurralde Batzordeak martxan daude. Lurralde historiko bakoitzari dagokio, eta lurralde bakoitzeko Euskadi Lagunkoia atxikitako udalerriek hartzen dute parte.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·213.345 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•21. jarduketa. Proiektu pilotuak aktibatzea

Proiektu pilotuak diseinatu eta aktibatzea, definitutako jarduera-irizpideen arabera, ingurune hurbilenean edo etxean ahultasun-egoeran dauden adinekoei arreta zabaltzea eta indartzea ahalbidetuko dutenak.

Oharrak

·2023ko urriaren 3an, Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (2023-2026) onartu zen. Proiektu bultzatzaileak ezartzen dira, lidergo publikoarekin sustatu beharrekoak, etxeko arreta indartzera eta komunitatea garatzera bideratutako hiru eskumen-mailen bidez.

·Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak lehen adierazitako helburuarekin orain arte abian jarri dituen proiektu pilotuetako batzuk honako hauek dira:

-Zaintel (telefono bidezko arreta, 900 100 356 doakoa), euskaraz eta gaztelaniaz. Bertan, familia zaintzaileek behar duten laguntza aurkituko dute, informazioa, orientazioa edo aholkua.

-Laguntzabidea, etxeetako krisi-egoeretan dauden familiei laguntzeko, aholkatzeko eta orientatzeko, zaintzaren gainkarga prebenitzeko eta laguntza- eta atsedeen-zerbitzuetarako eta kasu bakoitzerako egokia den zaintza-planerako sarbide unibertsala bermatzen laguntzeko.

-Kuvu, nahi ez den bakardadeari aurre egiteko tresna berria, batez ere adinekoen artean, 65 urtetik gorakoek beren etxebizitza partikularra gazteekin aldi baterako partekatzen dutelako ideian oinarrituta. Horrela, errentari gazteak etxebizitzaren mantentze-gastuen zati bat ordaintzen du, gehi alokairu solidario gisa murriztutako zenbateko gehigarri bat, bi aldeentzat onura ekonomikoa ekarriko duena.

-Telelaguntza prediktiboa. Azken helburua zainketa-esparru integral bat lortzea da, zainketen kalitatea bermatuko duena. Horretarako, prebentzioari helduko zaio, eta zainduak bere bizi-ingurunearekin duen lotura sustatuko da, ezinbesteko baldintza baita haren ongizaterako.

-Beti On bultzatzea, bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsona guztiengana iristeko.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·13.914.325 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•22. jarduketa. Arrisku soziosanitarioko faktoreak hautematea

EAEko 60 urtetik gorako pertsonen artean, arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea ahalbidetuko duen tresna bat eraikitzea, iragarpen-faktore jakin batzuk definituz eta mailakatzuz.

Oharrak

·Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzaren arteko bilera batean erabaki da jarduera horri Adinekoen Arreta Planean ekitea. Akordio horretan oinarrituta, lantaldea sortu da eta prototipo bat eraikitzeko lanei ekin zaie. 2024ko ekainean aurkeztea aurreikusten da.

Arlo arduraduna	·Osasun Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	·50%.

•23. jarduera. Belaunaldi-erleleboko zikloa kudeatzeko estrategia bat diseinatzea

Belaunaldien arteko errelebo-zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea eta abian jarritzea hirugarren sektoreko erakunde, enpresa eta antolakundeetan.

Oharrak

·Euskadiko Adinekoen Batzordearen konpromisoetako bat diskriminazioa ezabatzen laguntzea da, zahartzen diren pertsonen eskubideen defentsa sustatuz eta belaunaldien arteko harremanak babestuz.

·Bizitza Betea programak, Helduak Adi erakundearen bidez, adinekoentzako prestakuntza-jarduerak prestatzeko gida bat argitaratu du 2023ko udaberrian. Gainera, helburu berak sustatzen dira Secot bezalako erakundearen eskutik, ibilbide luzea egin baitute erretiroa hartuko duten pertsonen informazioa eta prestakuntza ematen.

·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzak, bere aldetik, AdinLan diseinatu du, adinaren kudeaketarako tresnen gida bat, kalitatezko enplegua lortzeko aukera-berdintasunerako. ·Ekainaren 21ean, Adina Kudeatzeko Jardunaldi batean aurkeztu zen, Bilbon. Adinaren ikuspegia sartu da Laneko Segurtasun eta Osasunaren Estrategian, Enplegu Plan Estrategikoan eta Lanbide zerbitzu publikoaren laguntza-programetan. Eta Enpleguaren Legean ere lehenetsunezko jarduerak zehazten dira, bai gazteentzat, bai 55 urtetik gorakoentzat.

·Pertsonen kudeaketa eraginkorra erraztuko duen “erreminta-kutxaren” artean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren belaunaldi-erleleboko programak daude, hala nola Lan Mentoring, Lehen Aukera, Txanda Kontratua, 50 urtetik gorako Kontratazioa, Aukera berri, bai eta Osalaren aholkularitza ere, adinera begirako prebentzio-planerarako, besteak beste.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·11.977.167 euro.
Betetze-maila 2023an	·Bizitza Betea: % 70. ·Tresnen gida: % 100.

•24. jarduera. Migraziorako Euskal Itun Sozialaren garapena eta urteko ebaluazioa

Migraziorako Euskal Itun Soziala garatzen jarraitzea, itun horrekiko atxikimendua gizartean eta erakundeetan zabaltzea, eta haren betetze-mailaren jarraipena eta urteko ebaluazioa egitea.

Oharrak

·2023an zehar, Migraziorako Euskal Itun Soziala toki-eremura hedatzen jarraitu da. EAEko 120 udal baino gehiago atxiki dira gaur egun Migraziorako Euskal Itun Sozialera. “Euskadin tokiko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak” dokumentua egin da, Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren Harrera Batzordean garatua, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak EUDELeke presidenteari entregatu zion 2023ko urriaren 4an.

·EUDELen barruan, 2023ko azaroaren 14an, lan-batzorde bat sortu da harreraren helburuari behar bezala erantzuteko tokiko ikuspegitik.

·Abenduaren 18an, migratzaileen nazioarteko egunean, jardunbide egokiak aitortzeko ekitaldi bat egin zen Bilbon, eta iragarri zen 2024an Harreragune tresna berri bat jarriko zela abian, bizi diren edo, kasu honetan, Bilbora iristen diren migratzaileei informazioa eta aholkularitza emateko zerbitzua.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·120.000 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•25. jarduketa. Transferentzia lehenestea asilo-migrazioaren arloan, eta migratzaileak hartzeko eta integratzeko euskal eredua diseinatzea

Migrazioaren eta asiloaren arloko eskumenetik egiteke dauden transferentzien egutegian lehentasunezko izaerari eustea. Hori oinarri hartuta, migratzaileen harrerarako eta integratzeko euskal eredua diseinatu eta abian jartzea. Eredua horren barruan, laguntza pertsonalizatuko euskal zerbitzu bat egongo da, migratzaileak gizarteratze- eta laneratzera bideratua, Gobernu Programaren 90. konpromisoaren 5. ekimenean aurreikusitakoaren ildotik.

Oharrak

·Eusko Jaurlaritzak migrazioaren eta asiloaren arloko eskumenak transferitzeko proposamena azpimarratu du Espainiako Gobernuaren aurrean. 2022. urtearen amaieran egindako kudeaketen ondorioz, bi lantalde sortu ziren Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean: lehenengoa, 2023ko otsailaren 20an bildu zen, migrazio-eskumenean oinarrituta; eta bigarrena, 2023ko otsailaren 27an, asilo-politikei lotuta. Bi bilera horiek Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioko ordezkariekin egin ziren.

·Lehenengo taldean, Eusko Jaurlaritzak berriz planteatu zuen atzerriarrentzako lan-baimenak izapidetzeko eta ebazteko eskumena eskualdatzeko proposamena. Bigarren taldean, Eusko Jaurlaritzak oinarrien proposamen bat aurkeztu zuen asiloaren arloko baterako gobernantza deszentralizaturako.

·Hurrengo hiru hilabeteetan, bi lantalde horiek ez ziren berriz deitu, eta aurkeztutako proposamenek ez zuten erantzunik jaso. Ondoren, hauteskunde orokorrak deitu ziren, eta ez du jarraipenik izan. Eusko Jaurlaritzaren asmoa da berriro planteatzea Espainiako Gobernuari lantalde horiek berraktibatzea, Espainiako Gobernu berria eratu ondoren geratu ziren puntuan.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. ·Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	·% 100 (Eusko Jaurlaritzari dagokion zatian).

•26. jarduera. Talentua atxikitze, garatzeko eta erakartzeko programa bat abian jartzea

Gazteak erakartzeko, atxikitze, itzultzeko eta konektatzeko programa espezifiko bat abian jartzea (Ameslariak), GAZ Zerbitzuaren barruan, mugikortasun- eta migrazio-proiektuei lotutako emantzipazio-ibilbideei laguntzeko, itzulera barne, eta talentua txertatzea, edo berriro txertatzea eta atxikitzea, EAEko ekimen sozialeko erakundeek, enpresek eta erakundeek parte hartzen duten ekimenen nazioarteko konexioa indartzeko aukera ere kontuan hartuta, diasporarekin ohiko harremana izanda intereseko eremu jakin batzuetan.

Oharrak

·Ameslariak programaren kudeaketa GAZ (Gazteen ibilbideak Abian jartzeko Zerbitzua) programaren barruan dago. Horren bidez, gazteentzako mugikortasun-proiektuei buruzko informazioa, laguntza eta orientazioa ematen da. GAZ zerbitzua bat dator Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiaren bederatzigarren proiektu bultzatzailearekin.

·GAZ zerbitzu berria 2023ko urriaren 9an jarri zen abian, eta, beraz, gazteak erakartzeko, atxikitze eta itzultzeko ekintza espezifikoak planifikatzen eta zehazten joango dira. GAZ eta, beraz, Ameslariak dinamizatzeko, kanpoko laguntza teknikoa dago.

·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzak, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren laguntzarekin, ikerketa bat egin du talentua erakartze, atxikitze eta txertatzeari buruz: literatura berrikustea, EAEn indarrean dauden ekintzak aztertzea, benchmarking-a estatuan eta nazioartean eta Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak aztertzea.

·2023an, 14 ekintza-proposamen bat prestatu da Euskal Autonomia Erkidegoan talentuaren mobilizazioa lantzeko, eta 4 politika eta jardunbide motatan sailka daitezke: 1) talentua mobilizatu aurretik; 2) integrazioa eta atxikipena; 3) kualifikazioak aitortzea; eta 4) ekintzaileak erakartzea. Honako hauek dira ekintza horietako batzuk: Prestakuntza-aren bidezko Sustraitzea eta Gizarte Sustraitzea; emakume etorkin ez-aktiboak gizarteratzeko Programa; Talenturako pizgarri fiskalak; Dagoeneko eraikita dauden sareak baliatzea talentua bultzatzeko, eta abar.

Arlo arduraduna	·Gazteria Zuzendaritza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·GAZen aurrekontu-partidan sartuta dago (78.000 euro).
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•27. jarduera. Euskarri Estrategia garatzea

Helduarora igarotzeko prozesuetan, familiarentzako laguntza-sarerik ez duten gazteei laguntzeko programa pilotua eta Euskarri Estrategia garatzen jarraitzea, gazte horiek migratzaileak izan edo ez izan, eta babes-saretik kanpo egon ala ez.

Oharrak

·Euskarri Estrategiaren Erakundearteko Koordinazio Mahaiak hiru bilera egin ditu 2023an. Mahai horretan hiru foru-aldundiek, EUDELe eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek parte hartu dute. Foru- eta udal-eremuko hauteskunde-prozesuek eta organoak eratzeko prozesuek bilera-erritmo biziagoa eragotzi dute.

·Hala ere, mahaia berriz eratu da urriaren 5eko bileran, hauteskunde-prozesuaren ondoren berritutako karguak sartuz. Mahaiaren lan-plana 2023ko lan-agendan ezarritako aurreikuspenek zehaztu dute, zazpi lehentasun-ardatzetan egituratuta.

·2023. urtearen amaieran, joan den urteko kudeaketa-memoria egin da, eta 2024rako lehentasunak eguneratzen dituen lan-agenda onartu da.

Arlo arduraduna	·Gizarte Politiketako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•28. jarduera. Landa Garapeneko Legea onartzea

Landa Garapeneko Legea onartzea eta haren aurreikuspenak garatzea.

Oharrak

·Legea 2022ko ekainaren 30ean onartu zen Eusko Legebiltzarrean. Deialdiaren helburua da landa-ingurunea gainerako lurraldearen maila berean kokatzea.

Legearen mugarrietako bat landa-lentearen mekanismoa sartzea da, erakundeek diseinatzeko dituzten politikek euskal landa-eremuan duten eragina kontuan har dezaten. Horretarako, aurreikusten da landa-eremuei eragiten dieten plan, programa eta ekimen instituzionalei, onartu aurretik, txosten lotesleak egin beharko dizkietela Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako landa-garapenaren arloko sail eskudunek.

Era berean, egungo gobernantza indartu nahi du, gure landa-eremuen alde lan egiteko, erakunde-, toki-, lurralde- eta eskualde-maila guztien eta horien eragile sozioekonomiko adierazgarrien eskutik.

Nabarmentzekoa da plangintza estrategikorako proposamena, Lurralde Garapeneko Programak, Landa Garapeneko Eskualdeko Programak eta Tokiko Garapen Planak diseinatuz.

Arlo arduraduna	·Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	·2022an % 100ean bete zen.

•29.jarduketa. Landa-inguruneari atxikitzeko pizgarriei buruzko azterlan egitea

Lehen azterlan bat egitea, bertako zein migratzaile gazteentzako pizgarri-programa bat definitzera bideratua, landa-ingurune bizi-proiektuekin lotzea sustatzeko.

Oharrak

·2023an, lehentasuna eman zaio 31. jardueran aurreikusitako azterlanari. Horrela, jarduketa hori 2024ra atzeratu da.

Arlo arduraduna	·Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	·2024ra atzeratuta.

•30. jarduketa. Urteko prospekzio, dibulgazio eta komunikaziorako plana garatzea

Urtero, erronka demografikoari buruzko prospekzio, dibulgazio eta komunikazio sozialaren arloko lan-plana egitea, “Maiatza demografikoa”ren programazioa barnean hartuta.

Oharrak

·2023an, “Maiatza demografikoaren” aurreikuspena baldintzatuta egon zen udal- eta foru-hauteskundearen prozesuaren eta erakundeek aldi horietan ekitaldi publikoak egiteko orduan errespetatu behar dituzten lege-murrizketen ondorioz.

·Hori dela eta, aurten jarduera nagusia ekainaren 7an egindako “Talentuaren kudeaketa negu demografikoan” jardunaldian kontzentratu zen. Ekitaldian honako hauek parte hartu zuten: Andrés Arizkorreta (Jakiunde, CAF), Carolina Pérez Toledo (CEBEKeko presidentea), Sara de la Rica (ISEAK Fundazioko zuzendaria, EHUko Analisi Ekonomikoaren Oinarriak katedraduna), Begoña Etxebarria (Novia Salcedo Fundazioko zuzendari kudeatzailea) eta Ivan Jiménez (Bizkaia Talenteko zuzendari kudeatzailea).

·Jardunaldi honen edukia 2024aren hasieran argitaratuko da, erronka demografikoari buruzko Erronkak bildumako zenbaki espezifiko baten barruan.

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Aurrekontu-eragina 2023an	·20.000 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•31. jarduera. Aldian behingo prospekzio-azterlanak egitea

Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin eta EUSTATEkin lankidetzan, demografia-errealitatea etengabe aztertze prozesu bat egitea, bai eta demografiaren bilakaera, kausak eta ondorioak aztertze prozesu bat ere, prospekzioko, dibulgazioko eta komunikazioko urteko planetan sartuko diren lanen programazio batekin.

Oharrak

·Ezarritako aurreikuspenak betez, 2023an azterlan kualitatibo bat egin da, Euskadiko 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren pertsonen euskal landa-eremuan duten eragin demografikoari buruz.

·Helburua izan da arazo demografikoaren kausa eta ondorio nagusiak identifikatzea, modu espezifikoan, landa-eremuan. Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen aholkularitzarekin egin da lana.

·Ondorioak 2023ko abenduaren 7an aurkeztu ziren, eta hemen eskura daitezke: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_23kua3/eu_def/adjuntos/23kua3landa_eu.pdf

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Aurrekontu-eragina 2023an	·14.900 euro.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•32. jarduketa. Erronka demografikoak enpleguan dituen ondorioen azterketa bultzatzea

2022ko martxoaren 15ean Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren Lan Planean jada adostu zen demografiak enpleguan duen erronkaren ondorioei buruzko azterketa egitea. Azterketa hori hiru aldeko elkarrizketan egingo da sindikatuarekin, enpresa-elkarrekin eta gobernuekin, eta Eusko Legebiltzarrera bidaliko da amaitutakoan.

Oharrak

·Lan hori 2022an egin zen, eta 2023an partekatu zen Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren. Beraz, erronka demografikoak enpleguan dituen ondorioei buruzko azterketa egin da. Laster argitaratuko da Lan eta Enpleguko Sailaren webgunean.

·Ordezkapen-politiken arrakasta-ereduak aztertu eta identifikatu ziren. Aldi berean, Euskadiko belaunaldi-ordezkapenari buruzko datuak aztertu ziren, eta landa-lan bat egin da euskal enpresak arlo horretan duen errealitatea ezagutzeko. Azkenik, euskal enpresetan belaunaldien ordezkapena sektoreka lantzeko gida metodologiko bat diseinatu da.

·2023ko maiatzaren 17an, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren egindako lanaren hiru aldeko azterketa egin da.

Arlo arduraduna	·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•33. jarduera. Baliabideen gida bat egitea eta zabaltzea

Baliabideen gida bat egitea, gazteen emantzipazioa errazteko eta familia-proiektuak eraikitze eskura dauden ekimen publiko guztien ezagutza sustatzeko, bai prestazio eta laguntza ekonomikoei dagokienez, bai kontziliazio, hezkuntza, etxebizitza edo enpleguaren arloan ez.

Oharrak

- 2023an, gazteen emantzipazioa errazteko programei eta baliabideei buruz eskuragarri dagoen informazio guztia bildu da.
- Lan horretan oinarrituta eta estrategian aurreikusita dagoen bezala, gida 2024an zehar egin eta aurkeztuko da.

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•34. jarduera. Aurrekontuan islatzea

Urteko aurrekontuetan lehen ataleko jardueretarako erabiliko diren baliabideak adieraztea. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktu-irizpidearekin, bai eta sailen ohiko aurrekontutik aparteko gastu bat edo gastu gehigarri bat ekar dezake-tenak ere.

Oharrak

- Urtero egiten den ekitaldi bat da, eta memoria honek berariaz islatzen du.

Arlo arduraduna	·Ogasun Saila.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Jarduketa bakoitzaren ardura duen sail bakoitzari dagokio.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•35. jarduera. Jarraipen-memoriak egitea urtero

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian jasotako aurreikuspenen eta jardueren betetze-mailari buruzko urteko jarraipen-memoriak egitea, bai eta horiek aurrekontuan duten isla ere.

Oharrak

- 2023ko azaroan hasi zen lantzen Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian jasotako aurreikuspenen eta jarduketaren betetze-mailari buruzko urteko jarraipen-memoria.
- Ezarritako aurreikuspenak betez, 2024ko lehen hiruhilekoan argitaratu da.

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Aurrekontu-eraginik gabe.
Betetze-maila 2023an	·% 100.

•36. jarduera. Ebaluazio-prozesuak bultzatzea

2025eko eta 2028ko lehen seihilekoan aurkeztu behar diren tarteko ebaluazio-prozesuen diseinua eta enkargua eta 2031ko lehen seihilekoan amaitu beharko den azken ebaluazioa planifikatzea. Hiru ebaluazio-prozesu horiek Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren Aginte Taula Integrala erabiliko dute Eranskinean aurkezten dena. Aginte-aula hori hiru adierazle-multzotan egituratzen da: egoera, helburuak eta funtsezko faktoreak.

Oharrak

·Bitarteko ebaluazioa 2024aren amaieran egitea aurreikusten da.

Arlo arduraduna	·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
Aurrekontu-eragina 2023an	·Ez dagokio 2023an.
Betetze-maila 2023an	·2023an ez dagokio.

2. Azken oharra

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia 2022ko ekainaren 21ean onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Horrek esan nahi du memoria honek lehen 18 hilabeteen balantzea eskaintzen duela; hori guztia, zortzi urtez, 2030era arte, proiektatzen den estrategia baten esparruan.

Urteko memoria mota hori Estrategiaren beraren barruan dago aurreikusita, 35. jarduketan. Helburuen betetze-mailaren jarraipena egitea du helburu, aurreikusitako egutegiei dagokienez. Balorazio kualitatiboa 36. jardueran aurreikusita dago, 2025eko eta 2028ko tarteko bi ebaluazioen eta 2031ko amaierako ebaluazioaren bidez.

2.1. Helburuen betetze-mailaren balantzea lehen 18 hilabeteetan

Memoria horrek aukera ematen du egiaztatzeko lan-helburuen eta egutegiaren betetze-maila nabarmen altua dela. Estrategian aurreikusitako 36 jardueretatik 3k ez zuten helbururik 2023ko amaiera baino lehen. Gainerako 33 jardueretatik, 29tan bete da ezarritako konpromisoen egutegia. Beste 4 jarduketak 2024ra atzeratu dira, baina, nolanahi ere, aktibatuta edo abian daude prestaketa-fasean. 2023an, 230.464.870 euroko aurrekontua metatu da Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia bultzatzeko.

Balantze on horrek agerian uzten du Estrategia hori zeharkako eta sailarteko jarduketarako tresna ona dela, eta hurrengo bloke-egiturak, ardatzek, zehar-lerroek eta jarduerak erantzun egin dietela bete behar zituen funtzionaltasun- eta osotasun-helburuei:

• **1. multzoa.** Epe laburrerako eraginaren irizpidea duten 4 jarduketa hartzen ditu barne (trakzio-proiektuak).

• **2. multzoa.** Lau ardatz eta 23 jarduketa ditu abian, ibilbide luzeko inpaktuaren irizpidearekin.

- **I. ardatza:** Gazteen emantzipazioa.

- **II. ardatza:** Familia-proiektuen eraikuntza.

- **III. ardatza:** Adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea.

- **IV. ardatza:** Migranten gizarteratzea.

• **3. multzoa.** Zeharkako hiru jarduera-ildo eta 9 jarduketa jasotzen ditu.

- Zeharkako jarduketako **1. lerroa:** landa-eremua errebalorizatzea.

- Zeharkako jarduketako **2. lerroa:** prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa.

- Zeharkako jarduketako **3. lerroa:** aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa.

• **Eranskina.** Aginte-taula integrala, egoeraren, helburuen eta funtsezko faktoreen adierazleekin.

Aldi berean, Estrategiaren planteamenduak berretsi egiten du, alde batetik, trazatutako lan-plangintza egokia eta bideragarria dela, eta, bestetik, arduratutako sailek inplikazio handia dutela hura betetzeko, eta lehentasun-izaera ematen zaiola helburuak garatzeari eta betetzeari.

Ildo beretik, eta Estrategiak berak jasotzen duen jarraipen-, ebaluazio- eta adierazle-sistemaren barruan, dagoeneko probatu diren lau erreferentzietako biri balioa eman behar zaie: (1) urteko lehen memoria hau egitea eta (2) 2022ko ekainetik lau aldiz bildu den Sailarteko Mahaia. Biak oso baliagarriak izan dira Estrategia osoaren jarraipena egiteko, koordinatzeko eta bultzatzeko. 2024an, (3) tarteko ebaluazioaren lehen prozesuari ekingo zaio, Estrategian sartutako (4) adierazleen panela erreferentziazat hartuta.

·Balantze horri gehitu behar zaio, interkonexioa eta izaera osagarria duelako, Gobernu Kontseiluak 2023ko martxoaren 21ean onartu zuela Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia. Kontuan izan behar da Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren I. ardatza “Gazteen emantzipazioan” zentratzen dela. Horrela, emantzipazio-estrategiarekin, Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia berariaz indartu da bere sektore-eremuetako batean, gazteria-politika publikoetatik.

·Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategiak bost ardatz ditu, 10 trakzio-proiektu eta 27 jarduera lotu edo osagarri, horietako batzuk bat datozenak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian aurreikusitakoekin; eta beste jarduketa berri batzuk, hala nola hilean 300 euroko laguntza bi urtez emantzipazio-prozesuetan dauden 25-29 urteko gazteentzat. Nolanahi ere, eta oro har, Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia errefortzu garrantzitsua eta sinergia-eragina izan da erronka demografikoari erantzuteko helburuetan.

2.2. 2024ko perspektiban irekitzen diren hausnarketa- eta hobekuntza-ildoak

2024. urtea berezia da, hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, udaberrian Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dira, eta horrek legealdi berri bat ekarriko du. Bigarrenik, Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiari dagokionez, 2025eko lehen seihilekoan Estrategiaren tarteko lehen ebaluazioa aurkeztea aurreikusten da, eta horrek esan nahi du 2024ko bigarren seihilekoan hasi beharko dela hura prestatzen. Hirugarrenik, aurreikusita dago 2024an politika fiskala berrikusteko prozesuari ekitea. Foru-aldundiek jada iragarritako beste aldagai batzuen artean, erronka demografikoaren gakoa hartu beharko da kontuan.

Hiru inguruabar horiek direla eta, 2024ko bigarren seihilekoa une egokia da Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia hobetzeko eta optimizatzeko esparruak identifikatzeko, datozen urteei begira. Hurrengo ataletan, erronka demografikoari erantzuten jarraitzeko ezar litezkeen berrikuntza- eta hobekuntza-ildo batzuk aipatzen dira, gogoeta eta iradokizun gisa. Erronka horrek erantzun dinamikoak eta errealitate demografikoaren bilakaerara egokitze modukoak eskatzen ditu, eragin sozialak, kulturalak edo ekonomikoak dinamikoak, aldakorak eta poliedrikoak diren neurrian.

·Trakzio-proiektu berrien bloke bat identifikatzea

2022ko ekainean onartutako Estrategiaren bertsioan, lehen blokeak epe laburrerako inpaktu-irizpidea duten 4 jarduketa berri definitzen ditu, trakzio-proiektu izaera dutenak. Horietako hiru 2023an amaituta daude (zuzeneko laguntza seme edo alaba bakoitzeko, hilean 200 eurokoa, hiru urtera artekoa; doakotasuna 0-2 urte bitarteko haur-eskoletan; eta ikuspegi demografikoa txertatzea araudia egitean), eta laugarrena 2024an egongo da (Ekintzailetza-proiektuetarako eta gazteen prestakuntzarako mailegu-programa).

Plantea daitekeen lehen iradokizuna da 2024ko bigarren seihilekoan hasi behar den tarteko ebaluazioa aprobeztatzea trakzio-proiektuen bloke berri bat identifikatzeko, Estrategiaren potentziala indartzeko eta biderkatzeko, ordura arte eraikitakotik abiatuta. Oso interesgarria izan liteke Estrategiaren lehentasunezko jarduera-ardatz bakoitzak bereziki nabarmendutako trakzio-proiektu bat izatea. (Estrategiak, gaur egun, lau ardatz ditu, baina hurrengo ataletan bosgarren bat sortzea iradokiko da).

·“Euskadiko giza kapitala indartzea eta ordezkatzeta” Estrategiaren lehentasunezko jarduera-ardatz berritza hartzea

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiak lehentasunezko lau jarduera-ardatz ditu: I. ardatza: Gazteen emantzipazioa; II. ardatza: Familia-proiektuen eraikuntza; III. ar-

datza: Adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea; eta IV. ardatza: Migranteen gizarteratzea. Bestalde, Estrategiak bere laugarren ardatzaren barruan sartzen du “26. jarduera. Talentua atxikitze, garatze eta erakartzeko programa bat abian jartzea”, nagusiki gazte-politiken eremura mugatzen dena.

Atal honetan jasotako iradokizuna da Estrategiaren lehentasunezko jarduketa-ardatz berri gisa berezko garrantzia ematea Euskadiko *giza kapitala indartzen eta ordeztzen lagunduko duen eremuari*, Euskadin nahiz Europa osoan belaunaldi-erreleboaren eta eskulan-defizitaren gero eta zailtasun handiagoei erantzuna emango diena. Ardatz horrek lan-ildo hauek jaso eta berrantolatu ditzake eremu berean:

- Talentua: kualifikazio handiko profesionalak erakartzea.
- Migrazioa: profesional kualifikatuak eta kualifikatu gabeak erakartzea.
- Itzulera: kanpoan irten ziren ikasleak eta langileak Euskadira erakartzea.
- Atxikipena: Euskadin jarraitzea erakargarri egitea garapen profesionalerako.
- Diaspora: kanpoko euskal komunitateei lotutako pertsonak Euskadira erakartzea.
- Lan-merkatuaren potentzialtasunak: gazteen enplegu lan-baldintzak hobetzea, 55 eta 65 urte bitarteko enplegurik gabeko langileak kontratatzea, emakumeen enpleguaren behin-behinekotasuna edo partzialtasuna murriztea, edo Euskadin jada instalatuta dagoen immigrazioaren birkualifikazioa edo homologazioa arintzea.

Lehendakaritzak koordinatuta, 2023an zehar, Orkestra Institutuak dokumentu bat egin du “Euskadi Talent Estrategia” baterako. Euskadin talentua atxikitze, garatze eta erakartze buruzko azterlan zabala da, eta iradokizun horren oinarri eta esparru izan daiteke.

•Migrazioaren arloko ardatza eta haren bi jarduera-eremu nagusiak indartzea, garatzea eta zehaztea: (I) erakartzea eta ekartzea, eta (II) hartzea eta integratzea.

Iradokizun hori osagarria da eta aurrekoarekin lotzen da. Migrazioa ezin da eta ez da hartu behar erronka demografikoaren irtenbidetzat, baina bai erantzun garrantzitsuenetako bat bezala. Migratzaileen ekarpena gero eta garrantzitsuagoa da, bai jaiotza-datuen balantzea hobetzeko egiten duten ekarpenagatik, bai lan-merkatuan eskulana birjartzeko egiten duten ekarpenagatik, bai beren zergen bidez zerbitzu publikoak eta ongizate-estatua mantentzeko egiten duten ekarpenagatik.

Etorkizunean, berehalako zein bitarteko, Euskadik migratzaile gehiago beharko ditu. Hau da, lanean hasteko beharra handiagoa izango da. Ikuspegi horrekin, bi eremu nagusitan sakondu beharko da helburu hori lortzeko: (1) *erakartzeko* eta *ekartzeko* gaitasuna, eta (2) *hartzeko* eta *integratzeko* gaitasuna. Bi helburu horiek Estrategian identifikatuta daude, zehazki, «25. jarduera. Migrazioaren eta asiloaren arloko transferentziari lehentasuna ematea, eta migratzaileak hartzeko eta integratzeko euskal eredua diseinatzea”.

Jarduera honen lehen zatia –*Migrazioaren eta asiloaren arloko transferentziari lehentasuna ematea*– bat dator migratzaileak *erakartzeko* eta *ekartzeko* dugun gaitasuna indartzeko beharrarekin. Erakarpen-estrategia eraginkorrak garatzea ahalbidetzen duten tresnak behar ditugu. Estrategiak, 2024tik aurrera, xehetasun handiagoz jaso ditzake tresna horien edukia eta garrantzia.

Jarduera honen bigarren zatia –*Migratzaileak hartzeko eta integratzeko euskal eredua diseinua*– bat dator migratzaileak gizarteratzeko prozesuak zailtzen dituzten oztopoak kentzeko eta arazoak konpontzeko gaitasunarekin, hasierako orientazio-zerbitzuetatik hasi eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu osoan aholkularitza eta laguntza emateraino. Horrela, eta Estrategiaren tarteko ebaluazioaren esparruan, 2024tik aurrera, bigarren dimentsio horrek ere zehaztasun eta egokitze handiagoa izan lezake premia eta errealitate berrietara.

•Estrategiaren erakunde arteko dimentsioa zabaltzea

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia egiteko prozesuak eztabaidarako fase bat izan zuen lehen urtean, foru-aldundiekin eta EUDELekin batera. Izan ere, Estrategiaren I. dokumentuak (Esparru Orokorra) bigarren puntuan jasotzen du “Foru-aldundiek eta udalek erronka demografikoaren arloan egindako jardueraren memoria”.

Azkenik, Estrategia Eusko Jaurlaritzaren sailen arteko jarduera-tresna gisa proiektatu zen, beste bi maila instituzionalekin koordinatzera eta jarduera osagarria irekita. 2030 Agenda Euskadi Foroa eta, zehazki, Gobernantzako Lantaldea eta Eraldaketa Sozialaren Lantaldea Estrategiaren garapena partekatu eta bateratu duten bi gune izan dira.

2024ko bigarren seihilekoa une egokia izan daiteke aztertzeko ea Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiak hurrengo urteetako plangintzan sar dezakeen foru-aldundiekin eta udalekin partekatutako jarduera-esparru bat.

Azken batean, puntu honetan iradokitzen da Estrategiaren ebaluazioa aukera egokia izan dadila honen erakundearteko dimentsioa zabaltzeko, bai zerga-eremuan, bai erronka demografikoari erantzuteko garaian erakunde-maila desberdinetan zeharkakoak izan daitezkeen politika publikoen beste jarduera batzuetan. Iradokizun horren oinarrian gogoeta partekatu bat dago: erantzun hau herri-helburu estrategiko bat da, eta, zalantzarik gabe, garrantzitsuenetako bat hurrengo hamarkaden ikuspegitik.

Oharren eranskina

Beste dokumentu
interesgarri batzuetarako
estekak

·27/2023 Dekretua, otsailaren 21ekoa, seme-alabaren bat duten familientzako laguntzena

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/02/2301073e.pdf>

·Erronkak 2. Euskadiko belaunaldien arteko harremanen etorkizunari buruzko elkarrizketa eta eztabaida publikoa bilatzea. Javier Yanguas eta Joseba Zalakain

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/coleccion_interes_erronkak/eu_def/adjuntos/2-ERRONKAK-EUS.pdf

·Erronkak 6. Talentuaren kudeaketa negu demografikoan: Gogoeta eraikitzailea. Juanjo Álvarez Rubio

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/coleccion_interes_erronkak/eu_def/adjuntos/Erronkak-6-EUS.pdf

